

JAKIN

PATXI AZPILLAGA
IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA
HEGO EUSKAL HERRIAN

3KOMA93
BALEUKO
IGELDO
IKUSKIN
ORIO
TELEBISTA-EKOIZTETXEEI GALDEKETA

PELLO SARASOLA
BA OTE DAGO EUSKAL INDUSTRIA
AUDIOBISUALIK?

TXILIKU ARANGUREN
JESUS EGUZKITZA
IÑAKI ZUBIZARRETEA
TELEBISTA ETA BIKOIZKETA

TXEMA RAMIREZ
MASA-HEDABIDEAK ETA BORTIZKERIA POLITIKOA

ALBERTO BARANDIARAN
HARKAITZ CANO
IMANOL AGIRRE
KIKE AMONARRIZ
EGUNEN GURPILEAN

99

MARTXOA-APIRILA 1997



JAKIN

99

MARTXOA-APIRILA 1997



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
---	----------------	---

G	AI NAGUSIA	11
---	------------	----

PATXI AZPILLAGA
IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA HEGO EUSKAL HERRIAN

31
3KOMA93
BALEUKO
IGELDO
IKUSKIN
ORIO
TELEBISTA-EKOIZTETXEEI GALDEKETA

49
PELLO SARASOLA
BA OTE DAGO EUSKAL INDUSTRIA AUDIOBISUALIK?

65
TXILIKU ARANGUREN
JESUS EGUZKITZA
IÑAKI ZUBIZARRETA
TELEBISTA ETA BIKOIZKETA

H	AINBAT ABURU	87
---	--------------	----

TXEMA RAMIREZ
MASA-HEDABIDEAK ETA BORTIZKERIA POLITIKOA

E	GUNEN GURPILEAN	107
---	-----------------	-----

ALBERTO BARANDIARAN
HARKAITZ CANO
IMANOL AGIRRE
KIKE AMONARRIZ

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1997ko PREZIOAK

<u>BARRUAN</u>	<u>HARPIDEDUNA</u>	<u>EZ HARPIDEDUNA</u>
Harpidetza	5.500 pzta.	—
Ale arrunta	925 pzta.	1.350 pzta.
<u>KANPOAN</u>		
Harpidetza	6.000 pzta. (246 FF)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (41 FF)	1.550 pzta. (64 FF)

SUMMARY

BASQUE AUDIOVISUAL INDUSTRY AS AN ECONOMIC SECTOR

PATXI AZPILLAGA

Patxi Azpillaga, professor at the University of the Basque Country, here analyzes the current situation and developments in recent years in the audiovisual industry in the Basque Coun-

try. This work has been carried out from an economic perspective — it describes the financial set-up of the sector, the principle data and features of audiovisual production, etc.

QUESTIONNAIRE DIRECTED AT TELEVISION PRODUCERS

JAKIN

Five television producers in the Basque Country reply to the questionnaire drawn up by *Jakin* concerning audiovisual production in the Basque language. The persons in charge of the audiovisual companies 3Koma93, Baleuko, Igeldo, Ikuskin and Orio recognize

the peculiar features of the Basque audiovisual market in which they work. One of the main themes of the questionnaire concerns the relationship existing between private producers and public Basque television,

TELEVISION AND OVERDUBBING

VARIOUS AUTHORS

Txiliku Aranguren, Jesus Eguzkitza and Iñaki Zubizarreta here analyze developments which have taken place in Basque language overdubbing since the creation of Basque public television (ETB) fifteen years ago. Aranguren and Eguzkitza focus their articles on the analysis

of technical difficulties in overdubbing. Zubizarreta criticizes the ETB programming model, in which he observes the presence of a disproportionately large amount of sports and children's programmes in contrast to a shortage of feature and telefilms requiring overdubbing.

DOES A BASQUE AUDIOVISUAL INDUSTRY EXIST?

PELLO SARASOLA

Pello Sarasola, Head of Programming at ETB (Basque Television), attempts to reply to the question posed in the title of his article. Can it be stated that a proper Basque audiovisual industrial sector exists? The author analyzes the production and the audiovisual market

from the point of view of ETB, emphasizing the steps which have been taken to develop the sector since the birth of Basque public television fifteen years ago. He underlines the important role played by independent producers in recent years.

MASS COMMUNICATION MEDIA AND POLITICAL VIOLENCE

TXEMA RAMIREZ

The author begins the article by referring to the proposals of different authors concerning attitudes towards reporting that the journalist or the media must take with regard to the phenomenon of political violence. In the second part he analyses the reporting

strategy pursued by the Minister of the Interior of the Basque Country, Juan María Atutxa. Finally, he states that the stance which the reporter must adopt in the face of political violence is, above all, that of a commitment to reporting the truth.

NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we are closely following culture, entertainments, sociolinguistic and literary-re-

lated matters. This section draws on various specialists: Alberto Barandiaran, Imanol Agirre, Kike Amonarriz and Harkaitz Cano.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 99. zenbakia da eta 1997. urteko bigarrena.

Euskal Herrian oso gaztea den kultur alor bat hartu dugu gai nagusitzat: ikus-entzunezkoa. 80ko hamarkada baino lehenagotik ere izan da euskarazko ikus-entzunezko produkzio-rik, baina esan daiteke Euskal Telebistara sorreraren batera hasi zela Euskal Herrian audiobisualaren industria gorpuzten. Hamabost urte joan dira eta, osasun onean edo ez, ikus-entzunezkoen sektorea izan bada Euskal Herrian. Bada zer aztertua eta nork aztertua.

Sektorea osotasunean hartuz eta batik bat ikuspuntu ekonomikotik begiratu egin du sarrerako artikulua Patxi Azpillaga EHUKo irakasleak: urteotako bilakaera eta gaur egungo egoera zehaztasunez aztertu du, eta etorkizunari buruzko gogoeta ere egin du amaieran.

Euskaraz ekoizten duten bost ekoiztetxetako arduradunen iritziak bildu ditugu bigarren lanean: 3Koma93, Baleuko, Igeldo, Ikuskin eta Orio etxeek erantzun diote *Jakin*-ek bidalitako galdetegiari. Pausokak ez erantzutea erabaki du.

Pello Sarasola Euskal Telebistako programazio-arduradunak «euskal industria autobisualik» ba ote dagoen galdetzen du bere idazlanaren izenburuan. ETBren errealitatetik abiatuta baina ETBra mugatu gabe egin du analisisa Sarasolak.

Gai nagusiaren azken atala bikoizketarako itzulpengintzan diharduten hiru profesionalen lanek osatzen dute. Txiliku Arangurennek eta Jesus Eguzkitzak ikus-entzuketako itzulpengintzaren eta bikoizketaren zailtasunen eta emandako aurrepausoen berri ematen dute. Iñaki Zubizarretak ETBren programazio-eredu «desorekatua» kritikatzeko du, besteak beste euskarazko katean zineari eskaintzen zaion leku eskasaz ohar-taraziz.

Txema Ramirezen artikulua dator *Hainbat aburu* sailean: Juan Mari Atutxa Eusko Jaurlaritzako Barne sailburuaren komunikazio-politikari arreta berezia jarritz, bortizkeria politikoa eta masa-komunikabideak gaitzat harturik moldatu du idazlana unibertsitate-irakasleak.

Artikulu labur eta biziez osatutako *Egunen Gurpilean* saila da zenbaki honetako azkena: Kultura, Literatura, Ikuskizunak eta Soziolinguistika alorretako gaiak dituzte hizpide Alberto Barandiaran, Harkaitz Cano, Imanol Agirre eta Kike Amonarriz lankideek.

GAI NAGUSIA

PATXI AZPILLAGA

IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA HEGO EUSKAL HERRIAN

3KOMA93

BALEUKO

IGELDO

IKUSKIN

ORIO

TELEBISTA-EKOIZTETXEEI GALDEKETA

PELLO SARASOLA

BA OTE DAGO EUSKAL INDUSTRIA AUDIOBISUALIK?

TXILIKU ARANGUREN

JESUS EGUZKITZA

IÑAKI ZUBIZARRETA

TELEBISTA ETA BIKOIZKETA

IKUS-ENTZUNEZKO INDUSTRIA HEGO EUSKAL HERRAN

PATXI AZPILLAGA

Artikulu hau Hego Euskal Herriko ikus-entzunezko industriaren azken urteotako bilakaera eta egungo egoera aztertzeke saio bat da. Lana ekonomiaren ikuspegitik jorratu da. Nola dago egituratuta ekonomikoki Hego Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorea? Zeintzu dira bere ezaugarri eta datu ekonomiko nagusiak? Nola gaude gaur egun ikus-entzunezkoetan enpresa eta azpiegitura aldetik? Zer garrantzi dute horiek Euskal Herriko ikus-entzunezko sistemaren barnean? Zer barrunda daiteke horretatik guztitik etorkizunari begira? Hauek dira azterketaren nondik norakoak gidatzen dituzten galdera edo ildo nagusiak.

Azken bi hamarkada hauetan, 80.etik hona alegia, gauza asko egin da gure herrian ikus-entzunezkoen alorrean. Urtero errodatu da filmeren bat edo beste. Bat edo bi baino gehiago ere bai, normalean, eta urte onenetan bost eta seira ere heldu izan da bertan egindako luzemetraia-kopurua. Laburmetraiak, berriz, ugari egin dira, berrehundik gertuago ehundik baino urte hauetan guztietan.

Euskal Telebista ere hortxe dugu, hamalau urtetako ibilbidea eta gero, urtean hamar mila ordutik gorako programazioa emanez bi kanaletatik, eta egun bere saioak satelitez ere emitituz. Telebista lokalak, halaber, perretxikoak bezala ugaltu dira aldi batez.

Ikus-entzunezkoen erabilera, gainera, beste hainbat eremutara ere zabaldu da. Hezkuntzara, esaterako; edota enpresa zein instituzioen mundura, hauen komunikazio-estrategien funtsezko osagaia bilakatu delarik. Zerbitzuzko aplikazio komertzial hauetan ezin ahantz daiteke publizitatea ere, ordea, gurean garapen eskasa edo nahi baino txikiagoa izan duelako, tamalez. Bestalde, musika-bideo, bideo artistiko eta lan afizionatu-militante-eragile ugari ere egin da urte hauetan guztietan, zinearen banaketa eta erakusketa-arloei buruzko aipamenik ez egitearren.

Jarduera honekin guztiarekin batera, honen eraginez edo honen eragile ikus-entzunezko industri egitura eta enpresa-ehun xumeak joan dira sortzen eta eratzen, hain zuzen ere orrialde hauetan aztertu eta kritikoki baloratzen saiatuko garenak.

Gure barne-merkatuaren hedapen txikiak eta ikus-entzunezko industriaren berezko ezaugarri ekonomikoek —sektore konplexua, mota askotako sortzaile, teknikari eta azpiegitura eskatzen eta biltzen dituen, kostu eta arrisku handikoa, nazioartekotu eta kontzentratutakoa...— zaila egiten dute gure herrian berezko industri egitura osatu eta lehiakor bat era daitekeenik amestea ere. Hori, abiapuntu gisa onartu beharreko premisa dugu, ekoizpenaren aldetik bereziki.

Ordea industri alderdi honetatik daukaguna txikia, ekonomikoki ahula eta partziala, oso partziala dela aurrez onartzeak,

eta etorkizunean ere ziurrenik txikia, ahula eta partziala izaten jarraituko duela jakiteak, ez gaituzte eraman behar, besterik gabe, gure ikus-entzunezko sistemaren alde hau guxtiestera.


Alderantziz, Estatu espainiarrean eta Europan ikus-entzunezko produkzioa antolatzeko eredu gero eta industrialagoak nagusitzen ari diren garaiotan, derrigorrezkoa dugu baita Euskal Herrian ere alderdi hau jorratzea. Inguruko industria indartsu eta hedatuagoekin aurrez aurre, maila berean lehiatuko duen sistema eratuko ez bada ere, Euskal Herrian egitura pixka bat indartsuago eta zertxobait orekatu eta osatuagoa edukitzea garrantzitsua izango da ikus-entzunezko produkzioari eusteko edota hori garatzeko.

Ez da, baina, horregatik ahaztu behar ezta ere industri dimentsioa ikus-entzunezko sistemaren alderdietako bat baino ez dela. Hau da, bere balioa eta eraginkortasuna ezin direla neurri ekonomikoen arabera bakarrik zehaztu. Aitzitik, kultura sortu, garatu eta bideratzeko ahalmena dela horren benetazko neurria emango duena. Arreta ekonomian, lan egiteko moduetan eta enpresetan jartzeagatik ez da, hortaz, ahaztu behar kultura dela jokoan den gaia. Ez da, alegia, ikusmira estu eta laburreko ekonomizismoan edo «industrialitis» faltsu eta kaltegarri batean erori behar.

ZINEMAGINTZA

Lehen esan den bezala, filme-produkzio jarduera esanguratsu bat eman da Hego Euskal Herrian, kopuru-aldeetik behintzat, 1981etik aurrera (ikus 1 Grafikoa). Aurreko hamarkadan egindako laburmetraiek eta bereziki *Ama lur* eta *El Proceso de Burgos* luzemetraiek zabaldutako bideari beste 70 luzemetraiak eta, gutxi gora-behera, 161 laburmetraiak jarraitu diete¹. Urte batean bakarrik, hasieran, 1982an hain zuzen ere, ez zen luzemetraiarik errodatu, baina urte horretan ere bederatzi laburmetraia burutu ziren.

1 Grafikoa. Hego Euskal Herriko zine-ekoizpena




* Aurrikuspena.


Iturria: Kultur Ministeritza / Eusko Jaurlaritza / Pentsa espezializatua. Egileak landutako grafikoa.

Grafikoan ikus daitekeenez, ekoizpenak urtetik urtera go-ra-beherak izan baditu ere, orokorrean, eta estatu espainiarrekoarekin alderatuta (2.1 eta 2.2 Grafikoak), maila egonkor harrigarri bati eutsi diola esan daiteke.

2.1 grafikoa. Estatu espainiarreko zine ekoizpena: luzemetraiak



Iturria: Cine & Teleinforme. Egileak landutako grafikoa.



2.2 grafikoa. Estatu espainiarreko zine ekoizpena: laburmetraiak

* Hamarkada hasierako kopuruak oso altuak dira telebistarentzat egindako hainbat saio dokumental laburmetraia gisa kontabilizatzen delako.

Iturria: Cine & Teleinforme. Egileak landutako grafikoa.

Izan ere kontuan izan behar da zer testuinguru ekonomikotan gertatu den gure zine-ekoizpenaren zuzpertzeara: ezerezetik abiatuta eta justu zinemagintza-krisiak jota eta gainbehera nabarmenean zetorrenean Europa osoan. Industri gisa, hondoa jotakoa zirudien zinemagintzak, hirurogeigarrenetik aurrera, telebistara lehiagatik nagusiki, ikusleak eta zine-aretoak etengabe galtzen ari baitzen. Estatu Espainiarrean, adibidez, 400 milioi ikusle joan ziren zine-aretoetara 1965ean eta 1988ean, aldiz, 70 milioi bakarrik. Zine-areto kopurua ere 8.000tik 1.800era jaitsi zen tarte horretan.

Gainera, kanpoko pelikulek, iparamerikarrek bereziki, Europako merkatuen gero eta zati handiagoak bereganatzen zituzten eta estatuen estatuko pelikulak txartelen salmentagatik bildutako kopuruaren gero eta kuota txikiagoarekin konformatu behar ziren. Estatu Espainiarreko kasuan, aipatu urte-tarte horretan % 35etik % 8ra jaitsi zen bertako pelikulek lortzen zuten zatia.

Horrela, bada, zine-ekoizpena babes publikoari esker bakarrik bizi zitekeen. Zinemagintzaren babes publikoak historia luzea du Europako lurralde guztietan. Ia mende hasieratik existitu da, eta lurraldetik lurraldera desberdintasunak ematen baziren ere kanpoko filmeen inportazioa mugatzea eta estatuan estatukoak ekonomikoki laguntzea zuten helburu. Laguntza ekonomiko hau, normalean, txartel-salmenten araberrako subentzio bat izaten zen, bildutako diruaren gaineko portzentaia gehigarri bat, alegia.

Laurogeiko hamarkada honetan, ordea, garrantzizko aldaketa eman zen Estatu espainiarreko laguntza-sisteman, eta honek egin zuen posible neurri batean zine-ekoizpenaren hedapena Euskal Herrian.

Bi faktorek esplikatzen dute zinemagintzaren susperraldia Hego Euskal Herrian. Batetik, giro politiko-kultural bizia eta askoren borondatea eta gogoa zinea egiteko. Eta bigarrenik, faktore ekonomikoa. Eusko Jaurlaritzak zine-ekoizpenak finan-

tzatzeko laguntzak ematen hasi baitzen 1981etik aurrera², eta 1983an, berriz, Madrilgo Administrazioak ere ordurarteko bere politika aldatu eta, esan bezala, aurretiazko subentzioak ematen hasi zelako³. Horiei Euskal Telebista eta TVEren zinearekin kolaboratzeko akordioak gehituko bagenizkie osatuta edukiko genuke Euskal Herriko zinemagintzaren finantzaketa-eskema orokorra⁴.

Bat-batean, hortaz, dirua jarri zen ekoizle eta zinemagileen eskura, eta bi instituzioen subentzioak batzeko oztoporik ez zegoenez, kointzidentzia honek Euskal Herrian zinea egitea posible egiteaz gain erakargarri ere bihurtu zuen, nahiz eta azpiegitura-faltak Madrilan edo Bartzelonan baino garestiago egiten zuen hemen ekoiztea.

Askotan kritikatu izan zaio «Miró legea»-ri ekoizpen-egitura zaindu ez izana eta horren zatikatzea eta azkenean ahultzea ere eragitea, ezarritako ereduak oinarri ekonomiko sendorik gabeko hainbat eta hainbat ekoizle eta zuzendariri eskaini baitzion pelikulak egiteko aukera. Eta neurri batean hala izan zen. Baina agian horrexek berak egin zuen posible Euskal Herriko ekoizleak eta zuzendariak estatuko zinemagintza egitura horretan sartzea.

Eusko Jaurlaritzaren subentzioek, bestalde, bertan lan egiteak zekartzan desabantailak konpentsatzeaz gain zinemagintza espainiarrean ari zen jatorri euskalduneko hainbat zuzendari eta ekoizle ere erakartzea lortu zuen.

Halabaina finantzaketa-sistema hauei esker hedatu den ekoizpen-jarduera horrek guztiak Euskal Herriko industri azpiegituran izan duen eragina, enpresen egitura aldetik begiratuta, eskasa izan da.

S. Zunzunegik, 1985.ean, bertako zinemagintzaz egin zen lehenetako ikerkuntzaren konklusioetan zera zioen, inoiz ez zela Euskal Herrian industri oinarri bat sortzeko adina zine-produkzio jarraiturik izan eta zentzu horretan Euskal Herriko zinemagintza gehiago zela norbanako batzuren lanaren eta borondatearen emaitza⁵. Orain, hori esan zenetik beste hamabi urte pasatu direnean eta pelikula dexentez gehiago ekoiztu

denean berretsi egin behar ditugu haren hitzak: ez da industri oinarria sortzeko adina masa kritikorik lortu.

Ez dira zinearen zerbitzurako enpresak bertan ezarri edo sortu (laborategiak, estudioak, argiztapena, eta abar...), ulergarria dena, bestalde, ezen horiek jarduera zabala eta espezializatua behar baitute bizirauteko eta garatzeko; baina ekoizpen-enpresak ere ez dira kapitalizatu, ez dute ahalmen finantzariorik garatu, ez dituzte merkatuak landu eta egituratu, ez bertan ez kanpoan.

Aurretiazko subentzio eta diru publikoarekiko menpekotasunak bere horretan dirau oraindik ere Euskal Herriko ekoiztetxeen artean. Zentzu horretan adierazgarria da ikustea nola babes publikoko sistemak aldatu eta produkzioa finantzatzeko bestelako modu batzuk nagusitzen ari direnean, euskal ekoiztetxe gehienek lehengoko eredu berberari atxekita jarraitzen duten, hasieran aipatzen genituen modu industrialagoe-tara moldatu ezinik.

Horrela erreferentzia gisa hartu dugun 70 luzemetraia-mul-tzo horretatik 39 filmek produkziarako subentzio edo inbertsio bikoitza izan dute, 19 pelikulek soilik Eusko Jaurlaritzare n edo Euskalmediaren parte hartzea jaso dute eta beste 5 film-eri Madrilgo Kulturako Ministerioak eman die subentzioa. Hau da, egindako luzematraia horietatik guztietatik 7 proiektuk bakarrik ez dute produkziarako subentzio edo inbertsio pu-blikorik jaso. Produkzioa bera hasteko diru publikoarekiko dependentsia argia da beraz, baina kezkarriena zera da egun ere euskal ekoiztetxeek hortik kanpo jokatzeke erakusten den ezintasuna.

Bestalde deigarria gertatzen da ikustea halaber nola oro t a-ra Madrilgo administraziotik jasotako dirutza handiagoa den bertatik bideratutakoa baino. Horrela, 1984-1987 tarteari da-gozkion laburmetraien ekoizpenera zuzendutako dirulagun-tzen erre f e rentziarik ezean eta aintzat hartu gabe ezta ere taki-lagatiko emaitzen araberrako dirulaguntzak, Madrildik 1984-1996 urte tartean jasotako dirutza 1.793,5 milioi pezetakoa izan da. Eusko Jaurlaritzak bideratutako dirutza osoa hortxe-

-hortxe dabil 1.792 milioirekin. Honek adierazten du zer mai-lataraino dagoen Euskal Herriko zinemagintza estatu espai-niarrekoan txertatuta.

1 taula. Madrilgo Kultura Ministerioaren subentzioak Euskal Herriko zinemagintzari					
Urtea	Luzem.	Kopuruak	Labur.*	Kopuruak	Guztira
1984	6	165.000.000			165.000.000
1985	5	165.000.000			165.000.000
1986	5	159.700.000			159.700.000
1987		0			0
1988	4	109.000.000	26	32.000.000	141.000.000
1989	4	104.000.000	4	6.191.460	110.191.460
1990	3	110.000.000	3	6.700.000	116.700.000
1991	3	135.000.000			135.000.000
1992	2	147.500.000	11	16.981.333	164.481.333
1993	1	126.908.235	7	19.600.486	146.508.721
1994	6	245.599.286	9	18.431.116	264.030.402
1995	3	140.000.000	6	11.611.115	151.611.115
1996	1	70.000.000	3	4.266.904	74.266.904

* Ez dugu 1984-1987 urte tartean laburmetriak egiteko emandako subentzioen berri.

2 taula. Eusko Jaurlaritzaren subentzioak eta Euskalmediaren inbertsioak.						
Urtea	Luz.	Kopuruak	Lab.	Kopuruak	Beste*	Guztira
1981	1	10.000.000				165.000.000
1982	2	30.000.223	2	1.500.000		31.500.223
1983	2	16.693.062	7	14.113.096		30.806.158
1984	4	70.609.000	4	10.012.137		80.621.137
1985	3	60.000.000	2	2.365.000	100.000.000	162.365.000
1986	5	85.000.000	9	8.770.000		93.770.000
1987	7	92.000.000	10	11.000.000		103.000.000
1988	5	187.000.000	7	8.200.000		195.200.000
1989	2	76.582.300	5	9.900.000		86.482.300
1990	2	57.000.000	4	7.400.000	28.500.000	92.900.000
1991	4	45.000.000	3	5.000.000		50.000.000
1992						198.700.000
1993						180.500.000
1994						165.000.000
1995						165.000.000
1996						146.600.000

* Erdimetriak dira.

1992-1996 urte tarterako, Euskalmediak inbertitutak diru kopuru osoa baino ez da zehazten.

Laurogeiko hamarkadan ezarritako zine-produkzioa ba-
besteko sistema hauek aldakuntza nabarmenak ezagutu dituzte
azken urteotan. Estatu Espainiarrekoan ekoiztetxe egonkor
eta kapitalizatuagoak bultzatu nahi dira orain, kapazak izan-
go direnak, teoriarik behintzat, produktua modu egokiagoan
burutu eta merkaturatzen⁶.

Horrela bada, 1994tik aurrera murriztu egin dira aurretiaz-
ko subentzioa jasotzeko aukerak eta, aldiz, laguntza-bide be-
rri bat zabaldu da. Orain, Alderdi Popularrak aurtan bertan eza-
rritako araudian sartutako aldaketekin, aurretiazko suben-
tzioa eskatzeko eskubidea egile berriei edota izaera experi-
mentaleko produkzioei bakarrik mugatu zaie, egile berritatz
hiru filme baino gutxiago egin dituen zuzendaria kontsidera-
tzen delarik. Hau da, gehienez jota ere bere hirugarren pelikula
egiteko eskatu ahaliko du zuzendari batek aurretiazko suben-
tzioa. Hortik aurrera ezin izango du hori eskatu.

Baina bestalde, filmea aurretiazko subentziorik gabe buru-
tzen duten ekoizleei, egindako inbertsioaren herena jasotze-
ko aukera eskaintzen zaie subentzio gisa, baldin eta pelikula
horrek zine-aretoetan estreinatu eta gero takilan 50 milioi
pezeta lortzen baditu bi urtetan⁷. Arau orokor honek salbues-
penak ditu, besteak beste hizkuntza gutxiengotuekin zeriku-
sia dutenak. Hala katalanez, galizieraz edo euskaraz egindako
pelikuek nahikoa izango lukete 10 milioi pezeta lortzearekin
subentzioa jasotzeko, hori bai, horietatik bost jatorrizko ber-
tsioan lortu beharko lirakekeelarik⁸.

Aldaketa hauen eskutik edota, hobeto esanda, horiekin ba-
tera produkzio-egituren eraldaketa garrantzitsua gertatu da, na-
gusiki Estatuko komunikazio-taldeen eskutik. Horrela, Prisa tal-
deari eta Canal+ telebistari atxekitako Sogetel ekoiztetxeak eta
Sogepaq banatzaileak akordioak sinatu dituzte hainbat ekoiz-
tetxe independenterekin filmeak elkarrekin ekoizteko. Hala,
Andres Vicente Gomez-en Lolafilms eta Iberoamericanarekin,
Boca a Boca-rekin, CPArekin edota Fernando Truebarekin,
geroexago El Correo taldearen Tele5 ere gehitu egin zaielarik.

Antena 3 eta Z taldea ere beren aldetik saiatu dira antzeko egiturak osatzen Aurum ekoiztetxea eta Lider Films banatzailearen bitartez.

Ondorioa argi dago, zinemagintza gero eta eredu industria-lagoarenpean antolatzen ari da Estatu Espainiarrean, bai babes publikoaren aldetik, baita ekoiztetxeen aldetik ere. Zentzu honetan, Alderdi Popularrereko arduradunek adierazi dute jada euren helburua subentzio publikoak desagertaraztea dela eta horren ordez zerga-arintze eskemak ezartzea.

Eredu horretan bakarrik enpresa indartsuak, finantzak eta banaketa-sareak menderatuko dituztenak, iraunbizi ahalko dute. Eta horiek argi dago zeintzu diren Estatuan.

Euskal Herriko babes-sisteman ere gertatu dira aldaketak. Izan ere 1990.ean Eusko Jaurlaritzak elkarte publiko berezi bat, Euskalmedia delakoa, eratzea erabaki baitzuen ordutik aurrera ikus-entzunezko produkzio-ekimenak bertatik bideratzeko asmoarekin.

Aurretiko subentzio-politika arretaz jarraitzen bada antze-man daiteke nola Eusko Jaurlaritza bera ekoizle zuzen gisa agertu izan den behin baino gehiagotan⁹. Diskrezionalitate horrek egonezina sortu zuen behin eta berriz bertako ekoizle eta zuzendarien artean zeinek ez zuten bere kabuz ekoizteko ahalmen hori. Zentzu horretan, Euskalmediaren sorrerak Jaurlaritza eta ekoizle eta zuzendari gehienek arteko haserrea eta harremanen gaiztotzea ekarri zuen.

Planteamendua zera zen, ikus-entzunezko ekoizpenak subentzionatu beharrean, horietan inbertitzea. Horrela, sisteman sartutako dirua errekupe ratzen joatea espero zen etorkizunean urteroko diru-aurrekontu berrien bitartez eta errekupe ratutakoaren berrinbertsioari esker efektu biderkatzailea lortuz. Ez zen ordea, horrelakorik gertatu.

Teorian planteamendua ez zen desegokia. Neurri batean, Europako beste lurralde batzuetan egiten ari zenari lotzen zitzaion. Gainera, ikus-entzunezkoen planteamendu ireki bate-

tik abiatzen zen proiektua, ez hortaz zinea bakarrik sustatzeko asmoarekin baizik eta telebistarako programak ere.

Halabaina 1992-1996 bitartean egindako inbertsioek porrot egin zuten. Batzuetan planteamendu desegokietan oinarritzen zirelako inbertsioak eta bestetan horiek jaso zituzten enpresak, beren jardueraren antolamendu txarraren ondorioz, gainbehera etorri zirelako. Urte ezberdinetan burutzeko ekoizpen-multzotan egindako inbertsioak, Igeldorekin (hiru produktu-multzo, sei filme, bi telesail eta dokumental bat osatzen zituztenak), eta Lanzinemarekin (hiru filme) izan dira agian ekonomi aldetik ekimen garrantzitsuenak, baina horiek ere ez dute lortu bi enpresa horiei urte batzuetarako egonkortasun minimo bat ziurtatzea baino beste ezer.

Euskalmediaren ibilbidea hitz batean laburbiltzekotan, ordea, noraeza aukeratu beharko litzateke. Diskrezionalitate osoz, inori esplikaziorik eman gabe, egin ziren inbertsioak, askotan justifikazio ekonomiko eta politiko argirik gabe.

Pasa den urtean likidatu egin zen elkarte eta iaz Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ezarritako bide berriari jarraituko zaiola dirudi aurten ere. Aldaketa bakarra nekazaritza-inguruko zine-aretoei emango zaizkien laguntzak izango omen dira. Halabaina Eusko Jaurlaritzaren bide hau teknikoki berria bada ere, errealitatean lehengoko subentzio-eskema klasiko eta tradizionalera itzultzea baino ez da. Berrikuntza bakarra gidoiak idazteko eta egitasmoak garatzeko laguntzak dira¹⁰. Bestela luzemetraiak eta laburmetraiak egiteko subentzio klasikoak eta betikoak dira.

Dugun testuinguru gero eta industrialagoa aintzat hartuta eta gure enpresen egitura ekonomiko ahula ikusita, ez dut us-te ordea nahikoa izango denik eskema hori gure zinemagintzari egun behar duen bultzada emateko. Kultur ikuspegia berreskuratzea neurri batean garrantzitsua izan da, baina oraindik ibilbide luzea dago egiteko bai kulturaren alderdi honetatik (euskaraz egindako zinea) eta baita industri erronkan ere.

Lehenengoari dagokiolarik, eta euskararen ikuspuntutik bereziki, prestakuntza eta sormena eta esperimentazioaren

sustapena klabeak dira. Horrezaz gain, barne-merkatua antolatzea eta egituratzea inoiz aintzat hartu ez den erronka garrantzitsua izan daiteke, egun Estatu-mailan subentzioak antolatuta dauden eran ekoizpenarentzat ere garrantzitsua izan daitekeena. Horretarako oinarrizko baldintza batzuk alde ditugu, gainera: zine-aretoak denak bertako enpresenak dira, ez dira kanpoko zirkuitoak bertan sartu. Are gehiago, hiriburuetan zine-aretoak eragiten dituzten enpresen egoera ekonomikoa oso ona da eta zenbaitetan beren zirkuitoak Estatuko beste hiriburuetara hedatu dituzte (hala nola Iruñeko Golem-ekoak Logroño eta Burgosera, edota Gasteizko Mikeldikoak Madrilerara). Gainera herrietako zine-areto publiko sare zabala dugu Gipuzkoan eta Bizkaian, posible egingo luketenak ekimen publikoak koordinatu eta horiei hedapen zabalagoa ematea.

Banaketa dugu honetan ahula, baina arlo ez komertziale-tatik burutzen ari diren ekimenak, Tinko elkarteak bultzatzen duen Euskara Zinema Aretoetara ekimena bezalakoak, garrantzitsuak izan daitezke epe ertainera.

Industri alderdiari dagokiolarik, bestalde, Euskal Telebistarekiko harremanak estutzea eta hau zine-ekoizpenera erakartzea funtsezkoa izango da datozen urteetan. Horretan ordea, ekoiztetxeek eurek ere erantzukizun handia dute, gaia ezin baita planteatu, garai batean bezala, Euskal Telebistari bere programazioaren eta kostuen egitura aldetatik inondik inora in-t e resatzen ez zitzaizkion produktuetan dirua inbertitzeko bes-terik gabe exijituz.

Horrek produkzio-baldintzak egokitzea eta beste modu ba-tean planifikatzea eskatzen du, gehiago barrura begira agian kanpora baino. Horrek ez du ordea zertan zine «txikia» edo «pobrea» ekarri kulturaren aldetik.

Puntu honek, gainera ezin hobeto eramaten gaitu artikulua honen funtsa den beste gaira, telebistarentzako lan egiten du-ten ekoiztetxeak eta zerbitzu-enpresak. Askotan bigarren mai-la batean kokatu izan dira enpresa hauek zinekoak duten *glamour*-a falta zaielako edo. Horrek ez du ordea esan nahi ga-rrantzi gutxiagokoak direnik ez ekonomikoki ezta kulturalki ere

Euskal Herriko ikus-entzunezkogintzarako eta kulturgintzarako. Horren adibiderik begibistakoena agian, Asegarce berarena da, telebistarako sukaldaritza-programa egiten hasi eta egun Juanma Bajo Ulloaren azken filmearen ekoizle.

PRODUKZIO- ETA ZERBITZU-ENPRESAK

Telebisten egungo ekoizpen-ereduetan gero eta garrantzi-tsuagoak dira ekoiztetxe independenteak, azpikontrataturakoak eta zerbitzu-enpresak¹¹. Kostu finakoak eta arriskuak murrizteko, malgutasuna irabazteko azken finean, produkzioaren gehiengoa etxe barruan, euren kabuz egin beharrean, telebista publiko gehienek beti egin izan duten bezala, orain telebista guztien joera, publiko zein pribatuena, produkzioa kanpora ateratzearena da. Beste hainbat industrian bezala kanpoan e rostera eta hornitzaile-sarezabal batez inguratzeraz jotzen dute telebistek beren programazio-orduak betetzeko.

Egia esan, betidanik egon dira telebistei zerbitzu espezializatuak eskaintzen zizkieten enpresak, arlo teknikoan nagusiki, baina baita produkzioan ere. Inoiz ez da ordea ekoizpena kanporatzeko joera hau egun adinako hedapenarekin gertatu. Alde honetatik uste dugu egungo dinamika hauek garapen-aukera berriak zabaltzen dizkiola Euskal Herriko ikus-entzunezkogintzari. Arazoak eta erronkak ere bai, ikusiko den legez.

Sektore honen garapenean Euskal Herrian hiru aldi bereiz daitezke, estuki lotuta bakoitza Euskal Telebista programazio-ereduarekin, kontsolidazio-mailarekin eta ekoizpena antolatze-ko moduarekin. Nahiz eta enpresa hauek beste telebista, merkatu eta arlo batzuetarako ere lan egingo duten, Euskal Telebista da dudarik gabe multzoari egitura eta proiektzioa ematen diona.

Lehen aldia, hortaz, ETB sortu eta 1987 arte luzatzen da gutxi gora-behera, zeinean Euskal Telebistak enpresa hauetatik jasotzen dituen zerbitzu-motak teknikoak diren gehienbat, bikoizketakoak nagusiki, baina baita ENGak ere. Horien ondoan, bertako zine-ekoiztetxeek egindako filmeen antena-eskubideak erostean eta produkzio gutxi batzuren enkarguan egindako inber-

tsioak dira aipagarri —gehienetan dokumental motakoak—. Ekoizpena, zentzu honetan, ETBtik bertatik landua eta zuzendua da gehienetan. ETBk berak kudeatzen du ekoizpena eta kontratazioak berak egiten ditu zuzenean. Bikoizketa-etxez gain, hortaz, zerbitzu-etxe gutxi batzuk eta gehienbat *free-lance* moduan dabilzan profesionalek osatzen dute sektorea.

Bigarrenaldia, berriz, 1987tik 1992 arte luzatuko litzateke. Kanpoko etxeei zerbitzu tekniko gehiago eskatzen zaizkie, pixkana-pixkana maila altuagokoa ere —postprodukzioak, erretransmisiokoak, *plató*ak...—. Bigarren kanalaren zabalkuntzak beharrak aregotu zituen lehenengo, baina ETB bera kontsolidatzen ari den heinean gero eta gehiago zaintzen du baita ere itxura teknikoa, eta hortik eskakizunak ere beste maila batekoak izatea. Pixkanaka-pixkanaka halaber programa gehiagoren produkzioa egiten da enkarguen bitartez, hala nola lehiaketak eta *magazine*ak, ohiko dokumentalez gainera. Alde honetatik gero eta gehiago jotzen da ekoizpenaren kudeaketarena rdura azpikontratatuta ari den ekoiztetxeari igarotzen. Bigarren kanala gazteleraz izateak ere zera ekarriko du, kanpoko ekoiztetxeak ere hurbiltzea beren programak eskaintzera. Aldi honetan, produkzio eta postprodukzioko zerbitzu-enpresen neurritz kanpoko ugaltzea ematen da, urte batzuren bueltan itxi egin beharko dutenak.

Eta hirugarrena 1992tik aurrera luzatuko litzateke. Barne-produkzioaren aldeko apustua sakondu egiten da eta aurrereko urteetan fikziozko programetan edo telesailetan egindako lehen ahaleginek jarraipena izango dute. Ibilbide honetan, *Goenkale* gune inportantea izango da. Horren ostean fikzioaren produkziarako joera erabat sendotu baita. Bestalde, ordea, eskatutako zerbitzu teknikoak eta horien antolakuntza berregituratu egiten dira: bikoizketa-eskakizunak gutxiagotzen hasten dira eta ENG zerbitzuaren azpikontratazioa ere berrantolatu egiten da. Gainera, Miramongo Produkzio Zentrua amaitu eta benetan eraginkor izaten hasten denez kanpoko postprodukzioko zerbitzu edota *plató*en beharrak gutxitu egiten dira. Honek estualdia ekarri du zerbitzu-etxeen artera, hainbatek ateak itxi ere egin behar izan dituelarik. Halabaina,

horrekin batera, gero eta programa gehiagoren ekoizpena has-
ten da kanpora ateratzen, nahiz eta gero, normalean, baliabi-
de teknikoak ETBk berak jarri edo kontratatuko dituen.

Sektorearen ezaugarriak ezagutzeko aintzat hartu behar
dira, halaber, beste klabe batzuk ere. Horietako bat larrialdiaz
ibili izana da, ulergarria neurri batean, baina gauzak ondo
pentsatzeke egitea eta ondoren desoreka nabarmenak eragin
dituena, horien artean telebista ikus-entzunezko sektorearen
osagai eta motore gisa planifikatu ez izana. Bestea, klientelismo
edo itzal politikoa, neurri batean aurrekoarekin lotuta dagoena.
Enpresen sorkuntzan, enkarguetan eta azpikontratazio-eraba-
kietan pisua izan duen faktorea izan da. Ezaguna da, besteak bes-
te, EAJ tratu berezia jaso duen zenbait enpresen atzean egon de-
la eta dagoela oraindik neurri handiago edo txikiago batean. Ho-
nako menpekotasun politikoak ekidin-zailak dira edozein eko-
nomi jardueratan, baina hemen hain nabarmena izateak kre-
dibilitatea, sinesgarritasuna kendu dio sektoreari. Eta, hiru-
garrenik, produkzioko politika eza. Epe laburrerako progra-
mazio-beharrik agintzen dute telebistaren gestioa, neurri han-
di batean normala dena, bestalde. Ordea, gurea bezalako he-
rri batean, non produkzio-egiturak ahulak eta urriak diren,
hauek garatzeko eta hobetzeko epe luzeragorako ikusmira ere
derrigorrezkoa da.

Enpresen aldetik berriz jokamolde ezberdinak eman dira. Ba-
tzuek *abenturerismora* jo zuten, adibidez, K-2.000-k. Indus-
tria eta merkatua ezagutu gabe, ingurua egituratu eta indar-
tu gabe Estatuko bideo-postprodukzioan aitzindari izan nahi
izan zuten bere garaian, hori bai, subentzio publiko onak ja-
so eta gero. Halako kaleek kalte egiten diote ez bakarrik hori
jasaten duen enpresari baizik eta industri sektore osoaren ga-
rapenari, urte batzuetarako instituzioen, inbertsoreen eta finantz
ajenteen mesfidantza sortaraziz. Txarrena, ordea, halako espe-
rientziak behin baino gehiagotan errepikatu direla izan da.
Horren beste aldea berriz, beste asko geldoegiak izan direla
da. Errekurtsoak, baliabideak izan dituztenean ez dituzte edo
ez dute jakin izan horiek merkatu, arlo edo funtzionatzeko

modu berriak jorratzeko erabiltzen. Horien faltan, berriz, orain ezin.

Edozein kasutan, garapen eta bilakaera honen guztiaren ondorio da egun dugun sektorea. Egundak hirurogei bat enpresek osatzen dute sektorea, orotara, 5.500-6.000 milioi pezeta inguru fakturatzeko dutelarik. Fakturazio horren erdia baino zeozer gutxiago Euskal Telebistaren demandari dagokio, honela banatzen dena, gutxi gora-behera, 1996ko aurrekontuen arabera: 300 milioi pezeta ENGtan, 700 milioi bikoizketetan eta 1.800 milioi enkarguzko produkzio eta koprodukzioetan. Bestiak Espainiako merkaturako lortutakoak izango lirateke, Asegarce-ren bitartez behinik behin, eta, azkenik, enpresa eta instituzioentzako zein hezkuntzarako bidegintzan¹².

Oraindik desoreka nabarmenak erakusten baditu ere, orokorrean duela urte batzuk baino egituratuago dago enpresa-multzo hau. ENG zerbitzuen berrantolaketak neurri bateko normalizazioa ekarri du borroka bizia ezagutzen ari zen arlo honetara¹³.

Bikoizketak, berriz, fakturazio-kopuru normalagoak erakusten ditu. Egia da horrek K-2.000, Edertrack eta Irusoin-en une txarrak pasatuko dituztela esan nahi duela, baina, bestalde, ez dut uste gurea bezalako ikus-entzunezko ekonomia urriak halako desoreka luzaragoan jasan zezakeenik. Urteak joan urteak etorri bikoizketan, helden zen edozein produkturen bikoizketan gainera, joaten baitzen sektorearen dirutza nagusia, urtean 1.000 milioi pezeta inguru. Gainera, enpresa hauek, lehen esan den bezala, ez dira beren momentuan kapaz izan beren bizkar hartzeko bikoizketari bestelako irtenbide eta proiektzioa bilatzen. Dena den, dirua xahutzearen arazoa hemen baino, egiten diren *Toma y Dacia* bezalako alferrikako produkzio horietan dago.

Ekipamenduari dagokiolarik, bestalde, nahikoa osatuta dago eta berrikuntza nabarmena ematen ari da edizio dijitalerantz. Halako inbertsioak ordea, beti dira arriskutsuak, are gehiago gurea bezalako sektore batean, hain proiektzio urria duena kanporantz.

Azkenik, ekoizpenaren aldetik, ETBk fikzioari, edo hobeto esanda, telesailen produkzioari emandako garrantziak lagundu egin dio sektoreari bere kalitate-maila igotzen, sektorea bera konplexuagoa eginen. Alde honetatik, euskarazko gidoigin-tzan eman den garapena izugarri ona izan da.

Bestalde, arlo honetako hainbat enpresa, orain arte ez bezala, kapaza dela demostratzen ari da berezko proiektuak garatu eta burutzeko, hala nola Baleuko *Los Megasónicos* hiru dimentsiotako marrazkiekin.

Ordea garapen hau guztia lan-baldintzak txartzearen kontura egin da neurri handi batean ere. Lehen ordu-erdiko kapitulu batengatik ordaintzen zenarekin orain 50 minutukoak egin behar dira. Gehiago egiteak merkeago produzitzea dakar bai, baina badira horretan ere muga batzuk ezagutu eta errekonozitu egin behar direnak gurutzatu baino lehen.

Kalitateak ere kolokan jarri izan dira. Horren adibide dugu, besteak beste Pausokak egindako *Pocahontas II* marrazki biziduna, zeinarekin, nazioarteko merkatuan ate faltsutik, hau da, B mailatik beherako produktu batekin, sartu nahi izan den.

IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREA?

Ikuspuntu honetatik egin dugu Euskal Herriko ikus-entzunezko industriaren azterketa eta kritika: merkatua, ekonomia, industria ez dira bakarrik datu exogenoak, kanpotik ezarritako egiturak eta baldintzak, zeinen eraginetatik defendatu edo beraietan murgildu baino beste aukerarik ez daukagun. Ekonomia, merkatua eta industria bertatik eraiki beharreko zer-bait ere badirela kontsideratu behar dela uste dugu.

Erreferentzia inportanteak dira nazioarteko eta Estatuko merkatuak eta egiturak, hain zuzen ere gure industria mugitzen eta murgiltzen den testuinguru politiko eta ekonomikoa osatzen baitute. Baina ez da ahaztu behar ezta ere horiek egin duten indar zentrifugoa izugarria dela gure arekiko. Horren isla da gure zuzendari eta aktore ospetsu gehienak Madril

inguruan lan egiten ibiltzea, edota zenbait ekoiztetxek nazioarteko koprodukzioetara jo izana gero eta gehiago. Euskal Telebista bera ere neurri batean zurrumbilo horretan harrapatuta dago, programen eta erretransmisioen eskubideak erosten diren modua dela eta —telebista autonomiko guztiek batera, FORTAren bitartez, alegia—. Zine eta bideoaren merkatuaren aldetik ere gurea Estatukoaren zati hutsa eta berezitu gabea da neurri handi batean.

Zaila edo ezinezkoa da indar horri guztiari aurre egitea. Neurri handi batean zentzugabea ere badela esan genezake. Baina horrek ez dizkigu aukera guztiak kentzen. Barruranzko indar zentripetoa egingo duten egiturak ere antolatu behar dira, ez besteari aurrez aurre aurka egiteko, ez dugu hainbestearinako indarririk. Ezta bertan itxi eta gordetzeko ere, kanpokoarekin elkarbizi eta kanpora irtetea gure kulturgintzaren funtsezko erronka baita. Zentzu honetan ikus-entzunezko ekonomia eta egitura ahalik eta eraginkor, egonkor eta eutsigarrienak eraiki behar direla da gure planteamendua.

Alde honetatik, bide luzea eta arazo ugari ditu oraindik gainditzeko Euskal Herriko ikus-entzunezko gintzak. Besteak beste zinemagintzarako planteamendu ireki eta egoki bat aurkitzea eta telebistagintzan, programazioarekin batera produkzioaren plangintza irizpide oinarrizko batzuk ezartzea.

1. Bertan egoitza soziala duten ekoiztetxeen edo, kanpokoak izan arren, ETBren, Eusko Jaurilaritzaren eta Gobernu Nafarraren inbertsio eta subentzioen partaidetzarekin egindako luzemetraia- eta laburmetraia-kopuruak dira horiek, gutxi gora-beherazkoak beti ere laburmetraien kasuan. Produkzio-eskema horietatik kanpo baina bertako zuzendariek egindako filmeak ere aintzat hartuko bagenitu erruz handituko litzazkiguke kopuruak.

Murriztegiak dira, agian, aipatutako irizpideak hego Euskal-Herriko zinemagintza mugatzeko produkzio aldetik. Zentzugabeak ere gerta daitezke zenbait kasutan, ekoizpena eta ekoizteko industri egitura ez baitira bakarrik dirua jartzera mugatzen. Ohiz erabili izan direnak dira, ordea, eta, zerbait ona izatekotan, irizpide objektiboak dira. Kasuan kasuko eztabaida egin ezean beraiekin jarraituko dugu, hortaz.

2. Behin-behineko moduan lehenengo urteetan, eta araudi zehatz baten arabera 1984tik aurrera.

3. Erret Dekretua 3304/1983. Hau da «Miró Legea» ezizenez ezagutu zena. Honen arabera, besteak beste, filmearen produkzioa finantzatzeko, egitera zihoazen filmeari takilagatik legokiokoen subentzioaren aurrerapena jasotzeko aukera ematen zaie ekoizleei. Hau errealitatean itzuli beharrik gabeko subentzio-modua bihurtu zen.

4. Aintzat hartu beharko lirateke, halaber, Nafarroako Gobernuak banatutako subentzioak. Hauek, baina, soilik laburmetraiak eta bideogintza subentzionatzera zuzentzen dira. 1985etik aurrera urtero bi

laburmetraia subentzionatu dira, hasieran 500.000 pezetatako kopuruarekin eta azken urteotan milioi t'erdikoekin.

5. S. Zunzunegui, *El cine en el País Vasco*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1985, p: 399.

6. Zentzu honetan, Miró-ren legeak ez zuen lortu filme espainiarrek beren barne-merkatuaren gaineko kuota berreskuratzea. Alderantziz, pixkana-pixkana zine espainiarra posizioak galtzen joan zen bere merkatuan bertan, eta horrela 1989an, takilagatik bildutakoaren % 8 baino ez zuen jaso. Gainera, subentzio aurreratuen sistemak produkzio-kosten hazkundera ekarri zuen eta horrekin batera produkzio-kopurua asko gutxitzea. (Ikusi Zenbait Egile, *La industria cinematográfica en España*, Fundesco-Kultura Ministerioa, Madril, 1993)

7. Hirugarren bide honen aukera 1989an zabaldu zen Semprún Espainiako Gobernuako Kultur Ministerioan zelarik. Orduan eraginik ez zuen izan, ordea, hau da, oso egitasmo gutxi jo zuten aukera horretatik. 1994an berriz, birmoldatu egin zen araua eta subentzioa jasotzeko lortu beharreko gutxienezko diru-kopurua 30 milioitara jaitسي zen. Indarrean egon den hiru urte hauetan eraginkorra izan da. Orain Alderdi Popularrak gogortu egin du arautegia eta 50 milioitara igo du berriro ere takilagatik gutxienez lortu beharreko dirutza. Salbuespen gisa egile berriek egindako filmeak eta 200 milioitik behera kostatutakoak zehazten dira, zeinentzat 30 milioitan uzten den lortu beharreko takilagatik sarrera minimoa.

8. Salbuespen hauek 1994ko arautegian zeuden gisa berean utzi ditu Alderdi Popularraren arautegi berriak. Eraldatuta suertatu diren beste arauak pelikula bakoitzak gehienez jaso dezakeen dirutza 200 milioi pezetatik 150 milioitara jaistea eta gidioek jasotako laguntzak filmea egiten bada itzuli beharra dira. Halaber, aparteko kalitateagatik 30 milioitako subentzio berezia jasotzeko aukera desagertu egiten da (urteko honako hamar subentzio eman zitezkeen). Horien ordez kategoria bereziko zinemaldietara joategatik, urteko 20 milioitako hamar subentzio-aukera zehazten da. Banaketarako laguntzak bere horretan uzten dira.

9. Hau da ETBrekin batera egindako hiru erdimetraien kasua (*Ehu metro*, *Zergatik Panpox* eta *Hama-seigarrenean aidanez*) edota *Santa Cruz*, *el cura guerrillero* luzemetraiaarena.

10. Gidoigintza eta garapenareko laguntzen alde honetatik Europako joera berriei atxikitzen zaio Kultura Saila, honako mekanismoak baitira, hain zuzen, Europar instituzioetatik bultzatzen ari direnak, MEDIA delako programaren bitartez, pelikula eta telebista programen banaketarekin batera.

11. Lehenengoak egiten dituzten programen gaineko eskubide edo jabego ekonomikoa gordetzen duten ekoiztetxeak izango dira. Bigarrenak, berriz, telebistaren kontura egiten dituztenak, produktuaren gaineko inolako eskubiderik gorde gabe. Hirugarrenak, azkenik, telebistari zerbitzu teknikoak eskainiko lizkioketenak, hala nola, bikoizketa, argiztapena, kamerak, unitate ibiltariak...

12. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak urtero 40 milioi pezeta bideratzen ditu hezkuntzarako eskarazko bideogintzara, EIMA II delako programaren bitartez.

13. Nahiz eta berrantolaketa bera ere istilutsua gertatu den halaber, ENG zerbitzuak eskaintzen zituzten enpresen arteko lehia hain zen gogorra ezen prezioak erdira baino gutxiago jaitسي zirela urte gutxiren buruan. Gauzak horrela, ETBk lehiaketara atera zuen zerbitzua 1992an, batetik are gehiago onuratzeko gerra horretaz, eta bestetik zerbitzuari egonkortasun ekonomiko minimo bat ematearren. Gauzak horrela, bi enpresa-talde edo Aldi Baterako Elkarte aurkeztu ziren lehiaketara eta prozesu irregularraren ondoren azkenean proiektu garestiena aurkeztzen zuen taldeari eman zion.

TELEBISTA- -EKOIZTETXEEI GALDEKETA

Euskal Herriko ikus-entzunezko industria hartu dugu gai nagusitzat Jakin-en zenbaki honetan, baina ikus-entzunezkoen mundu zabal honetan alor jakin bati ipini nahi izan diogu arreta berezia: telebistarako euskarazko produkzioa. Gai honetan, nola ez, zeresan handia dute Euskal Herriko ekoiztetxe pribatuek, eurek ekoizten baitituzte telebista-pantailan euskaraz ikusten ditugun programa gehienak.

Ugariak dira, txiki eta handi, telebista-produktorak Euskal Herrian: bikoizketan dihardute batzuek, zerbitzu teknikoak eskaintzen beste batzuek, telebista-programen ekoizpena dute alor nagusia beste hainbatek, telebistan bezala zine-produkzioan aritzen direnak ere badira... Euskarazko telebista-ekoizpenak egiten dituzten sei etxerengana jo dugu guk.

Ez dira guztiak baina, aukera egin behar eta urteotan euskarazko produkzioan nabarmendu direnetan sei hautatu ditugu: 3Koma93, Baleuko, Igeldo Komunikazioa, Ikuskin, Orio Produkzioak eta Pausoka. Bederatzina galdera egin diegu, eta galdera bakoitzari gehienez hogeitaz erantzuna emateko eskatu. Le-

henengo bost etxeetako arduradunek bidali dizkigute eskatutako erantzunak. ETBrentzako ekoizpen gehien egiten dituen Pausoka-k, aldiz, ez erantzutea erabaki duela jakinarazi digu.

Hitzez hitz jaso ditugu erantzunak datozen orrialdeotan, galdera bakoitzaren ondoren ekoiztetxe guztien erantzunak banan banan emanaz.

Gure eskerrik beroenak gure galdetegiari erantzuteko lana hartu duten 3Koma93ko Koldo Anasagastiri, Baleukoko Karmelo Vivancori, Igeldoko Angel Amigori, Ikuskineko Jose Inazio Anso-renari eta Orioko Martin Ibarbiari.

Noiz sortu zen ekoiztetxea eta zer helbururekin? Zein da zuen enpresaren gaur egungo tamaina (zenbat langile, zenbat kolaboratzaile...) eta lan-alorra?

3Koma93

3Koma93, S.A 1993ko martxoan sortu zen Bilbon, Euskadiko ikus-entzunezko industriaren barruan beste txokotxo bat beste nahian. Geure lana bi arlotara hedatu nahi genuen, eta hortan aritu izan gara urte hauetan; batetik, telebistarako ekoizketa (programak, dokumentalak, telesailak...); eta bestetik, Euskadiko ekoizketen banaketa mundu zabalean zehar, gureak zein beste edozein ekoiztetxeren produktuena.

Koma lau pertsonen osatzen dute modu iraunkorrean eta produkzioen arabera gure langile kopurua asko gehitu daiteke; egun hogeitaz lagun ari dira lanean baina duela hilabete batzuk berrogei ginen.

Baleuko

1993. urtean sortu zen, telebistarako saioak (era guztieta-koak) egiteko helburuarekin. Enpresan bederatzi langile inguru daude, eta programa jakin bakoitzeko beste bost edo sei aritzen dira.

Igeldo

Duela hamasei urte hasi nintzen ekoizle-lanetan. Euskal giroan ikus-entzunezko jarduera sortzea nuen orduan helburu. Euskararen erabilera ere gure helburuetako bat zen.

Gaur egun, Igeldoko talde egonkorra oso txikia den arren (lau lagun), urtero ehun pertsona inguru kontratatzen ditugu geuk antolatutako zine- eta telebista-ekoizpen desberdinetarako.

Ikuskin

Gure enpresa bi bidetatik zetozen jardunen elkarketa da. Batetik IZ disketxea (hogeita bi urte inguru euskal diskagintzan) eta bestetik *Txirri*, *Mirri eta Txiribiton* pailazo-taldea. Pailazoek, beren bigarren diskoa egitean (lehenengoa desagertutako Herri Gogoa-rekin egina baitzuten), etxe horretara etorri ziren. Eta hortik aurrera harremanak onak eta sendoak izan ziren. Txirri, Mirri eta Txiribitonek *Don, Don, Kikilikon* saioa amaitu eta Xabier Otaegi eta Jose Inazio Ansorena *Funtzioa* programa prestatzen hasi zirenean, IZko sortzailea zen Fernando San Josek eta beraiek biltzea erabaki zuten, eta Ikuskin enpresa sortu. Hortik aurrera enpresa berriaren helburua ikus-entzunezkoen arloan lan egitea izan da, baita zuzeneko ikuskizunenean ere. Orain dela hiru bat urte, IZ zigilu diskografiko moduan gertatu zen, Ikuskin enpresaren barruan.

Gure tankerako enpresetan langileen kopurua oso aldakorra da; zein eratako produkzioetan ari garen, asko aldatzen da langileen egituraketa. Azkeneko bi urteetan, batezbeste, hogeit langile izan dugu eta kolaboratzaile-zerrenda luzea (hama bost gutxi gora-behera).

Orio

1988an. Enpresa egin. Fikzioa euskaraz jorratzeko asmoarekin besteak beste.

Gaur egungo tamaina:

- Sei langile.
- Bi kolaboratzaile tinko.
- Aldikako kolaboratzaileak.

Lan-alorra:

— Telebista.

— Zine-proiektu bi ere baditugu garatu ezinean.

Orainarte zuek ekoiztutako produkzioen artean zein nabarmenduko zenituzkete? Une honetan zein produktioekin ari zarete?

3Koma93

Produktzio guztiak izaten dira garrantzitsuak, bakoitza bere alorrean. Gusto handiz egin izan ditugu *Duplex* eta *A ze para* telesailak, baita zenbait programa oso ezberdinak euren artean: *Goraintzi*, *Boulevard*, *Ciudadanos*, *Arde la tarde*, *088...* edo eta dokumentalak, *Euskal espioitza...* Egun, *Aire Aire* saioa egiten dugu ETBko lehenengo katerako. TVErako ere gidoi batzuk egiten ari gara, hamahiru hain zuzen ere, *Páginas ocultas de la historia* deituko den saio baterako (egun produktzio-lanetan). TVGrako (Galiziako Telebista) egin genituen *Los jueves mudanza* lehiaketaren hamahiru atal. Telebista-produktzio hauez aparte, distribuzio-lanetan jarraitzen dugu. Arlo honetan nabarmengarria iruditzen zaigu Euskal Telebistako katalogo osoaren distribuzioa egiten dugula munduan zehar, eta beste zenbait enpresa euskaldunena ere bai. Distribuzio-mailan oso akordio garrantzitsuak lortu ditugu Gales, Italia, Errusia eta Espainiako beste distribuzio-etxe batzuekin elkarlanerako. Saldu ditugu baita ere, guk asmatu eta landutako formato batzuen eskubideak Holandan, Italian, Belgikan, Noruegan, Suedian eta Alemanian.

Baleuko

Dokumental sorta ugari egin dugu: *Euskal futbolaren historia*; *Herri Kirolak*; *Gerra Zibila*; *Euskaldunak eta Itsasoa*; *Euskal Txirindularitza*; *Testigos de Cargo...* denak hainbat kapitulu sortak dira. Dokumental solteak ere egin ditugu: *Indurain, gizon lasaia*; *El papa, la cuenta atras*; *Padre Arrupe, la Iglesia del siglo XXI...*

Oraintxe bertan zera daukagu esku artean: zenbait instituzio errendako bideoak; *Euskaraokea*; Gerra Zibilaren III. kapitulu

lua; *Jaiak 97* saio berezia; *Megasonikoak* (hiru dimentsiotan egoniko marrazki bizidunak, lehenengoak Estatu osoan). Eta lehenago *Jaiak 96*; *La gran Oportunidad*; eta *Kaixo 97* gala egin ditugu, besteak beste.

Igeldo

Zinean: *La fuga de Segovia* (Uribe), *Lauaxeta* (Zorrilla), *Andar eta Yul* (Ana Diez), *El sol del membrillo* (Erice) eta *Maité* (Zabala eta Olasagasti). Telebistan: *Bi eta bat* eta *Jaun eta Jabe*. Dokumentalak: *Crónica del Descubrimiento del Viejo Mundo por Kayum Maax* (P. Bilbao), *Lumière y Compañía* (zenbait zuzendari).

Zinean, metraje luzeko filme hauek amaitzen edo prestatzen ari naiz: *Todo está oscuro* (A. Diez), *Che Guevara* (M. Dugowson), *Sans desir apparent* (O. Peray) eta telebistan *Jaun eta Jabe* saileko 23 atal berri.

Ikuskin

Gure produkzio guztiak maite ditugu eta denak dira garrantzitsuak guretzat. Arloka jarritz:

- Zuzeneko ikuskizunetan:

- Txirri, Mirri eta Txiribitonen ikuskizuna. Horrelako mailako emankizunik ez dugu uste dagoenik euskal haurrentzat.

- Donostiako Zinemaldia. Zabalpena, Amaiera eta Erdiko aurkezpen eta zeremonia guztiak antolatu genituen 1991 eta 1992 urteetan. Telebistarako ere prestatuak eta euskarak, lehenengo aldiz, leku eta maila ona izan zituelarik bertan.

- *Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko lehenengo jaialdi handia, Donostiako Belodromoan (1990).

- Erakunde askotarako lan egin izan dugu eta egiten arlo honetan (Gipuzkoako Kutxa desagertu zeneko langileentzako Makrojaialdia, Euskadiko Kutxaren bideo-lehiaketa, Donostiako Hamabostaldirako zenbait jaialdi eta kontzertu berezi...).

- Diskagintzan oso zaila egiten da zerbait bereiztea. Nahikoa izango da esatea bostehun erreferentzia inguru dituela gure ka-

talogoak eta bertan tankera guztietako musikak agertzen direla (jazz, pop, rock, euskal folklorea, haurrentzako ipuinak, koruak, musika sinfonikoa, etab.). Egindako ekoizpenak arlo honetan, gure estudioan beste ekoiztetxeetarako burututakoak barne, mi-latik gora dira.

- Ikus-entzunezkoen arloan, batez ere Euskal Telebistarako egin dugu lan. Hauek dira programa ezagunenak: *Funtzioa; Hau da hau; Txirri, Mirri eta Txiribiton; Balinda; Txiskola* (orain horrekin ari gara).

Hauekin batera ere zenbait bideo eman ditugu argitara: *Txi-ri, Mirri eta Txiribiton; Allakuidaos; Kli-klá telebista; Xaguxarroski kontea; Euskal Herriko Soinu Tresnak*.

Orio

Errusian bizi eta hil. Zazpi ataleko dokumental-saila. 1936ko gerratean Euskal Herritik Moskura bidalitako hainbat euskaldunen bizitza eta heriotza kontatzen duen saioa. Horietako atal bat, Agustin Gomez de Segura Pagola, errenteriar futbolariaren bizitza kontatzen duena, Montrealeko INPUT Nazioarteko Telebista Jardunaldietarako selekzionatua izan zen.

Gaur egun euskararen berriak eta hizkuntzaren inguruan normalizazio zein errekupeziarako gizaratean egiten ari den ahalegina kontatzen dugu astero ETBn, euskaraz nola gaztelaniaz, *Hitzaro* eta *Lengua Viva* deritzan magazin-programetan.

Zein proportziotan egiten duzue lan ETBrako? Euskal ikus-entzunezko enpresek ETBrekin duzuen menpekotasuna zer neurritakoa da? Zer ondorio ditu menpekotasun horrek?

3Koma93

Egun ETBrako egiten duguna, gure lana oro har hartuta % 70 izan daiteke. Beraz, esan genezake gure menpekotasuna garrantzitsua dela, bertako enpresa gehienei pasatzen zaien antzera. Honek suposatzen du, gure irabazien ehuneko parte zabal bat ETBren eskuetan dagoela, eta programazioaren arabera gure fakturazioak gora zein behera egin dezakeela. Arazorik larrie-

na momentu honetan zera da: egindako produktu bakoitzak uzten digun irabazi-marjina kontuan harturik, zaila egiten dela enpresa-estrukturak mantentzea eta proiektu berrietan lan egin eta dirua inbertitzea.

Baleuko

ETBrako egiten dugu % 70, eta beste enpresa, instituzio eta herri erakunde batzuentzat gainerako % 30.

Euskal produktorek menpekotasun handiegia dute ETBreiko. Aska bakarra dagoenez, askaren jabeak ezartzen ditu pentsuen salneurriak eta abelburu bakoitzak jango duen bazka. Menpekotasun hori dela eta, proiektu asko kaxoietan geratzen da edo egiten direnak, norberak nahi dituen baldintzetan egin beharrran, bezero bakar horrek nahi dituen moduan egiten dira.

Igeldo

% 10etik % 25era bitartean. Enpresa batzuek erabateko dependentzia dute. Erosle bakar baten baitan egoteak bere baldintzak nahitaez onartu beharra esan nahi du. Merkatu gatibua da.

Ikuskin

Bistan denez, ikus-entzunezkoen alorrean asko egin dugu Euskal Telebistarako. Beste enpresetan ezin esan dezakegu. Baina, gure kasuan, ez genuke menpekotasun-izenez bataiatuko. Gure hasiera horretarako zen: *euskaraz* arlo honetan lan egiteko. Eta *euskaraz* ari den katea bakarria ETB 1 da oraingoz. Ez dugu eragozpenik beste hizkuntzetan lan egiteko, baina hau da gure abiapuntua.

Orio

% 80. Ez dakit besteena zein neurritako menpekotasuna den, baina gure kasuan, aurreko datuak erakusten duena da. Horregatik ari gara beste merkatuak ireki nahian, baina izugarri zaila da eta tamaina txikiko enpresentzat gehiago oraindik.

Ez dakit nola atera gintezkeen zulo honetatik, baina ez naiz oso baikorra. Lehenengo enpresen tamaina handitu behar dugu, kapitalizatu, eta ateratako etekinekin nekez lortzen da ho-

ri. Beste diru-iturri batzuk behar ditugu. Bigarren, enpresak profesionalizatu egin behar dira. Oraindik badago bidea egiteko alor horretan, gidoigintzan eta errealizazioan, esate baterako. Eta, hirugarren, estrategia komun eta orokor baten faltan gaudela esango nuke. Eusko Jaurlaritza, Euskal Telebista eta ekoiztetxeen artean asmatu eta onartutako epe luzerako egitasmo zabala beharrezkoa dela iruditzen zait, baina ez dakit ametsetan ez ote nabilen.

Zuen lanen artean zenbat egiten dituzue euskaraz, zenbat gazteleraz, zenbat elebidun? Elebidunetan, zein hizkuntza da jatorrizkoa? Zer irizpide erabiltzen dituzue hizkuntzaren aukeran?

3Koma93

Gure lanik garrantzitsuenak ETBrako diren neurrian, euskara da gehien erabiltzen dugun hizkuntza. Lan elebidunetan, dokumentaletan batez ere, jatorrizko hizkuntza gidoigilearen arabera izaten da, idazlea euskalduna izanez gero, lehendabiziko testua euskaraz izaten dugu eta gaztelaniazko bertsiarako itzuli eta bikoiztu egiten da. Telesailetan ere bide haxe jarraitzen dugu: jatorrizko bertsiola euskaraz egiten da, eta gaztelaniazkoa horren gainean bikoiztu. Euskararen erabilpenari buruz garrantzitsua da aipatzea, telebista-inguruko mundu honetan lan-harmanetarako hizkuntza euskara bera dela neurri handi batean, bai erredakzio-mailan, zein teknikoen artean, baita zuzendaritza-bilera eta harremanetan ere.

Baleuko

Euskara hutsean % 20 inguru (*Jaiak 97* saio bereziak eta *Euskaraokea*, adibidez); bi hizkuntzetan % 50 (*Jaiak 96*, dokumental-sortak...), erdara hutsean % 10 (erakundeetarako egiten direnak, batik bat) eta ingelesez (% 5-10). Baina egia esan, hizkuntzarena bezeroak aukeratzen duen kontua da.

Guk proiektuak egiteko orduan, kontuan hartzen dugu hizkuntza, produktua zein publikorentzat izan daitekeen, eta abar... Oreka bat mantentzen ahalegintzen gara.

Igeldo

ETBrako programetan euskara da hizkuntza bakarra. Zinea, orokorrean, gazteleraz, frantsesez, ingelesez, portugesez, etab. egiten dut, errealismo-arrazoiak direla-eta ekoizpen elebidun batzuk salbu, *Maité* adibidez (euskaldunak Kuban).

Ikuskin

Gure lan gehiena euskarazkoa izan da. Gutxitan erdaraz eta batzuetan elebidun. Elebidunetan jatorrizko hizkuntzak biak dira. Euskarazkoan, euskara eta erdarazkoan, erdara. Geuk sortutako lanak beti euskarazkoak izan dira eta elebidunak eta erdarazkoak, enkargatuta.

Orio

Elebidunak izaten dira normalean. Oraingoa ere horrelakoa da: *Hitzaro* eta *Lengua Viva*. Enkarguzko lanetan bezeroak agintzen du hizkuntzaren aukeran.

Produktora pribatu asko zarete Euskal Herrian, baina badirudi ETBren joera ekoiztetxe indartsuenekin lan egitea dela. Zer iritzi duzu ETBren lan-sistemari buruz? Zer ondorio ekarri dizkio eta ekarriko dizkio ekoiztetxeen merkatuari?

3Koma93

Beste ekonomia-alor batzuetan gertatzen den antzera, ikus-entzunezko industria honen barruan ere bermoldaketaren bat beharrezkoa dela denok onar genezake. Garrantzitsuena orain, enpresen harteko «selekzioa» nola egin eta nork egin behar duen ikustea da. Zenbait enpresen arteko elkarlana oso onuragarria izan daiteke sektore honetarako, batuz gero bikoiztu egiten delako produkzio-ahalmena eta arriskuak hartzeko gaitasuna. Konpetentzia libredun merkatu batean, merkatuak berak aginduko du zeintzu ekoiztetxe mantenduko diren eta zeintzu desagertu edo eta beren lan-eskaintza aldatu eta beste alor batzuetara jo, edo eta enpresak batu... Gu geu ere egunerogunero gaude beste enpresa batzuekin harremanetan

(nahiz bertako, zein kanpoko) gure lan-metodoak hobetzeko eta gure irudimena aberasteko. Badira bi urte hiru enpresa batu ginela elkarte bat sortuz eta Koma bezala beste produktora batzuekin batera lan egin izan dugu proiektu konkretu bat aurrera eramateko.

Baleuko

ETBren asmoetako bat, berez, produktoren mundua indartzea da, enpresa konpetitiboak sortzea. Enpresa txikien arteko elkarlana bultzatzen ahalegindu da, txikiak batu daitezten. Baina kontua da arlo orekatu bat lortu beharrean, munstro bat (edo bi) sortzen ari direla, eta zaila izango dela enpresa handi eta bakar horrekin konpetitzea. Eta konpetentziarik gabe geratuko den enpresa handi horrentzat ere zaila izango da bizirik irautea, norekin konpetitu ez duenean, konpetentziarik gabe, s o m n e n a eta efikazia galbidean sartzen baitira. ETB enpresa indartsu horren (edo horien) morroi bihurtzeko arriskua ere badago, konpetentziarik gabe baldintzak eta prezioak ezartzeko ahalbidea izan baitezake(te).

Igeldo

Komeni da ekoizpenak konpainia askotan ez sakabanatzea. Enpresa indartsuak nola bultzatu, ez da erraza asmatzen, batez ere —esan dudan bezala—, merkatua merkatu ez denean. Egokiena, enpresa batzuekin bideragarri egingo dituzten eta jarraitzeko aukera emango dieten ekoizpen batzuk kontratatzea da; kontzeptu hau oinarritzkoa da industrian. Baina, gainera, lanbide honetara sartzeko erraztasunak eman behar dira. Ez ditut ETBk kontratatzeko eta lana banatzeko dituen irizpide orokorrak oso ondo ezagutzen. Gure kasuan, *prime time*-ko arrakastarekin bakarrik loturik dagoela besterik ezin dezaket esan.

Ikuskin

Ez dakigu baieztapen honek non kokatzen gaituen. Gurekin lan egin du Euskal Telebistak, sarri gainera. Baina bere jarre-
ra arlo honetan beste kateen antzekoa iruditzen zaigu.

Orio

Neurri batean 3. galderan bertan emana dago gure iritzia. ETBk ekoiztetxe indartsuekin lana egitea normala eta bidezkoa iruditzen zait, baina merkatuaren egoera ezaguturik, ETBk berak bere erabakiekin egin dezake indartsu edo ahul edozein enpresa. Hori ere kontuan hartu beharreko gauza da.

ETBri aurkezteko zuen produktu baten nondik norakoak erabakitzerakoan, zein dira irizpideak? Zer neurritaraino hartzen dira kontuan audientziaren legeak, zein neurrietan telebista publikoaren helburu kulturalak?

3Koma93

Irizpideak ezberdinak izaten dira produktuz produktu. Kasu batzuetan ETBk berak eskatzen digu holako edo halako proiektu bat, parrilako gune konkretu bat betetzeko. Kasuotan eskatutakoari egokituriko saioa gertatzen dugu. Beste batzuetan ordea guk asmatutako eta guri heltzen zaigun proiektu bat interesgarria iruditzen bazaigu eta ETBren programazio barruan koka daitekeela ikusiz gero, bertara joan eta aurkeztu egiten dugu.

Audientziaren neurria gero eta garrantzitsuagoa da telebista guztietan. Egun telebista guztiek —ETB barne— jartzen dute lortu beharreko audientzia-kopurua, eta ez baduzu baldintza hori betetzen kontratua bertan bukatzen da. Telebista pribatuak iragarkien dirutik bizi dira eta arau derrigorrezkoa dute merkatuan bere burua mantentzeko, eta nahiz eta Publiko diren ere diru-iturri honetatik dependentzia txikiagoa izan, telebista publikoaren kopuru minimoa behar dute inzidentzia izateko. Egiten den lana norbaitek ikusi behar du, bestela ez du zentzurik ez lan egiteak berak, ez eta produktu hori emititzeak. Dena den, ezberdindu egin beharko litzateke telebista publiko eta pribatuaren artean, batzuk eta besteek eska dezaketen gutxienezko audientzia-neurria programa batzuetan ezin daiteke berbera izan. Audientzia txikiagoa izanik ere, telebista publiko batek nahi eta nahi ez, izan behar ditu programa batzuk, kultura-arloan esate baterako, egin beharreko eskaintza delako.

Baleuko

ETBk une honetan darabiltzan irizpide nagusiak hitz batekin laburbildu daitezke: Audientzia. Egia da zerbitzu publiko eskaintzen ere saiatzen direla eta zenbait saio audientzien legeetatik kanpo egiten direla (esate baterako: *Ikusgela*, *Hitza-ro...*) baina nahiko urriak dira, besteen aldean, eta bistakoa da saio gehienak audientziaren menpe egiten direla. Audientziak agintzen dute programa batekin aurrera jarraitu ala ez.

Igeldo

ETBn *sit-com*-a lantzen dugu gehienbat. Ikuslego ugaria edukitzea oinarritzko irizpidea da kontratatzeko orduan. Programatzen gaituzten orduan, ez dira irizpide kulturalak, hain zuzen ere, agintzen dutenak. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi gure programak helburu kulturalak betetzen ez dituenik. Baina, gure iritziz, ikusle-kopurua da garrantzitsuena telebista publiko nahiz pribatuetan.

Ikuskin

Orain arte, gure irizpidea beti gure gustoko programak egitea izan da. Ez ahaztu gure jatorria: geure programak ekoizteko sortu ginen. Urteen poderioz *gure* hori zabaldu egin da eta gurekin gidoigile, aktore, etab. ibilitako zenbaitek programa-egitasmo berriak ekartzen dizkigute. Audientzia eta helburu kulturalen artean, biak ondo ulertzen badira, ez dago kontradikziorik. Ez da ahaztu behar euskaraz txiste-programa egitea ere (*Txiskola* adibidez) lan kulturala dela. Askok uste dutena baino kulturalagoa. Bi aldeetatik, sortzeko behar denaren aldetik eta euskal kulturaren eraginaren aldetik ere.

Orio

Enpresa bakoitzak baditu bere joerak. Gure kasuan, dokumental eta fikzioa da gehien maite eta ezagutzen dugun alorra. Neurri berean kultur programak ere.

Audientziaren legeei eta helburu kulturei buruzko galderari dagokionez, zergatik ez diozue galdetzen ETBri berari? Produktoreak ez dugu iritzi-kontuetan ezer esatekorik. Hori bes-

te batzuen kontua da. Gu eskatzen digutena fabrikatzen saiatzen gara.

Zer iritzi duzu ETBren programazio-ereduari buruz?

3Koma93

Euskal Telebistaren programazio-ereduaren nondik norakoak, bertako zuzendaritzaren ardura dira.

Gure esku dagoena, Euskal Telebistaren iritzi eta irizpideei egokitzuz proiektuak aurkeztea da. Guk zerbitzua eman behar dugu, ez da gure erantzukizuna eredu eman edo antolatzea.

Baleuko

ETB 1 kateari dagokionez, euskarazko telebista komertzialik ez dagoenez, hutsune hori betetzen ahalegindu behar du, euskaldunen gehiengoak ikusteko moduko saioak eskainiz. Hau da, ETB 1 telebista *generalista* dugu. Zenbat eta herritar gehiagorengana iritsi, hobeto. Eta halaxe behar du, ez bailitzateke zentzuzkoa izango euskaraz ikusle «selektuendako» saioak egitea.

ETB 2 katearen kasuan, aitzitik, kontrako iritzia dugu. Erdaraz, badira katea komertzialak, beraz, lekuz kanpo daude, gure ustez, Jose Luis Moreno eta gisako programak —beste edozein telebistak eskaintzen dituenak— erdarazko TB publiko batean. ETB 2 kateak bere bokazio publikoa landu beharko luke, eta beste kateek eskaini ezin edo eskaini nahi ez dutena eskaini. Gainera, erdarazko kateak euskarazko katera hurbiltzeko zubia izan beharko luke, ETB 1en gerizpean jardun beharko luke eta ez alderantziz, orain bezala.

Igeldo

Telebista bat programatzea oso gauza zaila da. Ondo programatzea esan nahi dut. Guri asko kostatzen zaigu programa bakarra egitea. Edonola ere, ikusle goiarekiko morrontzaren ondorioz, programa onak beste programa trauskilagoekin nahasten dira. Hartaz, gauza batzuk izugarri gustatzen zaizkit eta

beste batzuk, batere ez. Ez dut balorazio orokorrik. Eta ez zait bururatzen nola egin.

Ikuskin

Ez gara gu honetaz hitz egiteko egokienak. ETB 1eko jarraitzaileak gara batez ere, eta, beste kateekin alderatuz gero, ez diogu akats handirik aurkitzen. Aldeko asko bai, ordea. Euskaraz dela, esaterako.

Orio

Produktore bezala nahiago nuke dokumental eta fikziozko produktu gehiago baleude. Agian kirolari toki piska bat kendu.

Zuek ekoiztutako produktuak esportatzen ahalegintzeko moduan zaudete? Euskaraz ekoiztutako produktuek badute kanpoan merkaturatzeko aukerarik?

3Koma93

Egun, bi arazo nagusi daude arlo honetan. Batetik egindako produkzioen eskubideak ez dira gehienetan gureak izaten eta ez da gure esku egoten produktu horiek mugitzea. Bestetik mundu zabalean bertako ekoizketak saltzea ez da zailagoa hizkuntzaren arazoagatik (bikoizketa hizkuntza guztietara egin dezakegu eta gazteleraz daudenak ere ingelesez eskatzen dizkigute saltzerako orduan). Zailena zera da: produktu interesgarririk nahikoa izatea batera, itxurazko katalogo garrantzitsu bat lortzeko eta gero distribuzio-zirkuitoetan sartzeko. Lan gogorra eta kostu handikoa, duda barik. Lehen azaldu bezala, distribuzioa ere lantzen dugu 3Koma93an eta badakigu zaila izanik ere egiteke dagoen lana dela.

Baleuko

Euskaraz ekoiztutako produktu batzuk esportatu daitezke —dokumentalak esate baterako— baldin eta gaia eta trataera unibertsalak badira. *Megasonikoak* filmea, esate baterako, mundu osoan zabaltzeko asmoa dugu. Ahalegina behintzat egingo dugu.

Igeldo

Gure ekoizpenaren zatirik handiena nazioarteko koproduktzioek osatzen dute. ETBrako ekoizpenak oso ikuskera lokalista izaten dute.

Ikuskin

Gure produktuak kanpoan sal litezke eta behin baino gehiagotan izan ditugu horretarako eskaintzak. Baina kanpoko merkatua ere, arlo honetan, ez da uste den bezain samurra enpresa txiki eta bakarrentzat.

Euskaraz sortutako programak oso originalak gertatzen zaizkie kanpokoei eta harrিতa geratzen dira ikustean. Batzuetan ere gure programak edo atalak kopiatu dizkigute Estatu espainoleko kateetan eta nahikoa gaizki kopiatu gainera.

Orio

Oraingoz ez, baina bidean gaude, ahaleginak egiten behintzat. Euskal Herriko beste enpresa ezagunekin eta Errusiako hirugarren batekin, hirurak batera oso proiektu handi bat lantzen ari gara. Justu, nazioarteko merkatuetan saltzeko moduko produktu bat nahi dugu.

Produktuak, txarrak badira, ez dute kanpoan merkaturatzeko aukerarik. Hizkuntza ez da arazo produktua ona bada. Onak zera esan nahi du, ondo egina (profesionaltasuna) eta erakargarria (edukiz jendeari interesatzen zaiona). Hala ere, bistan da, kanpoko merkatuetan nor izatekotan bagabiltza, ingeles bertsioa ere erakutsi behar dela.

Etorkizunean zuen sektoreak zer norabide har dezake? Zein bide uste duzu hartu beharko duzuela euskaraz lan egiten duzuen produktorek?

3Koma93

Lehenik eta behin, merkatuan gauden enpresak geure artean antolatu beharra dugu. Bide hori hasia dago, enpresa-elkarte ezberdinak bat egiteko bidea hartu baitute. Garrantzitsua

da zenbait interlokutore ren aurrean industria horrek ahots bateratu bat izatea eta ahalegin horretan gabiltza.

Bestalde, euskaraz lan egiteko aukera bistan dagoena besterik ez da, eta Euskal Telebistaz aparte, zaila da beste merkatu-rik aurkitzea, telebista lokalek ez baitute nahikoa dirurik ekoizketa garrantzitsuak egiteko. Beraz nahitanahiez beste merkatu batzuetara jo beharko dugu, euskaraz ere lan egiten jarraitu nahi badugu, enpresa bezala geure burua mantentzeko eta Euskal Herriko ikus-entzunezko industria bertan mantendu dadin, beste nonbait eta beste norbaitentzako lan egin beharko dugu, eta noski ez da beti euskaraz izango.

Baleuko

Gure etorkizuna ETBri lotuta dago. Itxura batean, merkatu ekonomiaren menpe dihardugu, baina benetan monopolio antzeko batentzat lan egiten dugu eta horrek arrisku handia dakar, nekez sortu baitaiteke, baldintza horietan, enpresa-sare sendo eta eraginkorra.

Dena dela, guretzat «Etorkizuna» aipatu eta «auskalo!» esan, antzerakoa da. Batetik, bide berriak zabalduko dira, telebista zabaltzeko eta emititzeko bide berriak, eta hori onuragarria da. Bestetik, gero eta zailagoa izango da hain ikuslego murrizta duen telebista batean lan egitea, dirulaguntzak ere gero eta txikiagoak direlako. Ez gara ez baikorrak ez ezkorrak, besterik gabe aldakorrak izaten jakin behar. Garai berrietara egokitzen asmatuko ezkerro, zerbait egingo dugu. Orain arte bezala.

Igeldo

Euskara eta ikusle-kopuru handia zailak dira uztartzen. Gainera, euskarazko ekoizpenak oso merkeak izaten dira, merkatua oso txikia delako eta ez direlako enpresentzat pizgarri. Ez dakit zer bide hartu beharko litzatekeen, gaur egungo jorak finkatuz gero, euskaraz lan egiten jarraitu ahal izateko. Adibide bat jarriko dut. Duela bost urte *Bi eta Bat*-en ordu-erdi-ko atal bat egiteko genuen aurrekontu bera dugu gaur egun *Jaun eta Jabe*-ren ordubeteko atal bat denbora berdinean egiteko. Haria gehiegi teinkatuz gero, eten egiten da.

Ikuskin

Lan artistikoa egiten dugunok —eta horixe da gure esparrua, batez ere— bide beretik jarraitu beharko dugu. Zein bide hartu beharko dugun euskaraz ari garenok? Lehengoari eutsi.

Sektorari dagokionez, orain ari da ekoiztetxeen artean Lan-kidetzak Bilkura osatzeko ahaleginak egiten. Bide horretatik itxaropen handia daukagu etorkizunari begira.

Orio

Aurreko erantzunetan aski adierazita dago galdera honen erantzuna.

BA OTE DAGO EUSKAL INDUSTRIA AUDIOBISUALIK?

PELLO SARASOLA

Audiobisualaren sektorea bere osotasunean aztertzeko, guttienez bi ikuspuntu ezberdin hartu behar dira kontuan. Batetik, zenbateraino den baliagarria euskaldunon elementu bereziak isladatzeko eta sustatzeko, eta batez ere euskararen normalkuntza eta bilakaerarako. Esan nahi da, zentzurik zabalenean hartuta, euskal kulturaren sostengu izateko.

Bestetik, honako alderdi hau: industria dela. Sektoreak nekez bazter ditzake gure gizartean hain hedaturik dauden zenbait kontzeptu: baliabideak, emaitzak, epeak, errentagarritasuna, balantzeak eta abar. Gure artean ere gero eta gehiago aplikatuko dira baremo hauek. Hemendik kanpo urte asko

daramate koste eta irabazien analisia audiobisualaren arloan aplikatuz.

Hori horrela, artikulu honen helburu nagusia titulu gisan egin dudan galderari erantzutea izango da: ba ote dago euskal audiobisualaren industriaz hitz egiterik?

Gure gizartean egon dauden komunikabideen eboluzioa kontuan izanik, eta konkurrentzia erabat gogorra dela ikusirik, edo merkatuak ezarritako baldintzeratara makurtzen zara edota bestela, hutsean geratuko dira zure asmorik zintzoenak.

Telebista-kateen arteko lehia gaur egun baino ahulagoa zenean eta baliabide ugariagoz jarduteko aukera izan genuenean, «arrisku» gehiago hartzeko eta ausardia gehiagoz jokatzeko moduan ginen. Nahiz eta espero genituen emaitzak epe laburrean ez jaso, ez genuen fruituak egun batetik bestera jasotzeko behar larririk.

Gaur egun, ordea, oso besterik da, berehala «jokoz kanpo» geratzeko arriskua daukagu eta. Ikusleak gero eta aukera gehiago dauka eta zure eskaintza interesgarri gertatzen ez bazaio, berehala ahaztuko da zutaz. Eta eskuetan izan dituzun baliabideen emaitza hutsaren parean gera daiteke. Telebista digitalaren atarian gauden une honetan, diru-kopuru handiak nekez eskuratu ahal izango dituzte komunikabide publikoek baldin beren oihartzuna apurra bada gizartean. Arazo hau areagotu egin da eta egingo da ikusleari helaraziko zaizkion aukerak kontuan izanik. Hitz gutxitan esateko, ikusleak bere telebista atseginez ordainduko du, baldin eta erabiltzen badu. Ondorioz, egoera berriak gero eta gehiago begiratuko dio kostu-emaitza ekuazioari. Noski, ez da apustuitsuak egiteko garairik a proposena, ez eta etekin garbia ekarriko ez duten inbertsioak egiteko ordua ere.

Lehenik eta behin, arestian egindako galderari erantzun egokia eman ahal izateko, baldintza orokor zenbait ezarri beharoko genuke.

- Audiobisualaren sektorea berria da Euskal Herrian. Duela 15 urte plazaratu zen, ETBren jaiotzarekin. Bistan da, ETB

sortu aurretik ere ekimen zenbait egon bazegoela eta ahalegin interesgarririk eman zela. Dena den, noizbehinkako saiakerak baino ez ziren eta sektorea ren sendotzea ekarri ez zutenak. Honekin zera esan nahi dut: nahiz eta eskarmenturik falta ez, etorkizunaren nondik norakoak aurrez ikusteko gai ez gara. Audiobisualaren bilakaera nondik nora joango den dakiela esaten duena arinkeriaz ari da edota harropuzkeriaz. Egia esan, abiatu baino ez gara egin.

- Zenbaitetan, EITB eta euskal audiobisualaren sektorea nahastu egiten ditugula jo dezake norbaitek. Ez da hori gure asmoa, inondik ere. Gertatzen dena zera da: alde batetik, idazten ari naizen une honetan ETBren ikuspuntutik egiten dudala eta, bestetik, oraindik ere euskal audiobisualaren ekimena ETBren inguruan erne ohi dela. % 50 baino gehiago esango nuke. Aurrerago zehaztuko dudan bezala, euskal sektore pribatuak ETBren menean jarduteari uzten dion heinean lortuko du bere heldutasuna. Horrela bakarrik hitz egin ahal izango genuke euskal audiobisualaren industriaz egiazki.

SEKTORE AUDIOBISUALAREN BILAKAERA

Oraindainokoari jarraituz, gaur egun ETBren eboluzioa (euskal audiobisualaren ekoizpena ETBra bakarrik ez dela mugatzen esan dugu) sektorearen adierazle egokia da eta exponenterik argiena.

90eko hamarraldiaren hasierari buruzko datuak errepertatuz (hemerrotekak aztertzea baliagarria litzateke), telebista pribatua plazaratu zen garaikoak alegia, aditu zenbait, ingurune askoz konpetitiboago baten atarian, ETBren etorkizun beltzaz jardun zen. Horietako batzuk ETB 1en bilakaera testimoniala baino ez zela izango esatera ausartu ziren eta beste batzuek ETB 2ren heriotza aldarrikatu ziguten, hots, epe ertainera ikuslerik gabe geratzeko arriskua zuela eta aurrera egiteko zentzua galduko zuela, gaztelaniaz zetorren uholde berriaren indarra ikusirik.

Hona hemen zer gertatu den ETBrekin 90eko hamarraldi korapilotsu honetan:

Urteko emisio-orduak

	ETB 1	ETB 2	Guztira
1990	3.880	3.527	7.407
1993	4.852	4.768	9.620
1996	6.800	6.420	13.220

Lehen ahalegin modura, 90eko hamarraldian sortu zitzaion erronkari bere eskaintza ugalduz erantzun zion ETBk; orduarte kontsumo gehieneko orduetan bakarrik emititzen zuen eta ahal zen ordurik gehienetara, goizaldeko txikietara ezik, zabaldu zituen bere programak. Sei urte geroago, emisio-denbora % 75 gehituz, urtero ia 7.000 ordu euskaraz eskaintzera pasatu da ETB.

Emisio-orduak 1996an generoz genero (ehunekotan)

	ETB 1	ETB 2
<i>Albistegiak</i>	16,1	23,1
<i>Dibulгатiboak</i>	16,0	23,1
<i>Kirol-erretransmisioak</i>	20,3	—
<i>Entretenigarriak</i>	7,4	11,4
<i>Fikzioa</i>	25,4	43,1
<i>Gazteentzakoa</i>	14,9	—

Aurreko grafikoak erakusten duenez, oro har ETBren eskaintzaren ia % 40 gizarte-programazioari zuzendua dago, albiste eta dibulgazioari ordu gehien eskaintzen dion telebista izanez Estatuan.

Emisio-orduen gehikuntza garrantzitsua izan arren, aintzartat hartzekoa da oso barne-produkzioaren aldeko erabaki sendoa: ETBk emititzen duen programazioaren % 70 Euskal Herrian egina da. Europan ez dago maila hori aurkez dezakeen telebista asko. Urtez urte, Euskal Herriko profesionalen balantzeak honako hau erakusten du:

Barne-ekoizpeneko emisio-orduak 1996an

<i>Albistegiak</i>	3.900
<i>Dibulгатiboak</i>	2.106
<i>Entretenigarriak</i>	1.090
<i>Kirol-erretransmisioak</i>	1.000
<i>Fikzioa</i>	575
<i>Gazteentzakoa</i>	517
<i>Beste batzuk</i>	188

Bistakoa denez, egungo telebista-genero guztiak biltzen dituen ekoizpen oparo eta aberatsa.

ETBren entzulegoa (*share*, telebista kontsumoaren ehuneko)

	Biztanlego osoa		Biztanlego elebiduna	
	<i>batezbeste</i>	<i>prime-time</i>	<i>batezbeste</i>	<i>prime-time</i>
1991	14,2	18,8	18,6	24,3
1993	16,2	19,8	22,7	29,8
1996	22,9	27,4	33,7	42,0

Iturria: Sofres A.M. EAE 1.996an.

ETBk Euskadiko entzulego osoaren % 23 bereganatzen du. Portzentaia berbera % 34ra igotzen da euskaldunen artean. Azkenaldian Estatuan entzulego gehikuntza handiena izan duen telebista da ETB.

90eko hamarraldiaren hasieran % 10aren inguruan zebilen ETB eta ez da ahaztu behar orduan TVEren bi kateekin baino ez zuela egunero lehiatzen. 1997ko lehen hilabeteetan telebista-kontsumoaren laurdena bereganatzera pasatu da (joan den otsailean bere markarik hoberena lortuz: % 24,8).

1996an ETB biztanlego elebidunaren artean gehien ikusitako telebista izan zen, lehen aldiz TVE gaindituz. ETB 1ek, % 20 inguruko audientzia, 90eko datuekin alderatuz, bikoiztu egin du bere ikuslegoa, zenbait ordutan katearik ikusiena izanik eta saiorik arrakastatsuenak eskainiz (kirolaz gainera, *Goenkale*, *Jaun eta Jabe*, *Txiskola...*).

Hori horrela, zenbaitek pentsa dezake aipatu eboluzio honen alboan baliabideen gehikuntza nabarmena egon daitekeela. Ez da horrelakorik eman.

Finantziazio publikoa (milioi pezetatan)

	Subentzioa	KPIren arabera
1991	7.305	7.305
1993	7.934	8.521
1996	8.986	9.242
1997	8.681	9.539

Taula honetan ikus daitekeenez, ETBren aurrekontua 1997an, KPIren egoera kontuan izanik, 1990ean baino 860 miloi pezeta gutxiago da. Beste modu batera esanda, ETB Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Orokorren % 1,9 jasotzetik % 1,2ra pasatu da. Hau da, Euskal Telebista 1990az geroztik biztanlegoari % 10 merkatu zaio. Bestalde, 90eko hamarraldiaren hasieraren aldean denbora-kopuru bikoitza egiten dute telebista-aurrean.

Datu hauek, besteak beste, zera ematen digute aditzera:

- ETB, batezbeste, dagokion audientziaren proportzio-zatia in jabe egin dela. Eskaintza orokorra (ETB, TVE, Tele5 eta A3) laurdena errepresentzen du eta eskariaren proportzio berbera jasotzen du.

- Datu honek beste alderdi interesgarri bat ere badu: emisio-ordu bakoitzaren kostua (milioi bat pezeta eskas) euskaldunek ikusten duten beste kateetako baino 10/20 bider baxuagoa da.

- Programarik berezi eta garestienek ETBn inoiz ez dute orduko bost milioiren marra gainditzen. Konpetentzian ez dira gutxi 50 milioi orduko behar dituztenak.

- EAEko etxebizitza bakoitzak hilabetero batezbeste mila pezeta inguru ordaintzen du ETBren bi kateak ikusteagatik (gogoan izan kodifikatuak 3.500 pezeta balio duela). Gainera, zergen bitartezko ordainketa denez, batzuek gehiago ordaintzen dute baina beste zenbaitek, gutxiago. Eta batzuk, hutsaren

truk. Esan gabe doa Nafarroan eta Iparraldean dohainik ikusten dutela ETB.

- Euskal biztanle bakoitzak hamar pezeta ordaintzen du ETBn ikusten duen ordubete bakoitza (euskaldunak, batezbeste, egunero hiru ordu laurdenez ikusten du ETB). *Goenkale*-k bost pezeta, *Gaur egun*-ek bost pezeta, Athletic-Reala derbya hogeitaz hamar pezeta...

Ez dut dudarik egiten, batek baino gehiagok datu hauek irakurri orduko pentsatuko duela ETBk bere gizarte-errentagarritasuna neurtzerakoan, audientzia baremo bakartzat eta irizpide soiltzat hartzen duela.

Erantzuna, noski, ezezkoa da. ETBren helburuak honako hauek dira:

- Euskararen normalkuntza.
- Euskaldun guztientzako telebista egitea, gehiengoaren eskakabideei erantzunez eta baita gutxiengoak egin ditzakeenei leihoak irekiz.
- Euskal audiobisualaren industria bultzatzea.

Bizpahiru adibide besterik ez programazioa erabakitzean audientzia helburu eta irizpide bakartzat ez dugula erakusteko:

- Adibide gisa, ETBk bere bigarren katearen bitartez (askok eskatzen duen bezala) barne-produkzioko fikzio-serieak (ETB 1ean bakarrik programatzen dira) eta futbol-partiduak emitituko balitu, zalantzarik ez, ETB 2 izango litzateke Euskadiko lehen katea.

- Estatuan eta Europan albiste- eta dibulgazio-ordu kopururik gehien emititzen duen kateen artean dago ETB. Hau ez da audientzia lortzearen harturiko erabakia.

- ETBk enpresa pribatuekin urtero kontratatu ohi dituen 5.000 milioietatik, % 90 baino gehiago euskal enpresetara bidertzen du. Noski, politika honekin kanpoko ekoizleek ekar ditzaketen ideia arrakastatsuak baztertuz, erakutsi beharreko «Made in Euskadi» sormenaren aldeko apustu nabarmena egiten du.

- Nahiz eta kanpoan erositako ekoizpenek ETB 1ean audientzia apalagoa izan, % 15 saio hauekin osatuz jarraitzen dugu. Arrazoi nagusia bikoizketa-jarduerari eustea da, epe laburre-ra garestia eta oso errentagarria ez gertatu arren, etorkizunari begira euskarazko telebista unibertsala eta konpetigarria lortzeko arlo hau erabakiorra izango da eta. Quebec-eko telebista publikoak bere ikuslegoa filmeak frantsesez ikusten ohi-tzeko berrogei urte behar izan zituen. Perspektiba honetan ETBren hamabost urte gutxi dira gure entzulegoa ere filmeak ikustera ohitzeko. Beraz, epe luzarako apustuak ere egiten ari gara ETBn. Ez, gaur egun audientzia ez da irizpide bakarra.

Hizpide asko eman eta emango duena da hau, baina orain-goz aski da. Halaz guztiz, argi eta garbi gera bedi audientzia ez dela helburu bakarra, ETBren gizarte-errentagarritasuna neurtzeko oinarrizko adierazlea baizik. Ikusleak eta bere eskakizunaz ahaztuz gero, nondik jo?

Oraindainokoak gogoan ditugula, jo dezagun saiakera honen muinera: nola eman daiteke gero eta baliabide gutxiago duen ETBk azken urteotako bilakaera izatea? Hori argituko duen hainbat faktore dago:

- Bistakoa denez, gaur egungo ETB orain hamar urtekoa baino hobea da. Besterik ezean, eskarmentu hutsarengatik ere, ez zitekeen beste modu batean izan.

- Barne-produkzioaren alde etengabeko apustua eginez, gure artean ETBk bakarrik duen kapital bereziari eutsiz, beste katea handiekin neurtzeko moduan izan da. Kapital hori «gertutasuna» da. Albistegiak, barne-produkzioko fikzio-serieak, bertoko jendez beteriko platoetan egindako programak, gero eta sarriago plazaratzeak, horrek guztiak ETBren eskaintza bere ikusleentzat errentagarri eta konpetitibo egitera eraman gaitu. Ez da aski bitarteko asko erabiltzea, baldin eta produktua hotz eta urruneko geratzen bada.

- Show eta purpurinazko telebistaren aurrean, ETBk bere hastapenetatik ikasi zuen (zer erremedio!) telebista «merkea» egiten. Kasu askotan programa batzuen arrakasta bere aurrekontuari lotua egon arren, kreatibitatea eta beste balio batzuk ga-

rrantzitsuagoak dira. Eta estuasunean egonik, prestutasunez jokatu beharra dago. Horrez gainera, beste konstatazio hau ere ez da ahaztu behar: salbuespenak salbu, aurrekontu oparoz eginiko programak asko murriztu dira azken urteotan. Gero eta gehiago ikusi dira «formato txikiko» programak.

- Dena den, barne-ekoizpenaren bitartez «merke» eredia lantzeaz gainera, ETBk FORTA sarea izan du bidelagun, merkatura agertzen ziren produktu zenbait bereganatzeko, eta hori bere biztanlegoari zegokion neurrian ordainduz. Bide honetaz baliatuz bakarrik izan ditugu ETBn eskaini ahal izan ditugun futbol-partiduak eta filmeak. Seguruenera, euskaldunok ez gara behar adina FORTAren garrantziaz jabetu, eta are gutxiago bere esanahirik sakonenaz, federazio-esperientzia baten hazia izan baita, kide bakoitzak nahi zuen operazioetan parte hartuz, telebista independenteen izaera gordez eta goitik ezarritako aginduetatik ihes eginez. Nahiz eta maila apalean izan eta telebista-eremuan soilik, bide interesgarria urratu da.

Azkenerako utzi dugu faktorerik garrantzitsuena eta artikulu honi begira interes gehien duena. ETBk hartutako erabakien artean ondoriorik sakonenak izan dituena hau da: kreatibitatea enpresa independenteen eskuetan uztea. Estatuan ari diren telebisten artean ETB bakarra da Programetako Departamendu berezirik gabekoa. Edozer egin nahi dela ere, ekoizle pribatu batengana jotzen da, kasuan kasu, eskaintzarik kreatiboena eta konpetigarriena egin dezaketengana. Hori da zerbait izan nahi duenarentzat bide bakarra gure artean.

Gure ustez, ekoizpen pribatuaren kolaboraziorik gabe, ETB ez zen aitzindaria izango lehen *sitcoma* egiten (*Bi eta bat*). Gero beste askok landu duen esparrua izan da. Gauza berbera esan dezakegu *Goenkale* moduko teleserie bati buruz ere. Eta zer eranda aski aberatsa da: *Funtzioa*, *Baietz barrez lehertu*, *Hor dago koska* eta abar. Azken boladan berriz beste hauek: *Txis-kola*, *Jaun eta Jabe*, *Aire-Aire* edota *Jaiak'96*. Ekoiztetze independenteekin elkaturik jarduteak ekarri du ondorio hau. Teknikoki guztiz bideraezina eta erabat garestia gertatuko zen proiektu hauen baitan dagoen kreatibitatea ETBko azpiegituraren bitartez bideratzea. TVEren eredura ez makurtzea eta bi-

de berriak urratu nahi izate hau ETBren funtzionamenduan ondoriorik erabakiorrenak izan dituen gertatu da. Beste telebista batzuetan orain hasiko dira eredu zaharren gaitza sendatu nahian.

Beste hitz batzuetan esanda, ETBren bilakaera emankorra izan bada, neurri batean ekoiztetxe pribatuen zerbitzuak hobetuz joan direlako izan da. Azken urteotan ETBren arrakastaz hitz egiterakoan ez da ahaztu behar, zuzen-zuzenean nahiz zeharka, mila profesional baino gehiago ari direla egunero ekoiztetzeko independente hauetan.

Enkarguzko lanean ikasi dute, ETBk aldioro planteiatzen dituen erronkei erantzunez. Sormen librean baino nekosogoa da enkarguzkoan lan egitea, noski.

Enpresa eta «industriaren» pentsakera garatu dute, telebista «urrezko meatzaren» mitotik ihes eginez. Zenbaitek uste duen eta beste lekuetan gertatzen ez den bezala, ETBn inor ez da aberasten, orduak besterik ez dira fakturatzen. Arrakasta lortzen duenari lan gehiago kontratatzen zaio; proiektu berrietan etengabe inbertituz lortzen dira industri irabaziak.

Konpetentzia geroz eta profesionaltasun gehiagoz asumitzen dute produktora pribatuek, eta formatoen nahiz generoen espezializatzea.

Ohartu dira telebista-arloan ideiarik biribilenean baino garrantzi handiago dutela pertsonen. Jakina da ideiarik ederrenak pantailaratuko duen talde egokia eta trebea eskatzen duela. Sarritan telebista-komunikazio egokia lortuko duten pertsonen bila ibiltzen gara lehenik, eta ondoren moldatzen ideiak eta formatoak.

ZINEZ, INDUSTRIAZ HITZ EGIN AL DEZAKEGU?

Orain arte aurreratu dugunak neurri batean erantzuten dio galdera honi, baina argibide gehiago emateko moduan gaude. Alde batetik orain arteko jarduerak eskenategi baikorra agertu digu, hau da, maila bateko azpiegitura eskaintzen due-

na, agente publiko nahiz pribatuaren arteko elkarlanak osotua, eta industriaren beste edozein alderdi bezala egituratua. Ondorio honen oinarrian elementu hauek leudeke:

- Orain arte ekoiztu den ordu-kopuruak industri bolumenaz hitz egiteko aukera ematen du.
- Produktu konpetigarria aurkezten digu, gure inguruan ezagutzen dugun kalitate-prezio erlazioa hobea.
- Erlazio hau azken urteotan gero eta konpetigarriago bilakatu da.
- Produktu audiobisual honek ikuslegoaren oniritzia jaso du. Nahiz eta produktu garestiagokoekin konpetitu.
- Ez da ez ekoizpen-teknikarik ez eta eredurik ere kanpotik inportatzen. Euskal sektoreak bere programa-eredu propioak sortzen ditu eta, areago, gure eredu eta teknikak inoiz kanpora eraman dituzte.
- Sektorea bezero eta kide nagusi baten eskutik doa: ETB. Euskal Telebistak bertoko enpresen produktuak behar ditu, publikoak horixe eskatzen du eta.

Nolanahi, hau guztia kontuan hartzekoa izan arren, nekez hitz egin daiteke industriaz sektoreak bezero nagusi bakarra baldin bada eta exportazio portzentaia murrizta bada. Egin diren ikerketek argi eta garbi erakusten dute alderdi kezkaigarri hau.

Gaur egun ekoizten den produktua estrategia 80eko hamarraldian ezarri baldin bazen, 2000. urtetik aurrera egin behar dugunak kezkatu behar gaitu orain. Ikusi da bide emankorra izan dela orain artekoa. Dugun eskamentuarekin erantzun behar diogu esportatzeko gai izateari.

Audiobisualaren industriaz zinez hitz egiteko, esportatzeko gaitasuna eta sektorearen Barne Produktu Gordinaren gehikuntza (ETBren inbertsio mugatuen gainetik) hobetu beharreko bi puntu dira, heldutasunaren frogarik esanguratsuenak alegia.

Seguruenik ETBk bere gastu-ahalmena ez du nabarmen igotzerik ondoko urteetan. Ezingo du, inolaz ere, merkatuak eskatutako industria oso baten zama bere gain hartu.

ETBk, orain arte bezala, giza taldeak eta enpresari-egiturak sortu eta garatzeko oinarriak ezartzen jarraituko du. Hortik aurrera, enpresa pribatuek kanpoko diru-baliabideak lortzeko kapazitatea erakutsi beharko dute honetarako hainbat bide jarraituz:

- ETBk baino gastu-ahalmen handiagoko telebistetarako enkarguzko ekoizpenak eginez.
- Koprodukzioak edota beste herrialdetako ekoizpen-enpre-sekin lanean.

ETORKIZUNARI BEGIRA

Besteak beste, benetako industria bat izateko euskal audio-bisualaren sektoreak gainditu beharreko mugak dira:

- Enpresa-atomizazioa. Euskal audiobisualaren sektorea murrizta izan arren, oraindik ere enpresa gehiegi dago gure ustez. Atzerrian saldu ahal izateko proiektuen eboluzioan eta ondorengo merkataritza-gestioan inbertitu beharra dago. Inbertsio hau bideratu ahal izateko, diru sarrera sendoak behar dira eta, ETBren aurrekontuak kontuan izanik, lan-ordu asko fakturatzea baino beste biderik ez dago. Horretarako, enpresa-kopurua murriztu eta giza taldeen dimentsioak eta berauen diru-iturriak zabaldu behar dira.

- Atzerriko salmenta askoz ere errazagoa litzateke euskal produkzio guztia bilduko luketen lauzpabost enpresa indartsu badaude.

- Euskal enpresek elkartu beharra dute, oraintsu gertatu izan dena gerora eman ez dadin: proiektu berri bakoitzak bere enpresa sortarazten zuela, alegia. Azken bizpahiru urteotan aurrerapauso nabarmenak eman dira, baina oraindik ere euskaldunok zinema eta telebistari eskaini dizkiogun izar ugari kanpoko enpresetan ari dira lanean, salbuespen urri batzuk salbu.

- ETBren diru-iturrien murrizketa geldiarazi beharra. Egia da euskal audiobisualaren arloari eskainitako dirulaguntza

publikoei etekin egokia atera zaiela. Dena den ETBren diru-sarrerak behera baldin badatoz, enpresa pribatuek ere ezin izango dute proiektu konpetigarririk egin. Azken urteotan lortutako arrakastak gure ekoiztetxe pribatu zenbait kanpoan ezagutzera eraman du. Azkenaldian landatutako haziak fruiturik eman behar badigu, ondoko urteotan lortutako mailari eutsi behar diogu eta ahal bada, hobetu.

Zaila izango zaio ETBri bere diru-sarrerara propioak nabarmen igotzea (publizitate-salmentak urtero-urtero audientziarekin batera goruntz egin badute ere). Hau kontuan izanik, gizartean eta erakunde-mailan honako eztabaida hau irekitzea egokia dirudi, etorkizunean ETBrentzat bideratu beharreko diru publiko-kopuruaren joera zein izango den aztertzeko. Neurri hau lagungarria ezezik garrantzitsua ere izango litzateke oso, ez bakarrik gure, euskaldunon, gizarte-proiektuaren bilakaerarako, baita datorkeen industriaren eragile eta motor bezala, beharrezko dituen aukerak eskaini ahal izateko.

- Gaitasun tekniko eta artistikoaren hobekuntza. Euskal ekoiztetxeetako profesionalek azken urteotan aurrerapauso nabarmenak eman baldin badituzte ere, gaitasun artistikoan eta prestakuntzan berriak eman beharrean daude, sektore gaztea den heinean. Arlo bakar batera mugatuz eta adibide gisa, gidoilaritza aipatuko nuke. Sarritan parekatzen da idazle aberats bat telebistarako gidoilari batekin. Idazle on bat erraz galdu daiteke orri zuri baten aurrean hiru dimentsiotako istorio bat burutzeko: bideoa, audioa *on/off*-ean eta *soundtrack*-a. Testu on bat ez da aski telebistarako produktu on bat izateko. Audiobisualaren hizkuntzak bere giltzarriak ditu eta hauen eskuratzea eskarmentu profesional zabalak bakarrik ekar dezake.

Hala ere, eta oro har, Euskal Herriak geroz eta tekniko eta artista gehiago exportatzen du. Lehen aurreratu bezala, arazorik larriena enpresa egituratan dago.

TELEBISTA «DIGITALAREN» BIDEAN

Telebistak dinamika bizia darama oso azken urteotan. Pribatua sortu zela ez da preziso urte asko eta dagoeneko eske-

nategi hori aldatzen ikusten ari gara; egoki esaten ez bada ere, «telebista digitalaren» aurrean gaude.

Nahiz eta fidagarritasun apur bateko prebisioak egiteko goiz izan (ez ahaztu orain urtebete guztiok kableaz ari ginela hitz egiten; gaur satelitearen bidezko telebista dugu izarra), argi eta garbi dagoena honakoa da: telebista-panorama punta-puntako gai bihurtu dela azken hilabeteotan eta horren inguruan sortu direla burruka politikorik entzutetsuenak.

Jokoan asko dago eta inortxok ez daki zehaztasunez zer gertatuko ote den. Ikerketa batzuen arabera, hamar urte barru Euskal Herriko etxeen % 60 ordainduzko telebistaren ezein «paketeren» harpidedun izango da, 50-60 telebista-katea jaso ahal izango dutelarik eta hilerio 5.000-6.000 (gaur egungo prezioetan) pezeta ordainduz. Noski, *pay per view* zerbitzua erantzi behar zaio.... Beraz, Euskal Herrian bakarrik 30 mila miloiko negozioa legoke.

Hauek horrela, nolako etorkizuna izango du ETBk eta euskal audiobisualaren industriak ere?

ETBri dagokionean, orain 5-6 urte bezala, ikuspegi ezkorrik badago eta datozen kateen kompetentziarekin Euskal Telebistak egungo protagonismoa galduko duela diote eta euskal gizar-teak aurrekontu-mailan egiten duen esfortzua justifikatzeko zaila izango dela azpimarratzen dute. Beste zenbaitek, ordea, kompetentziak ETB ez duela galduko pentsatzen dute. Horien artean gaude eta badugu arrazoi zenbait horrela pentsatzeko:

- Estatu Batuetan, gaur egun etxe bakoitzeko batezbeste 42 katea jasoz, ikuslegoaren % 75 esparru zabaleko lau kate irekiek biltzen dute (ABC, NBC, CBS eta FOX). Estatu Batuetako eskarmentua hori bada, gure artean egin beharreko galdera hau da: ia ETBk beste esparru zabaleko katearik indartsuenen artean (gaurkoak eta sor daitezkeen kate berriak kontuan izanik) bere goi-mailari eutsiko ote dion.

- Galdera honi dagokionez, esan beharra dago, ikus-entzuleek erreferentzi puntu anitz duen unean, pertsonalitate finko eta zehatzik ez duten katea horiek desagertu egingo direla.

ETBri identifikazio-elementu geroz eta garrantzitsuago hori berez datorkio: ETB «euskal» telebista da eta izango da beti. Zenbat eta katea gehiago, gertutasunak eta hurbileko atxikimenduak hainbat eta garrantzi handiagoa hartzen du.

- Orduan telebista lokaletan al dago etorkizuna? Ez, telebista-produkzioa beti ere garestia izango da eta gutxienik gizarte-kobertura jakina izan beharko du, finantza-bideak bereganatu ahal izateko. Telebistak ez du irratiarekin parekotasunik puntu honetan.

- Dohainik datozkeen eta ordainezko hainbeste telebista-eskaintza betetzeko programa asko beharko da. ETB hainbat banatzaileen kide aproposa izan daiteke: azken urteotan lorturiko artxibo zabalarekin eta ETBk dituen giza edo teknika-baliabideekin, merkatuari interesgarri suertatuko zaizkion hainbat katea tematiko aireratu ahal izango da eta kostu hutsarekin gainera. Planteia daitezkeen zenbait katea tematikoren adibideak: albistegiak, eguraldia, Superbat katea, heziketa-dibulgazio katea, lekuan lekuko deskonexioak etab...

Ikuspegi hau ez da utopia, Galeuscaren aireratzea bere garaian izan ez zen bezala. Galeuscaren kostea ez da handia eta urte gutxi barru diru-etekinik ere eman ahal izango du.

Hori bai, aukera hauek guztiak aprobeztatu ahal izateko oinarritzko eta funtsezko puntu bat dago: herri honek bere buroari emango dion telebista-mugen demarkazioaren lege-markoa. Ontzat ematekoa al litzateke Euskal Herrira helduko den katea guztiei euskaraz zerbait emateko obligazioa ezartzea? Marko egokia lortuz gero, ETBri (edukien hornitzaile gisa) eta ekoiztetxe pribatuei gaur egun eskuetan ez dituzten aukera berriak etorriko litzaizkiete. Guztiok nahi ditugu euskal industria audiobisuala sendoa osatzeko aukera berriak. Ateetan dugun Telebista berriak era guztietako eskaintzak onartuko ditu. Produkzio-eskaera gehiago izango denez merkatuan, euskal enpresak panorama berri horri begira jarri behar ditugu gure artera helduko diren enpresekin konpetitzeko. Hori orain egingen da edota bestela...

TELEBISTA ETA BIKOIZKETA

TXILIKU ARANGUREN

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak. (*Axular, Gero*)

IKUSPEGI OROKORRA

Gaur Euskal Herrian komunikabide guztiak ditugu euskaraz: prentsa, irratia, telebista. Baina sakonago begiraturaz gero, galdera hau egin behar da: Euskara komunikabide-tresna al da? Ez al da euskara tresna baino produktu gehiago? Nolanahi ere, gure komunikabideek kaleratzen duten produktua euskaraz dago, baina izan, erdarazko iturrietatik edoskitakoa da. Bat baino gehiago izango dut ados honaino.

Komunikabideetako euskara esaten da, eta ez dakit oso ondo zer ulertzen den, baina hasi baino lehen, bereizi egin nahi ditut irratia eta prentsa, beste medio batzuk direlako eta ez ditugulako aztergai, esan behar dugun honetan. Telebistara mugatuko gara, baina telebistaz ari garenean, han gauza asko eta genero asko dago: informatibo eta kirol programetako erredaktoreeta esatariek, edo mahainguruak antolatzen dituztenek, edo festarik festa dabiltzanek eskaintzen dizkigutenek, edo Arraldeko ospetsuek... eta baita, nola ez, Pottokiek eta James Bond-ek edo Gorilari buruzko dokumentala prestatu dutenek ere, guztiek egiten dute *telebistako* euskara. Baina lantxo honen esparrua *bikoiztutako produkzioa* da.

Audientziaren gerrak bazter utzita, ukaezina da telebista jende askorengana iristen dena. Haur eta gaztetxoengana bereziki. Hala eta guztiz ere, bikoizketa-produkziokoon lanbidea ez da ezaguna: geure ingurukoen artean esate baterako, batzuek ez dakite halakorik badenik ere. Baina ia hamabost urte badira Euskal Telebista sortu zela eta harezkerako honetan hor gabilta hainbat itzultzaile eta egokitzaile, gure hizkuntzak aurretik inoiz jorratu gabeko soroan, mundu zabaleko edozein bazterretan egiten diren filme, marrazki bizidun, telesail, eta abarrak euskarara bikoizteko egokitzen.

Hasieran, gaurko aldean, kanpoko programazioak askoz ordu gehiago betetzen zituen ETBn. Bikoizketa etorri zen, eta lanbide berriarekin profesionalak formatu behar izan ziren. Jende asko pasa da lan honetatik. Gauza asko finkatu dira eta gaur egun, onak eta txarrak bereiz ditzakegu...

BIKOIZKETAREN PROZESUA

Bikoizteko materiala jaso eta teleikusleei etxean sartzen zaien produktua lortu arte, gutxi-gehiago figura hauek hartzen dute parte bikoizketa-prozesuan:

- Bikoizketa-etxea. Lana jaso ETBtik eta bere zerbitzura lana egiten dutenen artean banatzen duena.
- Itzultzaile-egokitzailea.

- Bikoizketa-etxeko Hizkuntz Zuzentzailea.
- Programatzailea, antolatzailea...
- Bikoiztailea.
- Zuzendaria.
- Teknikoak (grabaziokoak, nahasketetakoak...).

Lanean hasterako, kontuan izan behar da zer bikoiztu behar den: dokumentala, drama, filme historiko edota literarioa, marrazki bizidunak... Bakoitzak tratamendu berezia eskatzen du hizkuntz mailan.

- Jatorrizko testuak berak aginduko du neurri handi batean erregistroa eta maila, ze generoko filmea den (poliziakoa, zientzi fikziozkoa, literarioa, marrazkiak...); eta gero hori dena kontuan izan behar dugu euskarazko bertsioa prestatzen ari garenean.

- Filme bakoitzaren barruan bertan gerta liteke hizkuntz mailak bereizi beharra.

Hamabost urteotan telebistako hizkera bere lekua hartzen ari da, eta asko aurreratu da, dudarik gabe, arlo honetan. Pauso handiak eman dira eta «arroztasun» asko puskatu dira (beltzak euskaraz, robotak edozein makinetaz hitz egiten, moda-modako edozein pelikula euskaraz: Don Quijote itzuli da, klasiko ingelesak eta azkena irtendako marrazki bizidun arrakastatsuenak, umore ingelesa, kulebroi brasileiroak, Dallas... dena).

Oraindik bidea luzea da: etengabe azaltzen dira egoerak nahiz pertsonaiak, hizkuntz maila eta erregistro, hiztegi, esamolde, etab... berriak direnak euskararentzat (ijitoak, makarrak, *heavys*-ak...). Hor dauzkagu hikak, zukak eta berorikak... non, noiz eta nola erabili behar diren. Hizkuntza jator eta herrikoia, zer da? «Non jartzen du hori?». Oraingoan, ia-ia senez funtzionatzen dugula esan dezakegu. Eta senik ez duenak agian ez du ulertuko kontu honen garrantziaz, inon zientifikoki jasota ez dagoelako ere.

EGOKIPENA

Hitz gutxitan esanda, gure lanaren funtsa jatorrizko filme bat euskaraz jartzea da. Ahotsa duten pertsonaia guztien testua euskaraz berridaztea. Ezin da ahaztu orde, irudia testua bezain garrantzitsua dela eta askotan testuak haren menpe egon behar duela gainera.

Axaletik adierazteko bada ere, alderdi hauek izan beharko dira kontuan:

- Edukiak transmititu behar dira fideltasunez. Ezin dugu beste filme bat egin.
- Hizkuntzak zuzena izan behar du, «egokia», jatorrizko bertsioko erregistroak gure moldera ekarriak, jatorrizkoarekin larregizko atxikimendurik gabe (honek hitzez hitzeko itzulpena eragiten du. Legamiarik gabea, irentsiezina).
- Esaten denak eta esan nahi denak batera joan behar dute, une zehatzean (irudiak agintzen du, eta ezin da 45. minutuan esan, jatorrizkoan filmearen 89.enean deskubritzen dena, adibidez); eta denbora zehatz batean (berriz irudia testua bezain garrantzitsua dugu eta pertsonaia pantailan agertzen bada, ahoa irekitzen duen unean esaten hasi eta ixten duenean bukarazi behar zaizkio esan beharrekoak. Dokumentaletan eta askatasun gehixeago izan dezakegu sinkronizazioarekin, baina dena den, hizkuntza zientifikoa ez dago saihesterik).

Egokitzaileak euskararen ezagupen sakon eta aberatsa behar du, izan ere itzulpenaren mamia gordez hitzen analogia eta joskeran errekurtoak izan beharko baititu, lana ondo burutzeko. Esaldien musikalitateari erreparatu behar dio; musikalitate horrek neurria eta erritmoa emango dizkio. Horregatik belarri ona izan behar du egokitzaileak. Pertsonaien ahoak dauzkagu mugimenduan, guk zer esanaraziko zain... Keinuak egiten ditu pertsonaiak guk puntu-puntu ordainak eman diezaizkiogun, etab. Ah, eta gauza bat... txistuka igoal hasiko zaigu, eztulka, zerbaiti putzegiten eta ahoarekin zarata guztiak ateratzen. Eta zer? Horiek guztiak guk paperean jarri behar ditugula. Hiztotela dela eta gaizki hitz egiten duela? Ba... joiok

harpa! Hiztotelkako testua idatzi behar bere eten, hasperen, ez-tul, barre eta guztiekin... Kaleko eskalearen jardunaren ondoan, Nobel saridunaren hitzaldia etorriko da... Gizon/ema-kume heldu batek eta ume batek ere ez dute hizkera-maila bera. Pertsonaia bakoitzari hizkera bat dagokio eta egoera bakoitzari ere bai.

Erritmo diferenteak daude pertsonaiaren, egoeraren eta dramatizazioaren arabera. Adibidez: haurrek eta zaharrek, motelago hitz egiten dute normalean.

Bertsio bikoiztuak, beti ere jatorrizkoak baino silaba gehiago eduki behar ditu. Baina praktikan gertatzen da, inguruan dituen hizkuntzen aldean euskara (eta ez da ahaztu behar hauetatik bikoiztu behar duela) deklinazio eta konposizioz eratutako hizkuntza dela, haiek ez bezala, eta horrek berak ere gehiago zailtzen du egokipen-lana.

Hitzez hitz itzuliz gero ingelesezko gidoia, euskaraz ia beti askoz ere esaldi luzeagoak ateratzen dira, eta, adibidez, izen propioak jatorrizkoaren parean esatea zaila gertatzen da; eta moldatu egin behar dira esaldiak.

Itzultzaile-egokitzaileak badaki zertan dabilen euskarazko gidoia prestatzen ari denean; ez du alferrik filmea dozenerdi bat aldiz ikusten, gutxienez, atzera-aurrera esaldiak probatu eta probatu ari denean. Bere ahaleginak eta ardua osoa jartzen ditu euskara hitzeginari eta biziari hurbiltzeko. Filmeak itzuli, egokitu eta bikoizten aritzen garen (ginen) profesionalak beste edozein arlotakoak adina behintzat saiatzen gara lana ongi egiten eta, oro har, lortzen dugu.

Baina hainbeste begi-belarrietatik igarotzen den lanari, ezin falta burutik behera mokoka jarduteko gaizkiesaleak. Gauza jakina da oker datorren zuhaixka zuzen haz dadin nahi bada beste aldera okertu behar dela aurrena, eta horrela lortzen dela zuzentasuna. Horretan ez dago zalantzaren izpirik, eta itzulpenetan lardaxkeria gehiegi egingo ziren eta egiten dira; gehiegitan itzultzen dira hitzez hitz sorburuko-hizkuntzako esamoldeak, euskarak horietarako dituen baliokide jatorrak erabat baztertuz.

Baina, eta baliokide hori ez dagoenean? Ahor ba! Orduan berria asmatu edo kalkatu egin behar. Eta hauxe da hain zuzen sarritan gertatzen zaiguna: sorburu-hizkuntzako zenbait egoera, zenbait esakera zeharo arrotzak direla guretzat, eta ez daukagula esamolde egokirik ideia hori adierazteko. Homelakoetan kalkoak egin behar izaten dira maiz. Perifrasia da itzultzaileak daukan beste bide bat, baina gure kasuan ez du balio sinkronia dela-ta itzulpenak ez baitu jatorrizkoa baino luzeagoa izan behar.

Alor berriak jorratu ditugu eta terminologiak egokitu, presaka gehienetan, baina euskarak errealitatean bereak ez zituen gaiei irtenbidea eman diegu. Idazleak iritsi ez diren esparru eta generoetara itzultzailea iritsi da eta, aurreko puntan, itzultzaile-egokitzailea guztiei bide egiten. Hizkuntzaren normalizazioan isileko lanean dihardugu. Itzultzaile-egokitzaileon lana ez da zerbait aparte dagoena, baizik hizkuntzaren garapenean bertan, funtsezko elementua dugu.

Hizkuntzak normalizatu behar badu, eredu guztietakoa behar du izan, gastatu egin behar da, erabili. Gaurko gizartera eta biharko mundura ireki.

Gertatzen dena da, ordea, orain artekoan miseriaren aurpegia besterik ez digutela erakutsi gure arduradun politikoei eta besapean titulua dutela kargu erabakiorretan jarri dizkiguten eskarmenturik gabeko ETBko buruargiek.

Enteak gain-beherako bideari ekin zion kanpoko produkzioari dagokionean eta ur-lasterrak zirenak putzu-zulo kirastun bihurtu dizkigute daukagun filme lehortearekin. Eta, orduan, pobrezia ari gara eskaintzen euskal gizarte eta kulturari.

JESUS EGUZKITZA

ARGI ILUNAK

Irudiaren liluramenean bizi gara. Mundu-mailako iraultzarik handienaren sabelean sartuta gaude. Antzinatean Jainkoen bizileku ziren goitegietan, gaur Jainko elektronikoen begi-belarriak jarri ditugu, eta euron bitartez ikusten eta entzuten dugu.

Mass Medien esanetara gaude, sal-erosietan, irizte-orduan, janzterakoan nahiz eranzterakoan. Eta hauetan indartsuena eta eraginik handienekoa telebista da. Eta irudia dabil hemen dantzan. Baina zer da irudia-imagoa? Nagusiki ikusten ditugun irudiak edo ta asmatzen ditugunak, hirutan zehaztuko ditugu:

- Benetako irudiak: adibidez, nortasun-agirian daukagun argazkia, norbere irudia da; hau da, benetako irudia.

- Irudien irudiak: Picassok *Guernica* egin zuenean hango saraskiaren ikuspegia erakutsi nahi izan zigun. Baina koadro hori telebista bidez ikusita, irudi haren irudia dugu.

- Ez-irudien irudiak: hauek ere irudi dira, geure buruan asmatuak izan arren. Esaterako, telesaio bateko *casting*-ean Ane Igartibururen izena irakurtzerakoan, hitzek Aneren antzik izan ez arren, guk Aneren irudia sortzen dugu.

- Irudien ez-irudiak: ahozko nahiz idatzizko azalpenen bidez, gure buruan lantzen ditugun irudiak.

Beraz, irudiak ikusiz, entzunez, ukituz eta usainduz ere sortzen ditugu.

IRUDIEN KOMUNIKAZIO-BIDEA

Lau elementu nagusien katea behar da irudien komunikaziorako: egilea, mezua, bidea eta hartzailea.

Eta irudiak «irakurtzeko» kode bat behar da. Telebistan kode bat baino gehiago nahasten dira era berean: irudibidea, ez-

-irudien irudiak —tituloak, azpidazketak, *castinga...*—, doinubidea, ahotsbidea, tarreak.

Al-Kindi, IX.mendeko pentsalari arabiarrarentzat, *hitza* da sorkuntzako lehen gaia. San Juanek ere antzeratsu diosku: «Hasieran bazen Hitza...». Eta hitzaren indarra hain eraginkorra da ezen, gizakiaren egoera ezezik, izadiaren berezko joerak aldatzeko ere gai omen da. Eta hitzari, batetik esanahi sendoa ezartzen badiogu, eta bestetik mintzalariaren gogo bizia, hitz horren eragina oraindik biziagoa izango da.

Eta gehiago dio Al-Kindik, hitz eragingarri horri doinuren bat gehitzen badiogu —musika adibidez— orduan sumendiei leher eragiteko ere gai izango da. Eta hitzaren eder hori —diot nik— irudiz hornitzen badugu, ez dago munduan indar biziagorik.

Baina irudiak, jantzi guztiokin, egokitu beharra dauka, hartzailearengana bizi eta eraginkor hel dadin; hau da, «semantizatu» egin behar da nolabait esateko: laburtu, aukeratu, nahastatu... mezua ikusgarriago egiteko, bai egikeraz eta bai edukiz. Iru-di esanguratsuak sortzea da helburua, norbere buruari honako galderak eginik: Nola eman mezua? Zenbat informazio ezarri? Zenbatekoa da hartzailearen gaitasuna? Hau guztiau ondo neurtzea da informaziobide estetikoa. Eta horretarako «arte-arauz» jokatu behar da. Nola landu eta borobildu mezua, hartzailearentzat jakingarri izan dadin eta ez ulertezin. Egileak bere mezua saldu nahi badu, oso kontuan izan beharko du zein den hartzailearen gaitasuna eta kultur jarrera edo ta egoera.

Telebistak irudijale amorratu egin gaitu, eta bihar-etsi geure burua ere nekez ezagutuko dugu. Laster-lastera gainera, guk zer nahi, huraxe izango dugu. Etxean ditugu, jada, hainbat tele-katea komentzional nahiz satelite bidezko eta ate-aurrean daukagu kable-bidezkoa, geure gogoko «menua» eskatu eta emateko. Zorionez edo zoritxarrez gizakiak aurrera egin du eboluzioan.

Behinolako *homo faber* hura, *homo sapiens* egin zen, eta gaur *homo sapiens*-a gehiago dugu *homo zaping-ens*. Erdi txantxetan bada ere, sakoneko gauza bat esan nahi du horrek: telebistan fabrikatzen dela gure mundua, albiste, filme, dokumental nahiz publizitatearen bidez.

ITZULPENGINTZA ETA BIKOIZKETA

Itzulpengintza —niretzat— traslazio logiko baten arazoa baino gehiago, arte-arazoa da.

Ez daukat hitz handirik, ez hitzaldi garratzik botatzeko asmorik. Bikoiztaile soil naizen ikusaldetik, nire eguneroko ekinean ikusten ditudan argi-ilunak plazaratu nahi nituzke eta nola hobetu euskarara ekarritako kanpo gaiak, jakingarrizkoak zein fikziozkoak.

Eta lan-prozesu honetan jarrera bat dago: egia garbiz jokatu behar dela. Baina egia ez da egi izango, jendeak diotsoguna sinisten ez badigu; eta ezin izango digu sinetsi, zer diotsogun ez badaki; eta ezin izango du jakin zer diotsogun, ulertzen ez badigu, eta ez digu ulertuko gauza interesgarririk esaten ez badio; eta ez dugu gauza interesgarririk esango, irudimen handiz, jatoritasunez eta freskotasunez esaten ez badakigu.

«Arte-arazoa» esan dugu lehen, hau da, sormen-lana, eta ez, logika-bide antzua. Arterik gabeko itzulketa robotek egindakoa da. Informazioa garbi eman behar da, leialtasuna ikuspegi funtzionalez erabiliz, eta mezua ematerakoan, testuinguru linguistikoez gain, hizkuntzaz kanpotiko beste ezaguera batzuk ere kontuan izanik: norengana zuzenduriko mezua den, zein den gaiaren muina, zentzu bikoitzik ezarri nahi diogun, informazio soil-soila den, hitz-jokorik ote dagoen, zein komunikabidez iragartzekoa den...

Itzultzen hasi aurretik, ezagutza horiek eskura izatea, behar-beharrezkoa da. Egoeraren azterketa hau barik, nekez lor daiteke komunikaziorik eta eragin jakinik. Itzultzailearen zeregina, inorentzat lan egitea da, ez bere buruarentzat.

Itzultzailearentzat hitzez hitz kalkatzea da etsairik amorratuena. Sarritan hitzei iruzur egin beharra dago zentzuaren mesedetan. Leialtasuna ezin da oso-osokoa izan. Hizkuntza bateko eta besteko hitzen oihartzuna ez da beti parekoa; beraz, kendu hiztegiak roboten eskuetatik.

Argi dago, era horretan egindako itzulpen kaxkarrak baztertu ezezik, salatu ere egin behar direla.

Zer dela eta jokatu hain gordin itzultzaile furtiboekin? Ba, izenik gabeko etxekalteak direlako; eta euren lan kaxkarra «mediari» esker belarri askotara iritsiko delako.

Behin bakarrik emitituta ere, Axular, Agirre edota Mogelen lan guztiak batera baino gehiagok «irakurriko» dutelako. Eta batez ere, Jainko elektronikoaen esana ez delako zalantzan jartzen.

KOMUNIKAZIO-AHALMENAREN MURRIZGARRIAK ETA INDARGARRIAK

Petroniok, zirikatzaile zoli eta eztenkari zorrotzak, honela egiten zion iseka Neron ustelari:

Oh, Zesar, zerutiar eroa; galdukeriaren mentu liluragarria, lizunkeriaren hats gordina, likiskeriaren anker gorria: egik lapurretan, baina ez abestu; izorratu inguruko denak, baina ez kantatu bertsorik; erre bazter guztiak, baina, ez jendaurrean mintzatu; hil nazak, baina ez maitatu.

Nahikoa ostikopean hartuta, edota okerragoa dena, ia inork aintzat hartzen ez duen alorra dugu «esatarien» mundua. Idatziak badu ospe eta aintzarik, baina hitzari, esanari, ez diogu jaramonik egiten, errana haizeak daramala-eta edo.

Nik hitza errebindikatu nahi dut, ziur dakit hortxe dagoe-la-eta komunikazio-ahalmenaren giltza: hitza eder egitean, mezua saltzen jakitean. Hori guztioi landu beharra daukagu, eta horretarako oinarri sendoak eta iraunkorrak jarri.

Guk, gure lanbidean irudia hor daukagu; ezin dugu ederra gotu hitzaren bitartez izan ezik. Gaia, argumentua... hor ditugu. Hortik aurrera gure egitekoa, irudiari arnasa bizigarria ezartzea da, gaia ulergarri, argumentua berezko, diskurtoa gozo eta berriketa geure egin dakigun.

Komunikazio-gaitasuna eraginkor egiteko hiru zutabe jarriko nituzke, bata bestearen osagarri: egokipen bikaina, ahots-jartze egokia eta nahasketa orekatua.

EGOKIPENA

Nahikoa bateratsu eta nahastean ikusten dira itzulpena eta egokipena, baina batak eta besteak ez dute elkarrekin zeri-kusi handirik.

Itzulpena liburuetarako da eta egokipena erranbiderako. Gurea, jatorrizko hizkuntzan zer esaten den jakin ostean *media traslator* erako lana egitea da. Han dioena euskarara ekartzea, hango *tempus*-ak zaindurik, hitzak eta esaldiak irudibidearen kolpeetara egokituz eta sinkronia zainduz. Muga oso estuak ezartzen zaizkigu, beraz, egokipen-lanean; eta era berean, esaldi zuzenak izateaz gain, «esangarriak» izan behar dute.

Zuzentasun gramatikalak, besterik gabe, ez du esan nahi, esaldi edo parrafo hori esangarria denik.

Hau ez da literatura, esataritza baino. Hau ez da estilistika literarioa, erranbidearen beraren estilistika baino; eta erranbideko arauak eta literaturakoak beti ez datoz bat. Erranbidean, euskara irudi-sortzailea egin behar da.

Horrela, aukerako hitzak irudikatuko digu izendatu nahi duguna. Hitzen arteko joko-dantzak oihartzunduko du esanahiaren egituraketa. Eta azkenik, esakera bizigarriek eman-go digute munduko dinamikaren berri, Antonio Zabalak esaten dakienez.

Bide horretatik geure mundu-ikuskerara sortuko dugu. Hizkuntza bakoitzak berea dauka, eta euskarak geurea.

Esan beharra dago, gaizki idatzitakoa ez dagoela inola ere ondo esaterik, eta ulergaitz ezezik, entzuterakoan mingarri ere egingo zaigula, eta beraz, ez du komunikazio-ahalmen izpirik izango.

Baina, zuzen idatzita dagoela jota ere, gerta liteke esan-gaitza izatea eta orduan, entzulegoa erakarri eta liluratu beharrean, uxatu egingo dugu.

Egokipen-lanak baldintzatzen du neurri handi batean, filmearen ikusgarritasuna. Hori dela eta, hiruzpalau zertzelada ikus-entzunezko itzulpen-egokipen lanerako:

- Lan-esparru berezi legez hartua izatea, oinarrian jakintza--mota desberdinak biltzen dituelarik: itzulpen-teoria, filmearen semiotika, hizkuntz maila desberdinen ezagutza, bikoizketa-tekniken jabetza eta abar.

- Egokitzailleak intuizioari eta bihozkadari jaramon handiagoa egin behar dio hiztegiari eta gramatikari baino. Hau da, zuzentzat sentitzen dituen esamoldeak aukeratuko ditu, gero esatariak entzulearekin izango duen «elkarrizketa» korapilotsuko bidean honi irudi positibo eta koloretsuak sortzeko.

- Egokipen-lanaren azken xedea, ez da jatorrizko esamoldeak euskarazkoekin ordezte besterik gabe. Interpretaziozko balio-kidetza izan behar du. Eta honetan ez dago neutraltasunez jokatzetik: norbere emozioak, sentikerak, jarrerak nahiz motibazioak hor ezarri behar dira. Horrela jokatzeari ez da zilegi bakarrik, ezinbesteko baino.

- Bikoizketan, kodigo estandarrak eskura jartzen dizkigun baino indize estilistiko handiagoko esamoldeak erabili behar dira; bestela, filmea zuri-beltzean ikusiko dugu, eta gaur koloreak dira nagusi.

- Ez dago esan beharrik, egokitzailleak euskararen eta Euskal Herriaren ezagutza sakona izan behar duela, bestela oihartzun guztiak galduko ditu, eta eraginik gabeko komunikazio antzua besterik ez du lortuko, inongo ñabardurarik gabea.

AHOTS-JARTZEA

Ondo esandako hitzak iraultza bat egiteko adinako indarra dauka. Baina hitzak irudiarekin bat behar du. Alferrekoa da ondo egokitutako testua, bizia eta irudi-sortzailea, neurrian neurrikoa, jagia eta erranbidera ekarria... gero, kaxkar esanda badago, eta ondorioz, entzulearen belarrietara oztopoz beterik iristen bada.

Ahotsaren modulazio ugariak ondo erabilirik, esatariaren irudimenaren hegoetan dago erranbidearen eraginkortasuna. Hori ere sormen-lana gehiago da araubide bati jarraitzea baino.

Erranbideak, ahotsa jartzerakoan irudi-sortzaile izan behar du; eta esatariak aurrean duen testua nola erranbidetu asmatu behar du horretarako. Badirudi oharbide honek ez duela aparteko garrantzirik, baina horrexek egiten du lana eder, entzungarri, berezko eta erakargarri.

Fikzioan pertsonaia bakoitzak bere ñabardurak ditu, era bateko edo besteko nortasuna erakusten du, nolabaiteko jite berezia, eta hori guztioi aukerako ahotsaren bidez bete behar da, irudian ari denarekin bat eginez; bestela, irudibidea bategatik eta erranbidea bategatik joango dira batasuna apurtuz. Ez da sinisgarri egingo.

Honetan, edonork edozein egiterik ez dago; eta gurean hone-lako narraxkeria askotxo egiten da, inoiz utzikeriagatik, inoiz ahots-faltagatik, inoiz errentagarritasunamizenean, inoiz kalitateak eta antzeko zerak oso bigarren mailakotzat hartzen direlako. Nire iritziz, bikoizketa horren baino lanbide serioagoa da. Egia da, bai, euskaraz ez daukagula, oro har oraindik, fikziozko gaiak ikus-entzuteko ohiturarik, baina umeteriaren begi-belarrietara heltzeko gai izan garen moduan, ez dut ezinezko ikusten gazte eta helduenetara ere iristea, baldintza onetan eta gai egokiekin jokatzeko badugu. Eta euskaraz ikus-entzuteko ohitura sortzeko gai ez bagara, errua ez da euskararena, geurea baino; ez dugulako jakin gai egokiak aukeratzen; ez dugulako jakin gaia entzungarri egiten; ez dugulako jakin produktua saltzen... edota, oinarrietan huts egin dugulako. Denerik dago zer-bait!

NAHASKETA

Hau lan tekniko-artistikoa da, batez ere; eta helburua «armonia» lortzea da. Irudibidearen osagarri den audioan musika, zarata-hotsak, berriketak, zurrumurruak, lehen planuko elkarriketak, giroak... hau da, jantzi oso bat daukagu, eta bikoizketa lana ez dugu ondo biribilduko, hots bakoitzari unean-unean dagokion oihartzuna ematen ez badiogu, lana bere osotasunean entzungarri izan dadin.

IÑAKI ZUBIZARRETA

GAI-DESOREKA ETB 1-EAN

Zenbat amets, nolako urduritasuna oraintsu hamabost urte euskal kulturaren mundutxoan. Artean urratu gabeko bideari ekin behar eta ikastaro ugari zabaldu zen han eta hemen, pre-saka eta gogoz antolatuak, Telebistaren atarian baikeunden.

Inguruko telebisten antzera gai guztiei heldu nahi eta, jakina, bikoiztea ere zati garrantzitsua zen. Lanari gogoz ekin beharra zegoen eta halaxe hasi ginen uholdeka zetozen filme, marrazki bizi, dokumental eta telesailei euskarazko ordaina ematen bikoizte-etxeetan.

Halaxe joan ziren lehen hamar urteak, ehundaka lagun en ahaleginari esker, milaka telebista-gai euskaraz lantzen. Baina halako batean, ez dakit nik noren burutazioz, erabat hasi ziren aldatzen programazioa, eta ordura arte gordetako gai-oreka hausten.

Horren adibide argia duzue honako koadro hau, 1995eko urrian *Foco* aldizkariak argitaratua:

Genero bakoitzari 1994an eskainitako denbora-portzentaiak

	TVE1	La2	T5	A3	C+	CST	TV3	C33	ETB1	ETB2	TVG	TVM	C9	Batezb.
Zinea	19,4	25	27,8	30,3	56,7	24,1	18,8	6	5,2	32	19,6	30,5	32,6	26,7
Telesailak	23,9	8,9	20,5	24,8	5	11,6	19,1	5,5	7,8	13,2	12,8	14,8	9,4	14,3
Lehiaketak	5	4,1	9	3,2	0	4,4	2,7	0	3,4	3,4	2,3	3,3	2,6	3,5
Zezenak	1,7	0,2	1,2	1,7	1,1	1,8	0	0	0,1	0	0	1,5	2,3	1
Kirola	4,6	14	3,6	2,2	10,6	5,2	5,8	33,7	25,4	3,1	13,6	8,3	6,1	9,3
Musika	1,6	6,5	0,3	0,4	8,5	5,0	0,3	4,8	4,0	4,7	7	0,3	2,6	3,4
Erljioa	1,1	0,9	0	0	0	1,1	0	1,5	1,6	0,1	1,5	0	0	0,5
Dibulgazioa	6,5	17,8	9,1	2,5	7,1	13,3	8,1	31,7	11,3	24,6	7,5	10,8	9,8	11,2
Denetariakoak	11,2	1,9	3,9	8	0	6,9	9,7	1,2	3,9	1,4	5,7	1,8	6,4	4,9
Albistegiak	12,3	8,2	7,7	8	5,6	12,6	17,4	1,1	11,5	14,7	14	18,8	10,6	11
Haur/Gazte	9,7	11,9	13	12,5	3,3	12,7	15,5	8,6	23,8	0	15,5	9	15,4	11,5
Antzerkia	0,2	0,2	0,1	0,1	0	0	0,2	1,7	0	0	0,1	0	0	0,2
Besterik	2,7	0,5	3,8	6,2	2,1	1,3	2,5	4,1	2	2,8	0,4	0,9	2	2,5

Iturria: Sofres / Foco.

Oso nabaria da hor ETB 1ek hartu zuen bazterbidea beste telebisten ondoan, batez ere lau genero hauetan: zinea, tele-sailak, haur/gazteentzako saioak eta kirolak. Hamahiru kateek zineari eskainitako denboraren batezbestekoa % 26,7 den bitartean, ETB 1ekoa % 5,2 da. Telesailetan hamahiru kateen batezbestekoa % 14,3 da eta ETB 1ena % 7,8. Alderantziz gertatzen da beste bi generoetan. Haurrei eta gazteei eskainitako saioetan, hamahiru kateen batezbestekoa % 11,5 da, eta ETB 1ena % 23,8. ETB 1en kasuan haurrei eskainitakoa dela esan behar batik bat, gazteentzakoak urria baita. Baina gai honetaz geroxeago idatziko dugu. Kiroletan, berriz, hamahiru kateen batezbestekoa % 9,3 den bitartean, ETB 1ekoa % 25,4 da. Gai honetaz ere berehala esango dugu zerbait.

1994ko programazioari dagozkion datu horiekin alderatuta, ETB 1en bazterbidea edo gai-desoreka areagotu egin dela esango nuke nik hurrengo urteotan, inongo zalantzarik gabe.

Dena den, datu horiek horrela hotzean jasota, ez dio beharbada jende askori gauza handirik adieraziko eta, horregatik, al-daketak zer eragin izan duen bikoizte-etxeetan azalduta, argiago geratuko da arazoa. Ondorengo datuok bikoizte-etxe batekoak dira, baina beste biek ere (hiru bikoizte-etxe ari gara batik bat ETB 1entzat lanean, hasieran bi) antzeko kontuak izango dituztela uste dut nik, edo antzeko samarrak, nahiz eta kopuruetan hirugarren etxeoak (kronologiaz) apalagoak izan. Bestalde, ez ahaztu euskarazko bikoizteaz ari naizela hemen, artikulu osoan bezalaxe.

1983an, hasierako aldia zen artean, 300 bat ordu bikoiztu genuen. 1984tik 1988rako urteetan, biak barne, 500 ordu inguru bikoiztu genuen urteko. 1989an eta 1990ean beheralditxoia izan zen eta hasieran bezala 300 bat ordu bikoiztu genuen urteko. Hurrengo bi urteetan, 1991-1992, gora berriro: 400 ordu inguru urteko. Hurrengoan, 1993an, 350 bat ordu. Eta hurrengo urtetik hona dator beheraldi nabarmena: 250 ordu pasatxo urteko 1994an eta 1995ean. Iaz, 1996an, beherago oraindik: 211 ordu. Eta beldur gara ez ote den beherakoa oraindik gelditu.

Ordu soilak aipatzea ere hotzegi gerta litekeenez, adibidetxo batzuk bilduko ditugu hona, generoak kontuan hartuta. 1984an 74 filme edo pelikula bikoiztu genituen, 1985ean 73 eta orain hamar urte, 1987an alegia, 98 filme. Azken urteotako beherako bide nabarmena hasi aurretik, 1991an 63 eta hurrengoan 55. 1993an hasi zen beherako geldiezina: 26 filme bikoiztu genituen. Hurrengo urtean, 21. 1995ean 13 eta iaizko urtean, 8. Kontu bertsuak esan beharko genituzke telesalei buruz, baina ez naiz luzatuko.

Honek guztiak eragin zuzena izan du noski profesionalengan. Adibidez, 1983an 45 itzultzaile eta egokitzailek egin zuten lan *gure etxean*, eta hurrenez hurrengo urteetako kopuruak hauexek izan ziren iaiz arte, hau ere barne: 74, 73, 57, 44, 46, 33, 32, 26, 27, 25, 22, 19 eta 20. Gauza bera esan behar bikoiztaileei buruz, oraindik ere kopuru handiagotan, jakina.

Honezkeropentsatua du agian norbaitek: bai, penagarria da lana murriztea, lanpostuak galtzea, baina hainbesterainoko garrantzia ote du gai-orekak telebistan?, edo hala izan behar ote du derrigorrez ETB lean?

TELEBISTA OROKORRAREN BEHARRA

Ez dut nekerik hartuko aurreneko galderari erantzuten. Telebista guztiek hala jokutzen dutenez, ez naiz ni katuari bost hanka bilatzen hasiko. Baina bigarrenari dagokionez, eta norbait bostgarren hanka horren bila ibili delakoan eta dabilelakoan, gogoeta luzexeagoa egin nahi nuke erantzuteko. Lehenik eta behin garbi adierazi nahi nuke ETB 1ek ezinbesteko duela gai-oreka hori, eta gainera beste telebistek baino premiatsua-go, bera baita *Euskal Telebista* bakarra. Gerora begira ere, telebista digitala dela eta, zeinek beteko du gai orokorrak lantzeko eginkizuna, ETB 1ek ez bada?

Telebista orokorreko programazioak orekatua izan behar du nahitaez, gizarte osoaren arreta bildu behar baitu, eta hau, berriro diot, are nabarmenago da gure egoeran, telebista bakarra baitugu euskaraz.

Arestian bi gai utzi ditut gero azaltzekotan: bata, haur eta gazteentzako saioak, eta bestea, kirolak. Hain zuzen ere bi genero hauetan ETB lek alderantziz jokatzen zuela genioen, beste telebistekin konparatuta; tarte handiagoa eskaintzen ziela alegia.

Haurren eta gazteen saioei dagokienez, gogoratu, Estatuko hamahiru telebista kateen batezbestekoa % 11,5 zela eta ETB lean % 23,8. Gure kasuan batez ere haurren saioek osatzen dute ehuneko hori, gazteentzako saioak urri samarrak baitira. Beharbada gure egoera ikusita asko egongo gara ados haurrei lehenetasuna ematearekin, baina kontuan izan behar dugu haur horiek hazi egiten direla, hamabost, hamasei eta urte gehiago betetzen dituztela. Zer dugu horientzat? Izan dira ETB lean gaztetxo eta gazteentzako telesail arrakastatsuak (*Lehenengo musuak*, *Parker Lewis...*) bakoitza bere mailan eta ordutegi egokian emanak. Zergatik ez dute jarraipenik? Gerora ere izan dira (*Bosteko familia...*) baina desorduetan emanak, ez dakit nik zergatik!

Garrantzi handia duela uste dut nik jarraipenaren gai honek, haur, gazte eta helduen katea ez eteteak alegia. Orain bi urte kontu hauek aipatu nituen *Egunkaria*-n eta oraindik ere balioa galdu ez dutelakoan, hona bilduko ditut:

Orain hilabete batzuk ETBko arduradun bati entzun nionez, fikziozko saioak, edozein delarik gaia, 13 urte artekoek ikusten omen dituzte gehien; 13tik 24 arteko ikusleen kopurua erdira baino gehiago jaisten omen da, eta areago oraindik 24tik gorakoena. Honela zioen, berriz, oraintsu egunkari honetan Beatriz Otaegi, Donostiako Udaleko Hezkuntza eta Euskara zinegotziak: «Parte Zaharrean adibidez 14 urte bitarteko haurren % 60k euskaraz hitz egiten dute, baina 15-24 urte bitarteko artean % 15ek soilik».

Norbaitentzat halabeharra izan liteke hori, elkarrekiko lotura gabeko bi gertaera. Ez naiz ni uste horretakoa. Gaur egun familian eta kalean hizkuntza zabal dadin, eragin izugarria du telebistak dudarik gabe. Asmatu beharra dago, beraz, ETB leko programazioan hemen ere hala izan dadin, ez haurrentzat bakarrik, baita gazte eta helduentzat ere.

Kirolak direla eta, gogoratu, Estatuko telebista-kateen batez-bestekoa % 9,3 zela eta ETB 1ena % 25,4. Baliteke gainera gaur egun 1994ko alde hori handiagoa izatea, ETB 1ean kirolak egin duen gorakada nabarmena ikusita. Nire ustez ez da kirolen bidea egokiena eta emankorrena euskararentzat, kirolak eduki urria baitu eta berehalaxe agortzen baita bai hizkuntzaren aldetik begiratuta, bai kultur edukiaren aldetik. Zergatik ez dituzte kirolak ETB 2an ematen eta bi hizkuntzetan? Jorratutako arloa da hori irratietan. Hartara euskaraz ez dakitenek ere, edo ikasi nahi dutenek, entzungo lukete euskara pixka bat eta ez litzateke gertatuko oraindik oraino Nerea Azumendik *El Diario Vasco*-n saltzen zuena:

Aumenta también la audiencia de algunas cadenas de radio en castellano —por lo menos en los bares de mi barrio— al convertirse en sintonía de las imágenes que amablemente les cede ETB 1. Televisores mudos y aparatos de radio a tope para superar el inconveniente del euskara. (*DV 1997-02-9*)

Aho batez eta ozenki esan zutenez, ETB 2 ETB 1en osagarri eta lagungarri izateko sortu bazen, hortxe du aukera bikaina, hor eta ondoren aipatu nahi dudan puntuan.

Zer zentzu du ETB 2an zinea bultzatzeak? Hasieran jasotako koadroaren arabera, Estatuko hamahiru kateen batezbestekoa, zineari dagokionez, % 26,7 zen, ETB 2rena % 32,0 eta ETB 1ena, berriz, % 5,2. Gaur egun oraindik ere gutxiago, us-te dut nik, ETB 1ean, gure etxeko datuek argi adierazten zutenez. Ez diot nik inongo zentzurik aurkitzen ETB 2an zinea bultzatzeari, gaztelaniaz ikusi nahi duenarentzat dagoen aukera zabala kontuan hartuta. Eta dudarik ez dago askoz aberatsago dela zinea kirolak baino euskararentzat bai hizkuntzaren aldetik begiratuta, bai kultur edukiaren aldetik.

Zineaz ari garela, nolatan egin litezke filme ospetsuenen estreinaldiak ETB 2an, garai bateko jokabidea bazter utzita?

Ez dut uste estreinaldiak ETB 1ean egiteko erabakia denbora pasa eta arinkeriak hartuko zutenik bere garaian, ongi pent-saturik eta arrazoiz baizik; horixe baita biderik egokiena euskara bultzatzeko.

Halaxe idatzi nuen aspaldi *Egunkaria* eta, damurik, gaur ere gauza bera errepikatu behar, ez baita aldaketarik izan Euskal Telebistaren jokabidean. Idazlan hartan aipatu nuen arriskua ere; «bestela etenaldia sortzeko arriskua baitago eta belau-naldi oso bat galtzekoa hemen aipatzen ari garen aldetik begiratuta», indarrean dagoela esango nuke nik, oso indarrean ere. Hain zuzen orain datorkigun aldaketa handiaren aurrean telebista guztiek aipatzen dute zinea genero nagusi bezala eta guk bazterrean geratzeko arrisku hori dugu, itsu ez dagoenak argi ikusi behar lukeenez.

Telesailak aipatu nahi nituzke orain labur. Honetan ere atzera egin dugu oraintsu bost urteko aldaketaren erruz. Eta jakina, filmeekin batera garrantzi handia dute edozein telebistaren programazioan, gurean izan ezik. Denon gustoko telesailak behar genituzke berriro eta ordu egokian emanak: umorekoak, polizienak, misteriokoak, gazteentzakoak, abenturazkoak... Garai batean telesail arrakastatsu ugari izan zen ETB lean ere.

Horrekin lotuta dokumentalak aipatuko ditut. Norbaitek berehala esango luke hemen aukera balu, horretan behintzat nahiko osatuak gabiltzala, dokumental ugari eskaintzen duela ETB lek. Baina nik hala ere garai bateko dokumentalak ditut gogoan: erreportaje gisakoak, beste herrien eta kulturen berri ematen zigutenak, gai zehatz batzuei buruzkoak... Nahiz eta animalienak ere oso interesgarriak diren, badirudi orain ez dagoela besterik.

Azkenik, ETB leko programazioari buruzko gogoetan behin eta berriro datozkidan uste edo ideia batzuk azalduko ditut hemen. Batzuek nire irudipen hutsak direla esango dute agian, baina nire ustez hala ez direlakoan hor doaz datozen bezala.

Beti uste izan dut bikoiztuak garrantzi handia izan behar lukeela ETB lean, euskarak Lizardiren Amets-Bideetan Barna aurrera egin dezan, mundu zabalera irekita, gure kultura aberasten. Ondo zioen Koldo Mitxelenak *Egan*-en «Barandiaran jautsua eta gure kultura»z ari zela:

Ez dugu inoiz gurerik ezagutuko besterenik ezagutzen ez badugu, hura den denean konprenitzeko besteak ulertzetik bakarrik izango baitugu laguntza.

Mundura leihoa zabaldu orde, ixten ari garen susmoa dut aspaldi honetan. Nago atzeraka goazela kulturaren eta hizkuntzaren ikuspegitik begiratuta. Nago ez ote goazen Lizardiren aurreko garaietara abiada bizioan haren «Oro-Mintzo» bazterturik:

Baiña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere norainaikoa:
yakite-egoek igoa;
soiña zaar, muin betirakoa.

Errazkeria, taberna-girko hizketa, lekuz kanpoko baserri-tar kutsu, «jatorakeria» eta «folklore» gehiegi dago aukeran, bai hizkeran, bai edukian, eta arrunkeria gainezka. Badirudi herri honetan ez dagoela unibertsitaterik, ez kultur kezka handirik. Ez da behintzat kexarik gehiegi azaltzen. Agian ez da ETB 1en beharrik nabari edo beharbada ez duela erremediorik pentsatu eta baztertu egingo zuen jendeak. Ez dakit.

Nik erremedio bakarra ikusten dut egoera honen aurrean. Oker egindako urratsak zuzendu eta berriz ere lehengo gairak itzuli. Gai guztiak landu behar ditu ETB 1ek, eta oreka gorde haien artean, euskararen onerako eta zabalkunderako.

HAINBAT ABURU

TXEMA RAMIREZ

MASA-HEDABIDEAK ETA BORTIZKERIA POLITIKOA

MASA-HEDABIDEAK ETA BORTIZKERIA POLITIKOA

TXEMA RAMIREZ

Ahal duten guztietan, komunikabideek beren independen-
tziaren aldarrikapen sutsua egiten dute gizartearen au-
rrean, horretan oinarritzen baita —neurri handi batean—
beren legitimitatea eta merkatuan lehiatzeko ahalmena. Plantea-
mendu hutsa besterik ez da, merkatuari begira luzatzen den le-
loa, ahalik eta irakurle gehien bereganatzeko asmoz.

Kazetari askok eta askok beren zeregina notarioarenarekin
parekatzen dute, beraien lana eginkizun mekaniko horretan
agortuko bailitzan. Horren arabera, kazetariak nolako gertae-
ra ikusi eta halako albistea burutuko luke. Kitto, besterik ga-
be. Horixe litzateke gainera gizarteari eskaini liezaiokeen zer-

bitzurik onena, informatzea besterik ez, aditibo, kontserban-
te edota koloregairik gabe.

Masa-hedabide eta kazetarien lana zerbait gehiago ere bada, ordea. Berriketariak gertaera informatiboa deskribatzen duten heinean, errealitatea bera ere interpretatzen ari dira. Kazetariak egunero albistea idazterakoan egiturako diskurtsoa erai-ki behar du. Erabiltzen dituen kodeak eta estrategiak ikustezi-
nak eta ezezagunak dira bere hartzaileentzat. Ezkutukoak badi-
ra ere, arau horiek gogoan ditu beti kazetariak, horretan oinarri-
tzen baita urteetan zehar mamitu den bere profesionaltasuna.

TERRORISMOA

Mass-mediak oso gutxitan dira benetan neutralak. *Terrorismo* deitura erabiltzen dute desordenu-iturri guztiak izendatzeko, bortizkeriamn arrazoi soziopolitikoen analisia alboratuz, eta terminuari berari gaiztakeria maltzur nabaria atxikiz.

Ez da inolaz ere makala *terrorismoa* terminuaren inguruan dagoen eztabaida. Nazio Batuen Erakundeak (NBE) berak adibidez, arazo ugari ditu, hemen gure artean barra-barra erabil-
tzen den *terrorismo* terminuaren. Uneon NBE erakundeak hitz hau beren gizarte-arloko ikerguneen deitura ofizialetatik kanpo utzi du (Miquel Rodrigo, 1991:17), hainbestearino iritsi baitira terminu honen inguruan sortu diren desadostasunak eta interpretazio kontrajarriak.

Iduri du jarrera eta terminologia batzuk medioetan oso erro-
tuta daudela. 1989an ordea, Aljerko negoziaketek iraun zu-
ten bitartean, zenbait mediok aparteko erraztasuna erakutsi zu-
ten urtetan erabilitako terminologia bertan behera uzteko edo-
ta samurtzeko. Aste bakar batzuk nahikoak izan ziren ETA
banda terrorista izatetik *erakundea* izatera pasatzeko.

Horregatik, J.D. Halloran-ek dioen modura (1970:866),

ez dago, eta ez dirudi egongo denik ere, indarkeriaren inguruan on-
tzat eman daitekeen definiziorik, ezinezkoa baita portaera bortitz
guztien gaitsezpenean ikuspuntu guztiak bat etortzea.

Alain Joxek¹ e re, Pariseko Gizarte Zientzien Eskolako ikasketaburuak, terminu hau ez du gogoko. Bere ustez (1996:20):

Terrorismo hitzak duen esanahi afektiboagatik eta neurritz kanpoko hedaduragatik (...) faktore politikoa estaltzeko eta elementu politikiakoa nabarmentzeko erreminta egokia da; desordenu-iturri guztiak izendatzeko, hitz honek indarkeriaren analisi soziopolitikoak guxtiatsi eta pertzepzio makurrak barnertatzeko balio du.

Horregatik, gerra-ekintzak izan gabe baina helburu politikoez egiten diren ekintza armatuei, *bortizkeria politikoa* esaten die berak.

Auzi honen inguruan nabaria da komunikabide bakoitzak duen menpekotasuna. Mezubide gehientsuenek talde batzuk *terroristak* legez definitzen dituzte (ETA, IRA, GRAPO...). Beste batzuei berriz zentzu askatzailea atxiki zaie. Kontuan izan, adibidez, 80ko hamarkadan Nikaraguako kontrak izendatzeko nazioarteko prentsak erabili zuen terminologia bitxia: «errebeldak», «erresistentzia demokratikoa»... Bestetan, indarkeria erabiltzen duten talde parapolizialei gaixotasuna sendatzeko dohaina ezartzen zaie. Orduan ez dira «talde terroristak», «kontra-terroristak» baizik (xelebrea benetan hizkuntzaren erabilera makur hau!). Horixe da GALen kasua, adibidez.

Mendebaldeko gizarteetan Estatuak du indarkeriaren monopolioa. Legitimitate hori eztabaidatzen duen oro disidentea da, eta, indarkeria erabiltzen badu, *terrorista*. Jean Jacques Rousseau bera garbi mintzatu zen duela urte asko auzi honi buruz. Agintean dagoenak indarkeria erabiltzeko duen beharraz azpimarratzeko filosofo suitzar ezagunak ondorengo hau esan zuen:

Indartsuena inoiz ez da behar adina boteretsu. Betiko nagusia izan nahi badu, bere indarra Zuzenbide bilakatu eta obedientzia beharkizun bihurtu behar ditu. (*M. Rodrigo, 1991*)

Agintean dagoenak erabakitzen du noiz eta zer den *terrorismoa*, noiz eta zer den *indarkeriaren erabilpen legitimoa*, berririk bakarrik —botere politikoari, hain zuzen— aitortzen baitzaio definizioak egiteko gaitasuna.

Gure artean, bai mezubideetatik baita boteretik ere, ETak burutzen duen bortizkeriari kutsu politikoa ukatu nahi izaten zaio behin eta berriz. Alabaina, gertakizun horiek mezubideetan duten oihartzunak eta kokapen fisikoak berak kontrakoak erakusten dute; hau da, berez gertaera horiek kutsu guztiz politikoa dutela (aparte utzita norberak fenomeno horren aurrean izan dezakeen edozein iritzi legitimo).

Egoera paradoxikoa da guztiz. Alderdi politiko eta masa-komunikabide gehienek ETaren jarduerari inolako helburu politikorik ukatzen dioten bitartean, botere politikotik eta mezubideetatik erakunde honek burutzen duen aktibitateari ohiz kanpoko garrantzia aitortzen zaio *Estatu arazoaren* mailara igoaraziz. Madril, Gasteiz eta Iruñeko itunak dira, ezbairik gabe, apartekotasun honen lekuko paregabeak. Orduan, bada ala ez da politikoa ETak burutzen duen jarduera?

KONTRATERRORISMOA

Miquel Rodrigo irakasleak, *Los medios de comunicación ante el terrorismo* liburuan, komunikabideek bortizkeria politikoa- ren aurrean dituzten jarrera desberdinak aztertu ditu. Portae- ra horien artean, egileak aztertu duen lehena «isiltasunaren es- trategia» deritzona izan da. Izan ere, bada *ekintza terroristari* ino- lako oihartzun informatiborik ezin zaiola eskaini defendatzen duen jarrera. Jokabide honen aldekoek *terrorismoa publizita- te-ekintza* bezala ikusten dute eta, horregatik, fenomeno honi aurre egiteko biderik egokiena eta zentzuzkoena guztizko ukape- na litzateke. Miquel Rodrigok berak aitortu duenez, formula hau ez da oso aholkugarria gaur egun (ezta etikoa ere, gaineratu- ko nuke nik), era honetan herritarrok informazio txukuna ja- sotzeko dugun eskubideari eraso nabarmena egiten baitzaio. Bestalde, ez al da *publizitate-ekintza* ere edozein politikarik, kazetarien aurrean agertzen den bakoitzean, egiten duena? Nork erabakitzen du publizitatearen eta informazioaren arteko muga non ezarri behar den? Informazio-iturri guztiek —ber- din dio enpresarien buruzagia izan ala ekintzaile armatua izan— ez al dute bilatzen komunikabideen konplizitatea eta

begikotasuna, ongi asko ohartu baitira era horretan eragina izan dezaketela jendarteko iritzian?

Haatik, gure artean nagusitu den portera ez da «isiltasunaren estrategiarena» izan, nahiz eta batzuetan zenbait gertaeraren aurrean zenbait mediak erakusten duten mututasuna guztiz adierazgarria eta lazgarria izan. Urteak aurrera joan ahala, geroeta garbiago geratu da mezubide gehienek bere egin dutela Miquel Rodrigok «tratamendu kontraterrorista» bezala definitu duen jarrera. Kasu hauetan masa-hedabideek paper aktiboago jokatzen dute *terrorismoaren kontrako borrokan*.

P roposamen honi jarraikiz, komunikabideek, lehenengo eta behin, *terrorismoak herritarren artean izan lezakeen irudi ona zapuztu* behar dute. Helburu hori lortzeko, era guztietako prozedurak erabili izan dira: desinformazioak, filtrazioak, intoxikazioak eta, beharrezkoak balira, gezur biribilak ere. Denok dugu geure buruan adibideren bat edo beste.

Bigarren neurri bezala, tratamendu kontraterroristak *mezua - ren intentsitatea gutxitu* behar dela dio; hau da, gertakizun informatiboak lehenengo orrialdean agertzeko modukoak izan arren, bigarren edo hirugarren maila batean alboratu edota baztertu behar direla. Zergatik? *terrorismoari ezin zaizkiolako ohiko irizpide profesionalak ezarri*.

Testuinguru honetan, komunikabideetan ez dute apenas tokirik giza eskubideen kontrako erasoak salatzen dituzten albisteentzat. Arrazoia? Ezker abertzalearen ingurutik datozelako, hau da, «erasotzailatzat» jotzen diren alderdietatik. Atentatuetan hil edo zauritu diren pertsonen eskubideei berriz, lehen-tasun osoa ematen zaie, Miquel Rodrigok berak dioen bezala *ka - zetariak atentatuen biktimen ikuspuntutik informatu beharra dutelako*.

Jokabide hau bete-beteaz azaltzen da gure artean ere. Zenbat aldiz alboratu, baztertu edota ezkutatu dira berez nahikoa garrantzitsu izan zitezkeen gertakizun informatiboak *terro - ristei mesede ez egitearren* aitzakiapean?, eta zenbat aldiz gertatu da kontrakoa, hots, berez nahiko funtsik gabekoak edota gaurkotasun erlatiboa duten zenbait gertakizun informati-

bori eman zaie neurritz kanpoko garrantzia komunikabideetan *terrorismoaren ahuldura errazten* dutelakoan?

Jarrera kontraterrorista honek hirugarren neurri bat ere proposatzen du, *terrorismoaren ideologia suntsitzea*, alegia. Hartara, *terrorismoa gaitzesteaz gainera*, mezubideek bortizkeria politikoa defendatzen dutenen koherentzia falta eta koldarke-ria azpimarratu behar dituzte, harik eta *terroristen eta beraiei babesa ematen dietenen koartada ideologikoak agerian gelditu arte*. Jokabide honen erakusle nonahi topa genezake egunero .

Beraz, jarrera kontraterrorista honek ondorengo hiru zutabe sendo hauetan du bere euskarri:

- *terroristek izan lezaketen irudi ona zapuztu behar da;*
- *terrorismoari ezin zaizkio irizpide profesionalik aplikatu eta*
- *terrorismoaren ideologia suntsitu behar da.*

Garbi dago zein den arrazoia (M. Rodrigo, 1991):

Terrorismoari aurre egin behar zaio, inolako aitzakiarik gabe, bel-
durrik izan gabe; era horretan bakarrik sortuko baita herritarren
artean terrorismoa irabazteko behar den kontzientzia publikoa.

Beste autore batzuek (Marshall McLuhan, Jadel Jacobelli) beren jarrera kontraterrorista *Bakerako kazetagitza*-ren estal-
kipean mozorrotu zuten. Hauen planteamendua hiru zutabeo-
tan oinarritu zen (Carlos Soria 1987):

Terrorismoaren aurrean ezin da neutrala izan; biktimen ikus-
puntutik informatu behar da eta ez terroristen ikuspuntutik, eta
kalitatezko kazetaritza egin behar da ekintza terroristek izan de-
zaketen ikusgarritasuna alboratuz.

Honaino jokabide kontraterroristaren teorizazioa. Jarrera hauen adibide gisara hona hemen beste apunte xumea. Luis Alberto Aranberri *Amatiño*-k, 1991n ETBko zuzendaria zelarik, Gasteizen izan zuen agerraldi publiko batean garbi asko utzi zuen bere postura²:

ETAren kontra ezin gara neutralak izan; ETBk Ajuria Eneko Itu-
nak dioena defendatu behar du, besterik ez.

Urte batzuk beranduago, antzeko terminuak erabili zituen etxe bereko kazetari editorea den Amaia Urkiak:

ETB Ajuria Eneko Itunaren barruan mugitzen da, horixe baita guri eskatzen digutena. (*Elkarri*, 1995:16)

Honen guztiaren ondorioz, mass-media gehienetan bortizkeria politikorik ez da esistitzen baizik eta *terrorismoa* bakarrik. Ez dago preso politikorik ere. *Terrorismoa* deritzon fenomeno honen konponbidea Ajuria Eneko Itunean biltzen da. Besterik ez.

Komunikabideek bortizkeriaren inguruan egiten dituzten definizioak, zenbait kasutan, arras arbitrario eta zentzugabeak gertatzen dira. Indarkeria mota batzuk onesgarri eta onartuak diren bitartean harik eta gure kulturaren partaide izan arte (zenbait telefilm eta marrazki bizardun), beste batzuk, ordea, guztiz dira salatu beharrekoak eta kondenagarriak.

Kultura guztietan suertatu ohi da: zenbait portaera bortitzak normalizat hartu dira, nahiz eta kanpoko jendeari guztiz aberranteak iruditu (duela urte gutxira arte Lekeition bizirik zeuden antzarekin egiten zen ikuskizuna, besteak beste).

JUAN MARIA ATUTXAREN ESTRATEGIA

Juan Maria Atutxa Mendiola Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren arduradun nagusia dugu 1991ko otsailaren 9az geroztik. Garai hartan, EAJ, EA eta EE alderdiek negoziaketa luze eta korapilotsuen ondorioz, *Hiruko Gobernua* osatu zuten. Ekimen honek hilabete batzuk besterik ez zuen iraun, Gobiernu barruko tirabirek berehala zapuztu baitzuten esperientzia hura. Hala ere, Atutxa jaunak bere karguan jarraitu du urteotan guztiotan, exekutiboaren osaketa aldatu arren.

Karguaz jabetu bezain laister, Juan Maria Atutxak garbi asko utzi zituen zeintzuk ziren bere asmoak: *ilunkeria eta sekretismo oro alden du, eta, bere ordez, argitasuna jarri*³. Gehiago ere esan zuen egun horietan:

Gurea ez da inoiz ere polizia politikoa izango, nehoiz ez baita ezein partiduren esanetara egongo⁴.

Luis Maria Retolaza eta Juan Lasaren agintaldiak ahaztuarazi nahi zituen Atutxak, sailburu ohi biak ez baitziren inoiz kazetari eta mezubideen lanaz fido, ezta beraiekin ongi moldatu ere. Horrek guztiak ez zion fama ona erakarri Herrizaingo Sailari, are gutxiago aurreko urteetan izandako eskandaluetan Departamenduak erakutsitako jokabide ilun eta zatarrak (Garai-koetxearen entzunketa telefonikoa 1986an eta *kuttunkeria*-kasuak 1987an, besteak beste).

Iraganezko zama astun horietaz libro egon nahi zuen sailburu berriak. Ez zuen eragozpiderik nahi; bere agintaldiaren hasieratik bidea libre, oztoporik gabe ikusi nahi zuen. Hartarako, goitik behera aldatu zuen Departamenduaren organigrama osoa, hainbat urtetan Retolazaren *kuttunekoak* izan ziren batzuk alboratu, eta, beraien orde, bere konfidantzazko pertsonak jarritz.

Herrizaingo Sailak *look* berria eskuratu zuen. Sailburu berriaren agerpenak, bai kazetarien aurrean, baita Legebiltzarrean ere, erruz ugaldtu ziren. Bere proiektzio publikoa aparra-
ren antzera hazi zen. Gobernuako kideen artean berau zen mezubideetan presentzia gehien zuena, harik eta —zenbait momentutan— Jose Antonio Ardanza lehendakariaren beraren irudia lausotu arte.

Kazetariak ere pozak zoratzen zeuden berarekin, Lasa eta Retolazaren sekretismo hura guztiz ahantzita geratzen baitzen. Berrikerietan Atutxarengan albiste-iturri oparoa topatu zuten, beti baitzegoen prest edozein adierazpen zorrotz egiteko, are eta garratzagoa gainera mihi-puntuari jartzen zitzaiona ETA edo ENAMeko erakunderen bat baldin bazen. Aitaren batean, denak zeuden pozez gainezka: Gobernua, kazetariak eta, nola ez, Atutxa bera ere.

Juan Maria Atutxaren estrategia informatibo berria sailburuak berak bildu zuen 1993an, Euskal Herriatik urrun —Almerian— irakurri zuen diskurtso batean. 1993ko uztailaren 14an izan zen, Madrilgo Complutense Unibertsitateak Andaluzian an-

tolatu zuen udako ikastaroetan. «Informazioa eta bortizkeria» izenburua zuen mintegi hark. Bere ponentziaren izenburua, hauex: «Gobernua, Parlamentua eta komunikabideak terrorismoaren kontrako borrokan». Bertan esandakoa Euskal Herriko mezubideetan nahikoa oharkabe pasatu baldin bazen ere, niretzat, berriz, nahikoa esanguratsu gertatu da, orriok ederki ilustratzen baitute Atutxa sailburuak azken urteotan bere harreman informatiboetan erakutsi duen jokabidea.

Lehenengo eta behin, azpimarratzekoa da sailburuak berak Ajuria Eneko Itunari ematen dion garrantzi paregabea, mezuak dituen 16 orrietan lau aldiz aipatu baitzuen, beti ere *terrorismo eta intolerantziaren aurkako borrokan bitarteko ezin baliagarriago* bihurtu dela ohartarazteko. Nabaria da baita ere, *terrorismoaren kontrako* zeregin honetan Atutxak berak mezubideei ematen dien garrantzia (1993:6):

... hala herritarren eta instituzio publikoen artean komunikazioa bideratzeko, nola publiko den ororen kontrola sustatzeko, mezu-bideak elementu klabea dira gizarte demokratikoetan.

Estrategia informatiboari dagokionez, bi dira ponentzia osoan zehar nagusitzen diren irizpideok: adostasun politikoa eta *transparantzia* informatiboa. Bi ardatz hauen inguruan euskarritu zuen bere mezua. Bi ildo nagusi hauek hiru eremu desberdinetan aplikatu zituen: Gobernua ren beraren ohiko funtzionamenduan, Legebiltzarreko ekitaldietan eta harreman informatiboetan.

Aitaran batean, Juan Maria Atutxak izugarritzko presentzia lortu zuen komunikabideetan. Legebiltzarreko agerraldiei dagokienez, beraz zen jaun ta jabe; beste hainbeste gertatu zen prentsaurrako eta ekitaldi publikoekin. Bere Gobernukideek ere bekaizkeriaz begiratzen zuten, ez baitzen makala gizon honek hain tarte laburrean lortu zuen popularitatea. Euskal mezubideetan harrera ona bazuen, are eta hobeagoa zuen oraindik Espainiakoetan.

Juan Maria Atutxaren gertuko aholkulariek mezubideen dinamika ongi baino hobeto ezagutzen zutenenez, ederki asko

egokitu zuten sailburuaren mezua mass-mediaren prozedura eta tekniketara. Hartara, ahalegin berezia egin zuten komunikabideei eskaintzen zieten informazioa —ikuspuntu tekniko eta profesional aldetik— ahalik eta txukunena izan zedin. Horregatik, Herrizaingo sailburuaren ponentzian behin eta berri agertzen dira honelako balore informatiboak, edozein kazetarik albiste bat egiterakoan beretzat nahiko lituzkeenak: azkartasuna, zehaztasuna, gardentasuna, dokumentazioa, argitasuna eta jakinmina.

Ugari izan dira balore hauetan oinarriturik Atutxak berak sortarazi dituen gertakizun informatiboak. Horren erakusle, ondorengo hau: Ertzaintzak 1992an burutu zuen *Easo* operazioa. Bertan, Polizia autonomoak ETarentzat *zerga iraultzailea* biltzen omen zuten zenbait pertsonen atxiloketa lortu zuen. P reso hartutako bost pertsonen artean, baziren LABeko liberatu bat, HBko mahai nazionalakide bat eta *Egin* eta *Euskaldunon Egunkaria* kazetetan lan egiten zuten langile bana. Honek guztiak bide eman zion Herrizaingo sailburuari aipatu erakunde eta kazeta hauek *sare terroristaren partaide* zirela esateko. Herrizaingo Sailak azken xehetasuneraino planifikatu zuen *Easo* operazioak komunikabideetan izan behar zuen hedapena.

Atxiloketak gertatu bezain laister —ostegun batean— Juan Maria Atutxaren Sailak prentsagiri zabala hedatu zuen operazioaren berri emanez. Bertan, polizi-lanaren garrantzia, atzemandako pertsonen nortasuna eta beren lantokia azpimarratzeaz gainera, lau egun beranduago (hurrengo astelehenean) sailburuak berak Legebiltzarraren aurrean egingo zuen agerraldia iragartzen zen, bere kabuz eta inork eskatu gabe. Era horretan, Herrizaingo Sailak helburu bikoitza lortu zuen: informazioaren erritmoa bere mende jarri (Retolazari hainbeste atxiki zitzaion ekimen falta hura alboratuz) eta, asteleheneko agerraldiaren inguruan, ez ohiko jakinmina piztu komunikabideen artean.

Agerraldiak ez zuen hutsik egin. Juan Maria Atutxa soinu eta irudizko zintez josita azaldu zen Legebiltzarrean, edozein irati-emandegi edota telebista-kateren asmorik zomotzenak asetzeko moduko grabazioez horniturik, hain justu ere. Irudi haietan atxilotutako pertsonak azaltzen ziren *zerga iraultzai-*

learen inguruko kobraketa-lanak burutzen. Irudiok izugarriko hedadura izan zuten mezubide guztietan, idatzizkoetan zein ikus-entzunezkoetan. Lehendabiziko albistea izan zen albistegi guztietan. Beste hainbeste gertatu zen egunkariekin.

Juan Maria Atutxa eta bere kolaboratzaileak pozez gainezka zeuden. Hurrengo egunetan Herrizaingo Sailak 64 mezubide desberdinetako elkarrizketa-eskaera atenditu behar izan zituen (Euskal Herrikoak, espainiarrak zein atzerrikoak)⁵, artean hogeitabi telebista-katea, batzuk Euskal Herritik oso urrun dauden herrialdetakoak, Australiakoa kasu.

Atutxak prestatutako hedapen informatiboak arrakasta erabatekoa izan zuen. Iritzi publikoan izandako inpaktua oso handia izateaz gainera —irudien ez-ohikotasuna lagun—, bideratutako mezua interferentzia handiegirik gabe ailegatu zen herritarrengana. *Easo* operazioak Juan Maria Atutxa *mass-medien* erabiltzaile aparta legez kontsaktatu zuen.

Aipatu bezala, Herrizaingo sailburuak ederki ezagutzen dituen albistearen baloreak, inork baino hobeto baitaki nolakoa izan behar den gertaera bat lehen mailako berria bihurtzeko. Balore horietako bat ikusgarritasuna da, batik bat telebistan. Zera esan nahi du honek: albiste izan daitezkeen bi gertaera desberdinen aurrean, kazetariak beti nahiago dituztela irudi erakargariez hornituta datozenak halako ezaugarriarik ez daukatena baino.

Atutxak ongi asko erabili zuen balore hau 1994an, Ertzaintzaren *Bizkaia komando*-ko ustezko partaideak preso hartu zituztean. Orduan, sailburuaren kontrako atentatu baten berri zabaldu zuen Herrizaingo Sailak. Gertaerak berez bazuen nahikoa arrazoi albiste bihurtzeko, baina Juan Maria Atutxak *efektu bereziak* nahi zituen. Ekintzaile armatuen *koldarkeria* eta *gaiztakeria* grafikoki noraino iristen zen erakusteko, Atutxak bere kontrako atentatuaren antzezpena antolatu zuen komunikabideen aurrean. Bertan ziren hainbat telebistako kamara, irratimikrofono ugari eta argazkilari dexente ere. Beraien begien aurrean, Ertzaintzaren artzilariek bonba-auto bat lehertarazi zuten, honela izan behar omen zen ETA erakundeak Atutxa jau-

nari prestatu zion atentatua. Esan gabe doa, egun hartan, irudi hura —kotxea sutan zegoela— lehendabiziko albistea izan zela albistegi guztietan. Sailburuak lortua zuen bere helburua.

Beste adibide bat. 1996an ETAk Montxo Doral ertzaina hil egin zuen bere kotxe-azpian ezarri zion lehergailu batek eztanda egin ondoren. Atentatua oso gogorra izan zen bai Ertzaintzarentzat, baita Atutxarentzat ere. ETBk zuzenean enetransmititu zuen hildako ertzainaren aldeko hileta-elizkizuna. Bertan bizi izandako eszena hunkigarriak teleikusleek ere ikusi zituzten. Horien artean, guztiz zirrargarriak izan ziren hildako ertzainaren semearenak. 11 urteko mutilak, aurpegiera lasai erakutsi arren, ezin zion eutsi malko-isurketari. Masailatik behera zetozen negar-arpulo haiek audientziaren bihotzarekin egin zuten topo zuzen-zuzenean gainera. Berez irudi haiek zeukaten inpaktu dramatikoa ikaragarria zen, edonor hunkitzeko modukoa. Bortizkeria politikoaren aurkako estrategian, enetransmisio hura politikarien ohiko hitz aspertuak baino askoz eraginkorragoa izan zen. Dolumin eta sentikortasun berbera izango zuten Lasa eta Zabalaren senideek. Baina beraien aldeko hileta-elizkizuna ez zuten zuzenean eman ETBn, ezta beste inon ere.

Juan Maria Atutxak Almerian irakurritako diskurtsoan beste zerbait utzi zuen agerian, ezker abertzalearekiko duen fobia ikaragarria, mezu osoa sektore honen kontrako aurriritziz jositako baitago. Hona hemen, harri bitxiok:

HBren baitan era guztietako pertsonak bizi dira. Tartean dira esaterako, izaera guztiz faxista duten zenbait KASeko buruzagi, gaur egungo Mahai Nazionalaren kontrola daramaten berberak; tartean dira ere, diktadura garaian indarkeriaren hatzaparretan ktramilatuta ziren abertzale zaharrak; tartean dira ere, beldurrak eraginda, hainbat presoren senitartekoak; baita ere, gizartean bertan integratu ezin eta giza talde baten bila doazen hainbat pertsona; bertan dira ere, ikarak behartuta, eta ez konbentzimenduak, bere atxikimendu guztiz mugiezina erakusten duten gizakiak, baita bandalkeria miresten duten pertsonak ere. Beraien infanteria beraz, jendilaje horren artean bilatzen dute: futboleko «ultrak» eta «kaskamotzen» artean; hau da, beste hainbat lurraldetan akatuaten duten giza taldeak. (7. orr.)

Egin egunkariak egunero marrazten duen munduak ez du zeri-kusirik gainerako euskal herritarrok gure bizimodu arruntean jasotzen dugun pertzepzioarekin. Baina bi mundu horien arteko tupusketak gertatzen dira, gero eta gehiagotan gainera. Horregatik Herri Batasunean bertan, gero eta herexe gehiago dira. (8. orr.)

...heziketa eskasa edota nulua duten gazteak dira, bortizkeriazaleak, alkohola eta bestelako drogak maite dituzten mutil eta neskak... (13. orr.)

...ez dute inolako arazorik paperontzi nahiz autobusak erretzeko, beraiek bailiren euskal presoen dispertsioa ahalbideratu dutenak edota Hiesak jota hil diren ekintzaileen heriotzaren eragileak. (14. orr.)

KASeko buruzagiek beren koordinadora nazional-sozialista dela esaten dute. Tolerantzia, elkarbizitza edota giza eskubideen defentsarekiko duten errespetoa, bere garaian beste nazional-sozialista handia izan zen Adolf Hitlerrek berak balore horiekiko izan zuen begikotasunaren parekoa da. Faxistak dira, besterik ez. (...) Heriotza-zigorraren aldeko jarraitzaile sutsu diren hauek modaz gaindi dagoen epika zaharkitua maite dute... (15. orr.)

...nazien antzera, gizaki hauek *Egin* egunkarian dute beren *Mein Kampf* (Nire borroka) obraren bertsio egunerokoa... (16. orr.)

Indarkeria politikoaren trataera informatiboa aztertzerakoan jarrera kontraterrorista nolatan gauzatu den azaldu dugu. Aipatu pasarteok jokabide horren adierazle zuzenak dira, berauetan garbi asko geratzen baita *terroristen ideologia suntsitzea eta beraien kontraesanak agerian uztea* dela helburu nagusia.

PORTAERA ETIKOEN BEHARRA

Kazetariak eta komunikabideak bitartekariez gain, aktoreak ere badira. Bai Euskal Herrian, bai Jugoslavia ohian, baita Singapurren ere. Mezubideak ez dira kontalari hutsak, errealtate arreraietan, egunez egun, esku hartzen duten aktoreak baizik. Antzezle hauei, premiazkoa zaie betetzen duten funtzio horretaz ohartzea, lehenbailehen gainera, euskal gatazkan bete dezaketen zeregina garrantzi handikoa izan baitaiteke.

Jose Elorrieta ELAko idazkari nagusiak zera esan zuen 1995ean auzi honen inguruan egin zioten elkarrizketa batean⁶:

Komunikabideek erantzukizun handia dute gatazka politikoa eta nire ustez, zenbait mezubide ahalmen hori desleialtasun handiz erabiltzen ari dira.

Gogora ekartzen zuen ere, 1995ean Santanderren izandako kazetarien nazioarteko kongresu batean, Serbia eta Bosniako albistariak bat zetozela ondorengo hau esaterakoan:

Klase periodistikoa Haga-ko Auzitegira eraman beharko genuke gerrako delituak egiteagatik.

Aldarrikapenok oharkabe pasa ziren Euskadiko komunikabideetan.

Nazioarte mailan sinatu diren zenbait hitzarmenek ere azpimarratu dute komunikabideek bakegintzan duten ardura nagusi hau. 1970ean Unescok burutu zuen Biltzar Orokorrean adibidez, argi asko utzi zuen masa-komunikabide erraldoiek bakebideak bilatzen eta sendotzen egin dezaketen lana handia dela. 4.301. zenbakia daraman xedapenean, beste hainbeste esaten zen, mezubideek herri desberdinen arteko elkar-ulertze edota nazioarteko lankidetzaz egin dezaketen lanari buruz.

Alde horretatik, kazetariak beraiek duten datu-irrika asegaitez hori, bakebideak exijitzen duen sotiltasunez uztartu behar dute, ahal duten neurrian elkarrizketaren kultura garatuz, distentzio-keinuak sortaraziz eta gatazkan zehar mamitu diren hainbat topiko oker gaingitze bidean jarritz.

Euskal gatazkaren aurrean, Euskal Herrian dauden komunikabideek alde batera edo bestera jokatu dute beti, bakoitzak duen hartzailagoari so eginez, zein baino zein, nor bere aldetik. Mezubide gehienek gatazkan parte hartzen duen alde bakar bat ikusten dute (Estatuaren legitimitatea), horretarako balore demokratikoen defentsa edota gehiengoari zor zaion errespetoa argudiatuz. Beste bakan batzuek berriz, besteen alde jokatzeko dute —Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua (ENAM) deritzona— Euskal Herriak dituen eskubide his-

torikoek behar duten errespetoa arrazoibide aurkeztuz. Egerra honi, gatazkak bizi duen luzapenak ez dio batere mesederik egin, jarrerak gero eta gehiago polaritzen ari baitira eta, dagoeneko, enkistamendu-seinale kezkarriak agertu dira.

Komunikabideek egunero proiektatzen duten errealtateari kasu eginez, ENAM gaur egun dogmatismo, intolerantzia, terrorismo eta ilunkeriaren sinonimoa litzateke. Espektro politiko guztia honela laburbiltzen da: *bloke demokratikoa eta bi-lentoak*. Ez dago ñabardurentzako aukerarik.

ENAMen inguruan dauden komunikabideentzat berriz, ETAREN jarduerak Estatuaren indarkerian du arrazoi eta justifikaziobide. Gogor salatzen da beste komunikabideen lana *espainiar Estatuak dituen gerrako tresnak* bailiren (J. Iratzar, 1995). Komunikabide gehienek ezartzen duten dikotomia faltsuari aurre egin nahian, ENAMeko zenbait erakundek hankasartze galantak egin dituzte nire ustez, beren kritikak tokiz kanpo atereaz (*«los asesinos llevan lazo azul»* titulua zuen kartela) eta mehatxuak bihurtuz (*«guzti honegatik ordaindu beharko dute»*).

Batzuek zein besteek nazka-nazka eginda egoteko eskubidea dutela argudiatzen dute. Batzuek gehiengoari zor zaion errespetoa aldarrikatzen dute. Besteek berriz, Euskal Herriak dituen eskubideen errespetoa. Horren aurrean, hiritarrak mutu, noraezean, harrituta ere sentitzen dira, egunak aurrera doazela ikusirik. Etsita ere agertu dira, hemen inork ez duela ezer mugitzen sentsazioarekin.

Euskal Herrian komunikabide guztiek badute beste menpekotasun nabaria: beren hartzailagoari zor dioten obediencia. Nork bere etxea elikatu behar du lehenengo, nork bere audientziari begira egon behar du, haren esanetan idatzi eta hitz egin behar da, haren aginduetara egituratu bere mezua.

Bestalde, ezin da ahaztu euskal kazetarigoa milatik gora profesionalek osatzen duten multzo zabala, heterogeneo eta anitza dela, *euskal gatazka* deitutako auziaren aurrean nahi-taez jarrera desberdinak dituen kolektiboa.

Euskal kazetarien kolektiboa lurtarra da, mundu honetakoa. Mundu zabalean hedatzen ari diren sentsazio, iritzi eta usteek modu batera zein bestera, badute eraginik kazetariengan ere. Iritzi-korronte horiek *euskal gatazka* deitutako auzia nolabait baldintzatzen dute. Euskal gizartean gertatzen den legez, *euskal gatazka* deitutako auziak nekea, etsipena eta ezinegona sortarazten du euskal kazetariengan ere.

Gainera, lan-merkatuan nozitzen den behin-behinekotasunak isla zuzena du hemen ere. Kazetagintzan ohikoa den lan-jardun amaigabeei, zera gaineratu behar zaizkie: *zabor-kontratuak* sortzen duten prekarietatea; enpresa informatiboek merkatuan lehiatzeko duten beharra eta berorrek sortarazten dituen dinamikak eta beharrianak; agintari politiko, etxe-iragarlari eta gizarte-zein ekonomi-eragileen presioak, xantaiak eta mehatxuak. Eta hori guztia lanbide estresagarrietakoa den batean. Horri guztiari, *euskal gatazka* deitutako auziak sortarazten dituen jarrera polarizatuak, presioak, erreakzioak, sindura-bilketak etab. pilatzen badizkiogu ateratzen zaigun koktela guztiz lehergarria da. Honegatik guztiagatik, diogu euskal kazetarien kolektiboa eskizofreniatik gertu bizi den taldea dela.

Ez da harritzekoa beraz, erredakzio-gelatan motibazioa aspaldi galdutako faktorea izatea, ezta eszeptizismoa eta jarrera ihesgarriak nagusi izatea ere.

Argigarriak oso dira, zentzu honetan, EITBko langile batek barne-txosten batean adierazitako kezkek eta zalantzak (M. Atxaga, 1991:47):

Kaotiko xamarra bilakatu den egoera edo egitura bati zorretan, indibidualismorik makurrenean erorita dago erredakzioa. Elkar eza-gutzaren eta kritikaren iturritik ez dugu edan inoiz; talde-lanik egin ez denaren seinale. Elkarri begira, elkarrekin eta elkarrentzat lan egin beharrean, elkar inkomunikatutako gelak, orduak eta programak sortu ditugu. Norbera bere txoko eta bere programatxoaren arduradun da eta programazioa bera errealitate honen isla da.

Langile hau EITBko giroaz ari da, baina neurri handi batean, hainbat komunikabidetan ikus daiteke gaur egun.

Kazetagintzan sarritan bizi den erritmo estresagarriak ez ditu hausnarketabideak errazten, are gutxiago kontu hauei guztiei buruz. Baina euskal kazetarigoak premiazkoa du gogoeta eta etena.

Bortizkeria politikoaren aurrean, masa-hedabideek etika eta profesionaltasunamarabera jokatu behar dute. Ez isiltasunaren estrategia, ezta tratamendu kontraterrorista ere, ez dira eraginkorrak fenomeno honekin amaitzeko hiritarren inteligentzia gutxiesteaz gainera, etikaren kontrakoak eta informazio-eskubidearen aurkakoak direlako.

Jokabiderik etikoena informazio txukuna eta toxikatu gabea ematea da, aurriritirik gabe, mugarik gabe, ezer ezkutatu gabe. Horixe baita manipulazioaren kontrako antidotorik onena: informazioa bera, besterik ez. Edozein gertaera informatibo tratatzeko baliagarri dena, aplikagarri izan behar da auzi honetan ere. *Euskal gatazka* deitutako auzia ez da, ezin da izan, salbuespena. Kazetariak bai Euskal Herrian, baita Zeelanda Berrian ere, garbi eduki behar du zein den bere lehendabiziko konpromezua: egia zor zaion errespetua, jakinda gainera egia hori sarritan ez dela uniforme, baizik eta zabala, multiformea eta anitza.

1. Ikus. *Le Monde diplomatique*, 6. zenbakia, 20. orr. (gaztelarazko edizioa), 1996ko apirila.
2. Herri Batasunak antolatunak, 1991ko urrian «Gizartea eta komunikabideak Euskal Herrian» lelopean, jardunaldi batzuk izan ziren Gasteizen. Hainbat kazetari, irakasle eta pertsonen artean, garai hartan ETBko zuzendaria zena egon zen.
3. *Deia*, 1991/II/9, 7. orr.
4. *Diario Vasco*, 1991/II/17, 10. orr.
5. Datu hau Atutxaren beraren diskurtsotik aterea da.
6. *Elkarri*, 6. zenbakia, maiatza 1995, Tolosa, 19. orr.

Bibliografia

ATUTXA, Juan María, *Gobierno, Parlamento y medios de comunicación en la lucha contra el terrorismo*, Complutense-ko Udako ikastaroak, Almería, 1993.

ATXAGA, Mikel, «Euskal kazetariaren arazoak» in Zenbaiten artean, *Euskal kazetarien jardunaldiak*, Eusko Jaurlaritza, 1991, Gasteiz.

ELKARRI, 6. zenbakia, maiatza 1995, Tolosa.

HALLORAN, J. *Demonstrations and communication: a case study*, Baltimore, Penguin, EE.BB., 1970.

JOXE, Alain, «El terrorismo: un concepto en el que cabe todo», in *Le Monde diplomatique*, 6. zenb. 1996 (apirila).

RODRIGO, Miquel, *Los medios de comunicación ante el terrorismo*, Icaria, Bartzelona, 1991.

SORIA, Carlos (ed.), *Prensa, paz, violencia y terrorismo. La crisis de credibilidad de los informadores*, Eunsa, Iruña, 1987.

GUNEN GURPILEAN

ALBERTO BARANDIARAN

XALBADOR GABE
438 BISITARI
ZERGATIK EZ ARALAR?
GARAI GOGORRAK DATOZ

HARKAITZ CANO

NON: HEMEN, NOIZ: GAUR
FEED BACK (ATZERAELIKADURA)
HAUSNARKETARAKO GARAIA
IGURTZI NAZAZU LIVE SHOW

IMANOL AGIRRE

EUSKAL BLADE RUNNER
TINKO
METRO GEHIAGO
THE END-IK EZ

KIKE AMONARRIZ

EUSKALGINTZA UNIBERTSO BILAKATU ZENEKOA
II. SOZIOLINGUISTIKA INKESTA
MUNDIALIZAZIOA ETA EUSKAL MUSIKAREN ESPORTAZIOA

KULTURA
LITERATURA
IKUSKIZUNAK
SOZIOLINGUISTIKA

KULTURA

ALBERTO BARANDIARAN

XALBADOR GABE

Etxean eginiko kafeak eta patxaranak ematen duten konplizitateaz entzun nion aspaldixko txapelketa utzi nahi zuela, molde zaharreko bertsolariei estima handirik ez zietela, eta bera bortxaz joaten zela beti Nafarroako lehiara. «Ni, beti bortxaz» esan zuen, duda egin gabe. Iluntzeko bederatzietan geldituak ginen bere etxean, Urepeleko Pokomotzenean, eta beranduago iritsi zen hitzordura, neguko bukaerakoak beti izaten baitira garai txarrak artzaintzat, bildotsekin eta esnearekin eta. Iritsi, afaldu eta solasaldi ederra izan genuen gero ardiez, Ameriketaz, Urepelez, bertsolaritzaz, euskaltzaletasunaz, Euskal Herriaz.

Lehen bertsoa bere arreba baten jaunartzean bota zuen ordu erdia pentsatu ondoren eta aitari eta garai hartan Iparraldean bertsolariak biltzea beste kezkarik ez zuen Teodoro Hermandorenari alimalezko poza eman zien. Mattin eta Xalbador bikote mitikoari segida eman ziezaiokeena izanen ote zen Mixel? Ez du inoiz eduki bi koblakari paregabe hauen maila, bertsolari baino lehen artzaina izan baita beti Nafarroako Bertsolari Txapelketan aurten parte ez hartzea deliberatu duen Mixel Aire Xalbador II.

Irakurrita entzunda baino traza itxurosoagoa hartzen zuen bere bertsokeran, bere izakeran, abesteko doinu goratu eta goxo horretan askok ikusi nahi izan dute euskal lirikorik onenetakoa izan den aitaren arrastoa. «Horretarako, halabaina, parrandazale izan behar», aitortzen zuen berak. Hura bertsolaria, plazetan eta tabernetan ezin goxoago zegoena, eta hau artzaina. «Ni ardiekin nauzu gustura, hura da nere mundua», esaten zuen patxarana zerbitzatzen zuen bitartean. Horregatik itzuli zen baxenabar askorendako betirako aberri bihurtu zen Ameriketatik —han hau buruan—, horregatik bertsolari ona ezin izan. Horregatik utzi du txapelketa, urte askotan parte hartzearen komenentziaz sinistaraztea lortu badute ere. Horregatik bertso-festa den txapelketaren garaian ariko da ardiak jaisten, arkumeak zaintzen eta Sorogaingo belardietan lanean —kantuz, bertsoz?—.

Hankamotz gelditu da txapelketa. Manolo Arozenak esan zuen behin Xalbadorrek utziz gero bertsolaritza desagertuko zela Iparraldean. Bazekien goizuetarrak zer esaten zuen, ez baitute bestaldekoek plazan aritzeko beste aukerarik. Alkhat eta Ezpondak ere utzi dute, Xanpunek ez du parte hartzen, ezta Urko Atxutegik ere. Baina urteetan lana utzi eta kilometro asko egin behar izan ditu hiru aldiz txapelduna izan denak bere bertsoak gaizki ulertuak izan diren sentsazioarekin ateratzeko gero.

Bere herriaren geroaz arduratuta bizi zen artzain baten irudia utzi zigun etxeko atarian agurtu eta berehala. Bere txokoa eta bere gauzak horrenbeste maiteko dituen pertsona nekez aurki daitekeen sentsazioa. Hurrengo bertso-saioan elkarri adio

esango geniola hitz eman genuen, baina aukera izan nuenean horren present izan nuen berarekin izaniko solasaldia, esan zidanean bertsoan ari zela ere ardiekin zegoela bere gogoia, ez nintzela ausartu.

Gau hartan, etxera bueltan, jada Nafarroan, bi orein atera ziren errepidera Kintotik. Izututa, berehala ezkutatu ziren baso elurtuan. □

438 BISITARI

Pablo Sarasate Museoak 438 bisitari izan zituen iaz. Hori xe. Ez «laurehun inguru» edo «ia bostehun», ez. 438. Jubilatzen denean toki aukeratuan paratu beharko zaio plaka kontaketa horren zehatz burutu duen funtzionarioari, merezi du eta. Bere bizitzan gauza guztiak horren zehatz egiten baldin baditu, gizon latza izango da seguruenik, akats gutxi egiten dituen horietakoa.

Funtzionarioak zenbatu zituen bere koadernoan hilabete bakoitzean bibolinjole ospetsuaren omenez paratutako gela ikustera hurbildu direnen kopuruak. Abuztuan lau izan ziren. Ezin jakin egunero ere desglosatuta izango dituen bisitak, horren berririk ez baitu eman Iruñeko Udalak, bere artxibategi zaharrean Zapateado piezaren egileari tokia egin zion erakundeak.

Funtzionarioa kudeatzaile aparta izan daitekeela ez du inork dudan jarriko, baina arduradunak gogoeta egin beharrean daudela iruditzen zait, zenbakiok trufatzekoak dirudite eta. Zerk egiten du huts Pablo Sarasate Museoan? Nola daiteke horren erakargarritasun eskasa? Guggenheim ez izanda ere, musikariaren bibolinak, partiturak, jantziak, bere garaiko dokumentu eta oroitzapenak, ez al dira 438 —funtzionarioak zenbatu ditu urte osoan zehar— baino gehiago hurbilarazteko modukoak? Zergatik «Espainiako Iparralde bisitatu hamar egunetan mila liberatan/110 libratan/173 dolarretan» paketearen barruan Iruñea azken egunerako uzten duten turismo-saltzaileek *running bulls* pasatzen diren karririk dituzte helburu

bakarra? Izango da Pablo Sarasaterena ikusi ahal izateko eskaera idatzia egin behar dela? Izango ote tradizio eskasa —Nafarroako Museoa dagoenik ere iruindar askok ez dakite—? Izango ote honen zuzendaria Historiaurrean eta indusketetan aditua dela —aztertu, aztertu, gorde, gorde, ezkutatu, ezkutatu—? Izango da inori ez zaiola pitorik ere interesatzen joan den mendeko konpositore baten paper horituak eta bibolin desafinatuak? Hala bada, itxi eta jarri funtzionario aparta beste toki batean mesedez. Baina ideiak baldin badira faltan ditugunak, interesik ez bada antzematen museoak zentru biziak eta erakargarriak egiteko, oraingo hilobien partez, inguruko adibideak begiratu, arren —ez da lepoa gehiegi luzatu behar: hor daude San Telmo, Lizarrako Gustavo de Maeztu, Gasteizko Museoa...—.

ZERGATIK EZ ARALAR?

Noizbait Abiadura Handiko Trena gurean egiten bada —noizbait diot proiektu erraldoi hauekin beti eduki behar delako duda arrazoizko deitzen den horren puxka bat—, Aralar zulatuta egin beharko litzateke Iruñera ere iritsiko bada. Eta, ikusita Nafarroako Diputazioan txiribitak ateratzen direla aspaldi honetan herrilaneekin, nik duda gutxi dut zulatu behar den guttia zulatuko dela Europako garraiobideen sare ahalguztiduna izan behar den horretan sartu ahal izateko. Aralar zulatu, arraio. Trikuharrien, San Migelen eta Balerdiko Aralar. Ez da txantxa.

Tindaya mendia bere etxeko leihotik ikusten duen kanariar batek esan zion lehengoan Eduardo Txillidari zulatzeke nahi bazuen bere herriko mendia, uzteko haiei guantxeen az-tarnak eta mendi magikoa milaka urtetan zehar egon diren bezala. Eskultorea kexu izan da ahal izan duen guztietan bere proiektua ezagutu gabe entzun behar izan dituen kritikengatik, baina kanariarrei ere entzun behar zaiela ez du inork zalantzan jarriko.

Proiektu ederra da donostiarrarena, eginez gero ederrena izango dena. Berari ere hala iruditzen zaio, eta konbentzi-

menu horrek are erakargarriago egiten du eskultura erraldoia, lan handiak eta maila gorenekoak utzi dituelako bazter guztietan. Ilargia, horizontea eta itsasoa dena batera mendi baten baitatik ikusi ahal izatea ederra izan behar duelako nahitanahiez. Baina egia da ere lan bat, publikoa bada bederen, egokitu behar zaiola hala inguru fisikoari nola sozialari, duela asko hasitako koadroaren azkenaurreko pintzelada egokia behar den bezala emaitza armoniatsua lortu nahi bada. Ez dirudi hori denik Tindayaren kasua.

Txillidak urteak eman ditu mendiaren bila Europan zehar, eta Fuerteventurako irlan aurkitu du azkenean. Toki magiko horien artean ez dago Euskal Herrikorik. Zergatik ez hemen? Zergatik ez geurea egin begiratoki eta amesleku zoragarria izango zena? Zergatik ez Aralar? Hemen ez ditugu, Tenerifen bezala, mendia jaten ari diren harrobiak, baina bai desbideratu beharreko trenak. Aztertzekoa dateke: Mailoak, kasurako, ikusgarriak izango dira barrutik. Ez 200 km/orduko igarotzen den tren baten leihotik, jakina, baina bai hiltbetaren argiaz zurututako espazio erraldoitik.□

GARAI GOGORRAK DATOZ

Ale hau karrikaratzen denerako aurkeztuta izango da jada William Christian antropologo estatubatuarrak Ezkioko agerkundeei buruz ingelesez idatzirik liburuaren gaztelaniazko itzulpena. Egilearen asmoa Ezkion bertan aurkeztea zen, Lourdes edo Fatima txiki utzi zituen sukar mistikoa 1931ko udan bizi zuen tokian bertan. Hamabi urte eman ditu Christianek gaia aztartzen, artxiboak miatzen eta ehundaka lekukorekin hitz egiten, eta nahiko behin-betikoa ematen du lanak: bereziki Goierri eta Sakana zorabiatu zuen lurrikara erlijiosoak ez du parerik izan garai modernoetan. Gure herrian antzeko zerbait aurkitzeko XV. eta XVII. mende bitarteko sorginen garaietara jo beharko genuke seguruenik.

Liburua dokumentu paregabea da ezagutzeko garai hura ezezik, herri honen muinean dagoen erlijiotasunaren klabe

LITERATURA

HARKAITZ CANO

NON: HEMEN, NOIZ: GAUR

Urri hasi dugu urtea, urri. Sator izkribatzailea martxoaren erdialdean ari da lerro hauek idazten, eta orain artean, Xabier Mendigurenen *Berriro igo nauzu* nobela da argitaratu den liburu berri apurretarikoa. Durangoren ondorengo biharamun ikaragarria dute itxuraz, argitaletxeek.

Bada dioenik gertu eta bizirik dauden gauzei buruz hitz egitea dela edozein literaturaren heldutasunaren seinale. Euskal literaturari abarkei begira geratu izana leporatu izan zaio arestian. Horren adibide genuen kasu, euskal literaturak, duela gutxi arte, ETA ren inguruan kokaturiko istoriorik apenas ez izatea (*Ehun metro* eta beste oasiren bat salbu), ulergarria alde batetik, ausardia eskatzen duelako eta gaia ez delako edonondik aise heltzekoa, baina ulertezina ere bai bestetik, generoko literatura asko idatzi baitaiteke era honetako gai edo gutxienez era honetako atmosfera bat ardatz hartuta. Azken urteotan, bi sonatuenak besterik ez aipatzearren, *Gizona bere bakardadean* eta *Hamaika pauso* bezalako nobelak argitaratu dira hutsune horiek —neurri batean bederen— betez. Oraingoan, Xabier Mendiguren izan da angelu oso desberdin batetik heldu diona gaiari (edo akaso atmosferaz baliatu dela esan beharko genuke?): *Berriro igo nauzu* liburuan, Mendigurenek —nondik begiratzen den— oso istorio tristea edo oso istorio komikoa izan daitekeena idatzi du. Abiapuntua orijinala denik ezin uka: hemezortzi urteko kondena bete ondorenean, preso bat libre uzten dute Cadizen eta etxekoei berri emateko deitu beharrean, auto bat hartu eta Euskal Herrirantz abiatzen da, besterik gabe, etxean azaldu asmoz. Jaioterrirako bidea uste baino korapilotsuagoa izango da ordea: bi egunetik gora iraungo du Seat 127 batean eginiko bidaiak, tartean, mila ika-mika gertatzen zaizkiola, Euskal Herrian, bahitua izan deneko us-

tea zabaldu den bitartean. Liburu honetatik ordea, politikoak ez diren irakurketak egitea erabat posible da (agian horiek dira gainera interesgarrienak, presoaren giza dimentsioaren alorrekoak), eleberririk baduelarik politikaz haraindira doan amasa eta zabalera bat. Ez da gartzelari buruzko nobela bat, bere leku naturalean lekuz kanpo sentitzen den pertsona baten istorioa baizik.

Eleberriaran egituratzeari dagokionez, bitxia da nola liburuaren azken orrialdeetan erabateko tonu-aldaketa ematen den. Arestiko isuri komikoa eten egiten da eta presoaren kontraesan ideologiko eta barne-borrokak agerian uzten ditu, Txindokin gora doala, bergizarteratzearen bidea hautatu zuen kide ohi batekin mantentzen duen elkarrizketa luze batek. Bitxia, esan dudana bezala, bukaerako pasarte honek liburuaren aurreko orrialdeekin duen kontrastea.

Aipatuaz gain, inon erreferentziatuko ez diren liburuak ere argitaratu dira tartean-tartean. Liburudendatan brujularekin topatu behar izaten diren horietakoak: hala nola, *Pasaia Hiria* lehiaketako irabazleen poemarioak biltzen dituen liburuak: Iñigo Iruetagoiena (*Denboraren memorian*) eta Mirari García de Cortázar (*Oroimen bizi eta margulduak*), lehen saria eta aipamena, hurrenez hurren, Bermingham argitaletxearen eskutik argitara emanak. □

FEED BACK (ATZERAELIKADURA)

Basamortu garaiei ere beren etekina ateratzen jakin behar da ordea, eta sasoi egokia dateke hau, atzeratutako liburuak berreskuratu eta betazaletan tratatuta geratu, edota, behin eta berriz, arrazoi zehazgaitzak medio mesanotxeko liburu pilaren azpialdean eduki dugun liburu hura irakurtzeko. Ez didazu esango zu ere nagikeria puska batek erasaten ez zaituenik klasikoak irakurtzean. Ez didazu esango halaber, Juan Bautista Agirre ren *Arpoi baten eran* liburuak, mesanotxeko liburu pilaren behealdera kondenatu ez zenuenik. Eta ez didazu ukatuko, hirugarrenez, hizki handi samarra zuelako hasi zinela

hura irakurtzen, gainerako liburu-jatenak ahitu zitzaizkizunean. Eta zelako ezustea, klasiko bat gustura irakurtzen ari zirena eta irakurketa atsegina egiten zitzaizula onartu behar izan zenuenean. Kezkatu egingo zinen akaso, zahartzen ari ote zinen edo... Baina ez da harritzekoa. Erabat irakurgarriak dira Klasikoak Alberdanian bildumak orain arte eman dituen emaitza biak (jada aipatuaren aurretik argitaratua izan zen Iztuetaren *Ez direlako aketsak*, biak ere Inazio Mujika Iraolak hautatu eta prestatuak). Horrelakoak irakurrita edonor adiskidetzen da klasikoekin: ez dira filologoentzako liburuak, ahalik eta euskararik batuenean paratzen zaizkigu testuak, eta beraz, zailtasunik gabe bereganatzen ditugu klasikoen estilo samur, kontakera ñabartu eta istorio anitzak. Gainera, liburuek hiztegitxo bat ere badute azken orrialdeetan, ezezagunak gerta dakizkigukeen hitz haien esanahia jasoz. Ene aburuz, lehen aldiz, euskal klasikoak publiko zabal batengana heltzeko bitartekoak jarri dira, liburuok nekez ailegatuko diren arren sekula *best-seller* izatera.

Atzerritik etorriagatik, Euskal Herriarekin lotura bereziak izan zituen beste klasiko bat Victor Hugo dugu. Eta hain zuzen ere, Iñaki Azkunek euskaratu duen eta bostehun orrialdetik gora dituen Victor Hugoren *Parisko Andre Maria*, izan da azken asteotako itzulpenik sonatuena. Ez da harritzekoa, bestalde, aspaldian euskaraz irakurtzen ditugun libururik onentsuenak itzulpenen bidez heltzen zaizkigun haiek dira-eta usualki: Victor Hugoren honi, berriki euskaratuak izan diren Robert Bloch, Roald Dahl, Joseph Conrad, John Steinbeck edota Ignacio Martínez de Pisón bezalako autoreak gehitu behar zaizkio. Izan ere, egin dezagun kontu, John Irving-en *Besteen ametsak* bezalako liburu baten irakurketak ezin du irakurlea indiferente laga. Halako itzulpenek, mesede besterik ez digute egiten, euskal idazleek ere, beren buruei gero eta gehiago exijitzea baita- kar itzulpenen maila ikusita masailgorrituko ez bagara. Idazle batek baino gehiagok onartu du, horrelako itzulpenak irakur-tzeak bere idazteko eran izan duen eragina, batez ere hizkuntza- ren zehaztasunari begira. □

HAUSNARKETARAKO GARAIA

Moldiztegiatiko labeetatik atera denari behatuz gero, urte hasiera hau gehiago izan da hausnarketarako kreaiziorako baino. Literaturatik ezer gutxi, eta literaturaren faltan, hausnarketa eta teorizazioa. Ez da gurea bereziki azterketa- eta kritika-saioretan aberatsa den literatura bat, baina saiakeraren unibertsoa den puzzle ikaragarri horretan ere, lantzean behin norbaitek jartzen du han-hemen piezaren bat, ia beti aurreko pieza jarri zuten lekutik aparte antzean (edo okerragoa dena: aurreko piezaren gainean); dena dela, bada zerbaite, puzzleko arzakian zein irudi ageri den oraindik ez badakigu ere. Puzzle horretan, Jon Kortazarren *Euskal literaturaren historia txikia: ahozkoa eta klasikoa* eta aipatu autoreak Sebastian García Trujillo eta Amaia Iturbiderekin batera osaturiko Juan Mari Lekuonaren poetikaren aztertzaile den *Leiho-oihalen mugetan* ditugu aipagarri, Ereinek argitaratuak Saiopaperak sailean. Teorizazioa eta puzzleak ere beharrezkoak direlako.

Osterantzean, hilabeteotako sorkuntza-lan urrien panorama ikusita, argialetxeak irakurlegoarekin haserre antzera ote dauden ere pentsa lezake edonork. Ez dakit, susmoa, literatura argitaratzeari uko egin ote dioten, oasiak oasi. Edo beharbada, besterik gabe, beren artilleria guztia apirileko liburu-egunerako gordetzen ariko dira; finean, negozioa, negozioa delako. Eta oraindik Shakespeare, Cervantes, egun fetitxe eta larrosa gorriengan sinesten dutelako. □

IGURTZI NAZAZU LIVE SHOW

Argitarapenei dagokienez urte hasiera betizu samar joan bada ere, jendaurreko literatur saiorik ez da bazterretan falta izan, eta zuzeneko emanaldiek argialetxeetako moldiztegien geldialdiak eragindako hutsunea nolabait bete dutela esan daiteke. Horren lekuko ditugu adibidez, Mikel Markez abeslariak, Joxe Mari Carrere ipuin-kontalariak eta Asier Serrano poetak ia urtebetez han eta hemen eskaini duten *Igurtzi nazazu berriro, laztana* izeneko emanaldi erotiko ausarta, literatura eta musika

uztartuz, eszenifikazio single baina zaindu batekin. Jendeak oso harrera ona egin bide dio ikuskizunari, ikus-entzule gehiago bildu ei delarik oro har Bizkaia aldean burutu emanaldietara Gipuzkoan emandakoetara baino (ezin aipatu gabe utzi Gasteizen berrehun lagunetik gora bildu zirena; marka itzela, emanaldiak kutsu literarioa duela kontuan hartzen badugu). Egia esan, sator izkribatzaile apal hau aspaldian hasi zen sumatzen Gipuzkoari, eta bereziki Donostia aldeari darion *rigor mortis* literario-kulturala. Era honetako emanaldi gutxi dagoela. Egiten direnak ez direla gehienetan leku aproposetan egiten. Eta ikus-entzuleen interesa ere, minimotik milimetro gutxira dagoela. Soziologoek esan beharko dute zergatik. Ez dut uste inor haserretuko zaidanik Donostia kulturalki dexente hilda dagoela esaten badut. Azken bolada honetan —salbuespen ttikiren bat aparte utzita— bertan egiten diren ekintza kultural *zirrargarriak* liburu-aurkezpenak eta udaletxeko osoko bilkurak dira. Horrekin dena esanda dagoela uste dut.

Erranak erran, musika-taldeek, beren zuzeneko emanaldiei dagokienean, musika-mota guztietan nolabaiteko geldialdia edo krisia aipatzen badute ere, zuzeneko literatur emanaldi hauena gorantz doan fenomeno da, eta nahiz eta molde honetako ikuskizun batek ez duen sekula —ezta hurrik eman ere— musika-kontzertu batek adinako publikorik biltzen, azken hiruzpalau urteetan makina bat eskaini dira, oso estilo eta baliabide desberdinekin: direla Bernardo Atxagaren lezio eta irakurketak, dela Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarrik Sarajevoren inguruan bideo-irudiek lagundurik osaturiko hura, direla —berrikiago— Arratia aldeko Zantzoa literatur taldeak beren fanzinearen aurkezpen modura ematen dituzten emanaldiak *psikodelikoak*...

Era honetako emanaldiak egiteko orduan, jendaurrean poemaren bat irakurri duen edonork ongi dakien bezala, garrantzi izugarria du markoak, lekuak. Emanaldia ematen dutenak leku guztietara ilusio eta gogo berdin arnaren joanda ere, atmosfera egoki batek baino ezin egin lezake irakurketa atsegin. Eta hau, honelako saioen antolatzaileek sarri ahazten duten zerbait da: kultur etxez landa, lurralde berriak irabazi behar di-

ra literaturarentzat. Hiri guztietan daude taberna-zulo ego-kiak, jendeak eserita, garagardo bat dastatuz poema-emanaldiak gustora entzungo lituzkeenak. Maiztasun finko batekin horrelakoak antolatu eta jendeak saioetara inguratzeko ohitura har dezan saiatzea da kontua. Irakurketa eta mahainguru aseptikoak ekidinez saio erakargarriak prestatzea.

Lekuaren garrantzia aipatzen dugunez, ene abururako, Bilboko Kafe Antzokia eta Azkoitiako mataderoa dira atmosfera literario egokia eta eroso sortzeko bi eskenatoki ezin aproposago. Horrelako lekuak are gehiago ustiatu beharko lirateke. Edo, nik ba al dakit, Itoizko urtegiko eraikuntza-lanetan murgildu poetiko bat hartzea ere ez legoke apika gaizki, poema irakurtaldi *out-door* bat antolatuz aldamiotara igota...

Ba hori, urak geldiegi daudela aukeran.□

IKUSKIZUNAK

IMANOL AGIRRE

EUSKAL BLADE RUNNER

Arte mutu bat ikusle itsuarentzat izenburu iradokorra izan zuen Korrika Kulturalak euskal zinemagintzari buruz antolatu zuen mahainguruak. Koldo Izagirre, bertako mahaikidea, ez zen mutu geratu eta itsuontzat bi iritzi plazaratu zituen. Alde batetik, euskal zinemaren eskasia arazo politikoa zela adierazi zuen. Ez baitu sumatu zinezko gogoia euskarazko sormena laguntzeko. Eta bestaldetik, kultur sortzaileek zazpigarren arteari muzin egin diotela salatu zuen. Honela, ardura barik dabil noraezean.

Begibistan da estrategia politiko eza euskaraz burutzen diren ekoizpenetan. Euskal zinema itzulpen- eta bikoizketa-arazo soil bat baino ez dela onartuko balute bezala. Nekez ahaz de-

zakegu nola bete diren hautsez biltoki ezkutu batean (Indiana Jonesen Arka Galduaren azken eszena datorkit burura) 80ko hamarkadatik aurrera ekoiztu diren filme gehienen euskarazko bertsiok.

Indiana bezain ausartak izan dira gure zinemagileak baina larrutik eta, batik bat, poltsikotik ordaindu dute ahalegina. Belaunaldi hori gaudituta hutsune nabaria dago euskal zinegile gazteen artean. 1997. urtea, ordea, abagune berri baten hasiera izan daiteke.

Basamortuan barreneko bidaia latz honi aurre egiteko altxatu dira zenbait abenturazale. Aurten, hiru laburmetraia burutuko dira Euskara Herrian. Gertuenetik ezagutzen dudana «Olee» Produkzioak gidatzen duen egitasmoa da. Ondarroako talde eragile hau kultur esparru anitzetan ibilia da. Antzerki amateurren eman zituzten zenbait urrats, komikilari amorratuak izateaz gain. Oraingoan ur handitan sartu dira eta kultur industriarik garestienarekin ausartu dira.

Ez da txantxetakoa laburmetraia bat errodatzea. Aurrekontua ez baitago guztion eskura. Ez du inork sosik debalde ematen eta ondarrutar hauek jaietan txozna eta guzti jarri zuten errodaia gauzatu ahal izateko. Errealitatea edozein ikuskizun baino harrigarriagoa denez, Ertzaintzari (euskal *blade runner-ak*) aurre egin behar izan zioten diru-iturriaren ekimena ez zapuzteko. Oztopoak ez dira makalak euskal zinemagintzan!

Amatiñok *Euskaldunon Egunkaria*-n adierazi zuen *Goenka*-le-ren 500. atala bake-ekonomiaren ondorioa zela. Laburmetraia honen zioa gerra-ekonomiaren ondorioetan ote dago?

Anabasa izenpean ageriko zaigu kresal usainez eginiko laburmetraia hau. Zientzia-fikzioa dute eredu eta Ridley Scott zinemagilearen *Blade Runner* s o m e n -buru. Hala ere, Ondarroako filmeak gizarte desegituratua eta atzeratua eskaintzen du amerikarraren aurrerapen teknologikoaren aldean. Nola izango da Euskal Herria 2984. urtean? Ez da filme batentzako gai argela.

Zerbait ari da mugitzen euskal zineman. Mahainguru ugari, hainbat debate prentsan, Goya sari bateko irabazle eus-

kalduna, laburmetraiak eta aurten ere marrazki bizidunetz osaturiko beste luzemetraia bat. J. B. Berasategiren zuzendaritzari eta Koldo Izagirre-ren gidoiari esker euskal animazioak ez du etenik izango.

Baina berri guztiak ez dira onak. Koldo Izagirrek berak aitortu zigunez, hurrengo udazkenean Eremuak Zinemaldiak ez du aterik irekiko, nonbait. Zabaldu berria zen bideak ez du luzaro iraun. Dena den, aurten 1995eko irabazlea Euskal Herriko hainbat herritan pantailaratu dute. Ekimen aitzindaria ez bairik gabe, jatorrizko bertsiak euskaraz azpititulaturik. *Kantu Bat Bekorentzat* filmeak oso irudi ederrak utzi ditu gure erretinetan.

Eresi bat Eremuak-entzat. Nahikoa isolaturik omen ziren, erakunde publikoen behar bezalako babes osoa aurkitu ezinik. Donostiako Zinemaldiaren *glamour* eraldunetik lekutan. Esaterako, ETBk ez du inoiz begi onez ikusi bertan eman izan diren filmeak eta irabazleen emisioari uko egin dio. Kultura zenbaki komertzialen truke ordezkatzan den bitartean, jai izango dugu amildegiak beste aldeko kulturazaleok. □

TINKO

Irudien esparru honetan jarraituko dugu Tinko enpresaren eskutik. Izena ezin egokiagoa. Marian Galarraga Tinko elkartearen zuzpertzalea ari da zine komertzialaren luebakian burrukatzen. Hortxe ere baitago euskarazko zinemaren geroa. Tantaka zulatu nahi dute zinema-sare komertzial erdaldunaren irmotasuna.

Lana hasiera-hasieratik ondo jorratu beharra dagoela nabarmentzen dute. Usadio berriak sortu eta gerorako habeak ezarri. Egitasmoa ez da batere samurra. Orain dela pare bat urte aurreneko harri koskorra jarri zuten *Corina Corina* eta *Alargunen Gailurra* filmeekin. Hasiera itxaropentsu hark segida izan du.

Estreinako esperientzia denez, tentuz ibili dira, azken batean, etsaiak ez baitu zirrikitu handirik uzten. Bigarren kanpaina honetan, Donostian *Wallace & Gromit* filmearen euskarazko ber-

tsioa estreinatu zuten. Berriz ere, gaztelaniazkoa baino lehenago. Horretarako eskubideak Parisen erosi zituzten Espainiako enpresek baino azkarrago. Alabaina, ikusleen erantzuna ez zen ona izan. Gaurko panpinen animazioan dagoen emaitzarik garantzitsuenak ez zuen piztu donostiarren arreta.

Bi ondorio aipatu nahiko nituzke. Alde batetik, euskarazko ikuskarrien prestigioak ez duela oraindik oinarrizko mailarik eskuratu. «Euskaraz bada ez omen da kalitatezkoa» ikusle xume eta erakunde publikoen agintarien artean nahiko hedatuta dagoen argudioa baita. Euskaraz dagoen edozein ikuskarik kalitatearen duda-muda dakar bere baitan. Oker ez banago erdal arloan edozein txepelkeria irensteko prest izanik. Kontuan hartzen badugu *Wallace & Gromit* gurera heldu dela mundu osoan zehar sekulako onespena jaso ondoren, gertatutakoa onartezina da.

Beste aldetik, Donostian dagoen gose eza. Hiribururik euskaldunena agian, baina euskarazko ikuskariak ikusteko giro gutti. Joaquin Sabina nahiago, antza denez.

Tinko aritu behar Marian Galarragaren taldea. Bilbon emaldi batzuk antolatzeko Mikeldi aretoak lortu dituzte Udalaren euskara zerbitzuaren laguntzari esker. Herririk herri galtzak bete lan izango dute. Zinea gorantz doala agerikoa da eta euskarak ezin du abiada galdu.

Sinergen jario honetan ETBrekin egin dugu bat. Luzaro pantaila txikiko zinemaren programazioan euskara baztertu ondoren, Zine Orok berbiztu du lurperatutako haizkora. Igandero gazteei begira dago zinema-programazioa eta badirudi audientzia (hau burukomin galanta!) finkatu egin dela. Filmeen aukeraketa, berriz, ez da oso zorrotza. Otsailaren 16tik martxoaren 16ra bitartean bost filme pantailaratu dute (*Geronimo*, *Terminator 2*, *Aitarekin jo ta ke*, *Kickboxer* eta *Erne Bluetarrekin*). Hirutan bortxakeria protagonista. Eta hauetan ez dut Walter Hillen *Geronimo* kontuan izan, azken batean euskaldunok ez ote gara Europako azken apatxeak?

Dirudienez, kalitate pedagogikoa ez da neurtzen filmeen aukeraketan. Tinkok, aitzitik, ez du itsuarena egiten eta kali-

tate-neurri guztiak aintzat hartzen ditu. Bolada latz hauek ikusita, nire zorionik beroena eta urte askotarako Tinko elkarteari. □

METRO GEHIAGO

Zinema arlotik alde egin barik, bestelako abenturatan murgilduko gara. Zergatik ez da estreinatu *Tovaritch* Antxon Ezeizaren filme berria? Aurki urte bi igaroko dira zinta amaitu zenetik. Zalantzarik ez dago Euskal Herrian filmeak plazaratzea burutzeta baino zailagoa dela.

Estreinatu barik *Menos que cero* filmea ere badugu. Euskal Herriko zinemagintzan sekula izan den ironiarik harrigarriena. Euskaraz idatzirik eleberri batean oinarritu arren eta zinegile eta gidogile euskaldunak izanagatik emaitza gazteleraz da. Literatura oso abiapuntu aproposa da zinemagintza hasi berri batean. Baina herri honetan hamaika ikusteko jaiok gara.

Koldo Azkarreta bilbotarrak salatzen zuen bezala, askoz zailago izan zaio estreinatzea, errodatzea baino. Bere lehenengo opera primak *Rigor Mortis* du izena. Hala eta guztiz ere, bi aste baino ez du lortu areto txiki batean. Ziztu bizian desagertu da Bilboko aukeretatik. Donostian, Gasteizen edota Iruñean auskalo noiz.

Rigor Mortis-ek, laburmetraia izateko sortu zen luzeak, ez du oihartzun nabarmenik erdietsi. Beste aldetik, hizpide izan da Mikel Laboari buruzko laburmetraia. Imanol Uribek zuzendu du Atxagaren gainbegirada izan duen gidoia. Nolabait, laburmetraia berri honek aitzinean beste bat izan zuela gogora ekarri nahi nuen.

Ikuskak 13-k (Antxon Ezeizak kudeatu zuen dokumental-sortako bat) Euskal Kanta Berria zuen gaitzat. 1982an Uribek burututako filmearen amaiera Mikel Laboak eman zuen. Plano-sekuentzia zoragarria zen: Mikel Laboa mendi-magal batean gitarra eskuan. Txoria Txori, askatasunari buruzko kanta xarmagarria publikoarekin kantatua entzuten zen bitartean, ka-

mara (globo batean kokaturik) zerurantz altxatzen zen harik eta Euskal Herriko paisaia berde eta zabala ikusten genuen arte.

Orain berriro ere, Imanol Uribek lekukoa hartu du hama-bost urteren buruan eta *Ikuska 13* horrek jarraipena izango du.

Atzera begira jarriz gero, aipatzekoa da Bilbon udaberriare n etorrerarekin batera izan zen *Herriak Abialdian* izeneko zinema-maratoia. Bertan euskal zinemaren hastapenetako hainbat *Ikuska* ikusteko parada izan genuen. Honezaz gainera, Abialdia herri-ekimenak antolaturik, pentsarazten duen filme-multzoz bikain bat pantailaratu zen El Carmen zinema-areto alternatiboan. *Lamerica*, *El odio*, *La estrategia del caracol*, *Kantu bat Bekorentzat*; axolagabe uzten ez zaituzten filmeak, hain zuzen ere.

Baionan, berriz, Atlante zinemagelak bereganatu zuen arre-ta. Estatu Batuetako ekoizpenen itoaldiari eraso egin eta Europako filmeak nagusitzen dira programazioan (% 60). Hau dela eta, saria eta babesak eskuratu du Europako Parlamentutik.

Zinema oro ez da hutsala. Arestian aipatutako ekimenekin batera, Iruñeko Golem aretoaren lana eta Donostiako kultur patronatoak Antzoki Zaharrean antolatzen duen zinema-programazioa nabarmendu beharrean gaude.□

THE END-IK EZ

Berriro diot, zerbait ari dela mugitzen euskal zinemagintzan. Horra hor zinema-eskola berri batzuek harrotu duten espektatiba. Bilbon, esaterako, iaz eskola bi baino ez zen, aurtent, bost zinema-eskola dugu aukeran. Ekimen xumeak izan arren jende gaztearen irrikiaren isla argia da. Beraz, zinemai-ikastaro on bat egiteko ez da Madrilera joan beharrik.

Sortu berri hauen artean *Ikuska* izenekoa aipatu nahi nuke. *Ikuska* eskolak, Bilboko alde zaharrean kokaturik, euskal zinemaren hastapenetako izen esanguratsua bereganatu du. Bere ikastaroetan Euskal Herriko zinegilerik aipagarrienetakoa aurki daitezke: Medem, Bajo Ulloa, Uribe, Armendariz... Gi-

doi, Estetika eta Laburmetraien esparruak aztertzeraz 70 bat ikasle gerturatu dira. Bide errazik ez du izango baina zinema-eskola hau bezalako ekimena ezinbestekoa zen. Zinemaren Lezama edota Zubieta izatea ezinbestekotzat jotzen dugu eta.

Euskal Herriko zinematik mundua liluratzen jarraitzen du. Oraingoan eskuadra zaharreko zinemagile nafar batek asmatu du. Montxo Armendarizen filme berriak Europako onespena dakar. Izaba eta Otsagabian errodaturako eszenek hainbat zinezalaren bihotza biztuko dutelakoan nago. Horrela euskal lurretan zinea egiteko hazia ereiten da. Pena bakarra aitonen hizkuntz zaharrak korrika baino ez duela egiten, antza.□

SOZIOLINGUISTIKA

KIKE AMONARRIZ

EUSKALGINTZA UNIBERTSO BILAKATU ZENEKOA

Gogoeta, beharra, ilusioa eta borondatea.

Martxoaren 6an eta 7an egin ziren jardunaldiei buruzko lehen inpresio bat eskaintzekotan hitz horiek erabiliko nituzke. Egon litezke egokiagoak, baina bat-batean horiek sortu zaizkit.

Antolatzaileek eta proiektuaren bultzatzaileek jakin dute euskararen aldeko gizarte-ekimenean diharduten pertsona, talde eta erakundeak inguratzen eta asmo eta ideia konkretu batzuen inguruan biltzen. Bilgune historikoa izan dira jardunaldiak, mugarri euskararen aldeko herri-ekimenaren historian eta bilakaeran.

Landutako eta eztabaidatutako txostenek eta ateratako ondorioek ere ekarri dute berrikuntzarik, bai planteamenduetan, bai proposamenetan eta baita erabilitako terminologian ere;

«ideiak eztabaidatu eta berritzen jarraitu behar dugu» irakur dai-teke ondorio nagusietan. Euskaldunak inguratzen gaituen errealitatea abiada bizian ari da aldatzen, eta euskalgintzaren baitako eztabaiden mamia eta kontzeptualizazioa ere eraldatzen ari dira.

Jardunaldi horietan bildutako en arteko harremanetan beste talde, nekez isladatzen zen gaur egungo giro politikoaren larritasun eta mina. Erramun Osak aipatzen zuen bezala «euskara eta euskal kulturak iritzi, jokabide eta jatorri desberdineko pertsonak bateratzeko daukan gaitasuna» agerian geratu zen. Euskal gizarteak eta politikariek oso aintzat hartu beharko lukete euskalgintzak eskaintzen duen kapital aberats hau, herri-gintzaren nondik norakoak marrazterakoan.

Gogoetak burutu eta ondorioak plazaratu eta gero ordea, benetako erronka dator. Euskararen unibertsoak urrats konkretuak eman eta plazaratu dituen proposamenak gauzatu egin beharko ditu. Bidea urratu eta gizarteratu diren planteamenduak gauzatu gero, esan liteke, euskalgintzaren fase berri baten atarian kokatuko garela:

- Euskararen Gizarte Erakunde en Kontseilua sortzeak, egiturazko aldaketa sakonak eragin beharko lituzke gaur egungo herri mugimenduen antolaketan; batez ere EKB eta Euskara Elkarteen federazioari dagokienez (funtzioak eta antolaketa berrikusiz).

- Administrazioan hizkuntz normalizazioaz arduratzen diren erakunde en (batez ere HPS, HPZN eta bere neurrian EKE) eta gizarte-erakunde en arteko sinergia lortzea, onuragarria izango da guztientzat. Euskararen Gizarte Erakunde en Kontseilua *lobby* antzeko bat izatera iristen bada («euskalgintzaren ahotsa izan eta eragin soziala bideratzea»), hizkuntzaren aldeko politika instituzionala indartu eta era berean euskalgintza soziala sustatu egingo lirатеke.

- Ikuspuntu sozialeko Plangintza Orokorraren diseinua, Euskararen Aholku Batzordea prestatzen ari den Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia osatzeko ekarpen gisa ere onartu beharko litzateke. Bi bide hauen uztarketa egokia (berez, aberas-

garria beharko lukeena) giltzarri izan liteke, unibertsoaren eta administrazioaren arteko harremanen jitea finkatzeko.

Ilusio berri bat piztu da, euskalgintzaren bidean urrats kua-
litatiboa eman da, eragile sozialen artikulaziorako zimenduak
ezarri dira. Orain eraikuntza altxatu behar da.

Guztiok aukera historiko honek eskaintzen dituen alderdi
positiboak sustatzen asmatuz gero, euskalgintzari epe berri
bat zabalduko zaio.□

II. SOZIOLINGUISTIKAZKO INKESTA

Hausnarketa sakonetarako bide eskaintzen digute 1996ko
soziolinguistikazko inkestaren datuek. Azkenaldian topiko sa-
marra ari da bilakatzen euskararen egoerari buruzko datuak
eskaintzerakoan «argi-ilunak», «txuri-beltzak» edo «botila erdi
hutsa/erdi betea» bezalako irudiak erabiltzea, errealitatea ja-
r rera kontrajarrietatik aztertu eta horien arabera atera ohi di-
ren ondorioak ere kontrajarriak direla adierazteko.

Datu hauek direla eta, argitaratu diren iritzietan ere, joera
horiek nahikoa garbi azaldu dira; batzuek irakurketa argi a-
goa egin dute eta beste batzuek ilunagoa. Hala ere, esango
nuke guztien azpian oinarrizko hausnarketa amankomun sa-
mar bat ere azaleratu dela, alegia, euskara oro har aurrera
doala, baina euskarak orokorrean bizi duen berreskurapen-pro-
zesua, nahiko genukeena baino motelagoa eta desorekatua-
goa dela. Bagoaz, baina astiro.

Eta hortxe dago koska eta irakurketa desberdinen kakoa: be-
har den abiadan ala mantsoegi?, okerreko ala zuzeneko bide-
tik?...

Nahikoa ezagunak direlakoan, aipatu direnak errepikatze-
ko asmorik gabe, lehen irakurketa batean, honako aspektu
hauek azpimarratuko nituzke:

- Hiru hizkuntz politika eta hiru hizkuntz egoera. Euskararen
biziraupenak hizkuntz politika sendoa eta ahalik eta bateratue-

na behar du. Iparraldean euskara nozitzen ari den galera-prozesu nabarmena ez da mugaz gaindiko arazoa, euskal hizkuntz komunitate osoarena baizik. Egoera honek, bere ondorio politikoak eta sozialak izan beharko lituzke.

- Iparraldean izan ezik, euskararen ezagupen-maila handitzen ari da adin gazteenetan. Hala ere, jaitsiera demografikoa dela medio, haur eta gazteen kopurua txikiagoa denez, proportzioz euskaldunagoak izan arren, kopuru orokorretan hobekuntza ez da horren nabaria. Bestalde, euskaldunenak diren belau-naldirik zaharrenak desagertzen diren neurrian, beren lekua hartzen dutenak erdaldunagoak dira, eta gazteenek eragindako hobekuntza neutralizatu egiten dute kopuru orokorretan.

- Euskaldun elebakarrak desagertzen ari dira. *De facto*, sozialki eta kuantitatiboki aspaldian gertatu zen galera honek ondorio kualitatiboak izan ditu eta are handiagoak izango ditu euskal hiztun komunitatearen egituraketan eta hizkuntzaren kalitatean. Hizkuntzaren kantitateaz gain, kalitateaz behar bezala arduratu beharko dugu.

- Euskaldunak zenbat eta gazteagoak, orduan eta familia-giro erdaldunagoa. Hizkuntzaren ikasketa kulturalak etorkizunean ikasketa naturalak baino garrantzi handiagoa izango du. Ikasketa kulturalaren kanpo-errefortzuak ezinbestekoak izango dira beraz, ikasketa-prozesua arrakastatsua suerta dadin.

- 15 urtetik gorako pertsoneri dagokienez, azken bost urteotan euskaldunen multzoa handitu bada ere, izan dituen irabaziak mugatuak izan dira: 18.000 lagun (% 0,5) Euskal Herri osoan (3.500 pertsona urteko). Datu hauen azterketa sakonak azterna interesgarriak eskainiko lituzke, haur nahiz helduen irakaskuntzaren optimizazioari begira.

- Hegoaldean, familia euskaldunetako hizkuntz transmisioa segurtaturik dago, ez ordea Iparraldean.

- Euskaldunen hizkuntzarekiko leialtasun-maila altua da, eta testuinguruak horretarako bide eskaintzen dienean gehienek euskaraz egiten dute (Iparraldean izan ezik).

Lehen aipatu bezala, datuak irakurtzerakoan, oso aintzat hartu behar da bilakaera demografikoaren datua: adinik zaharretan kokatzen da populaziorik euskaldunena eta hauek desagertzen direnean, bere lekua hartzen dutenak erdaldunagoak dira. Haurrak eta gazteak euskalduntzen ari baldin badira ere, demografikoki gutxiago direnez, maiz ez dira heltzen zaharren artean izandako galera kuantitatiboak estaltzera. Horregatik haur eta gazteen arteko ezagupen- eta erabilpen-indizeak nabarmen igo arren, kopuru orokorrak neutralizatu egiten dira.

Iparraldean horrelakorik gertatzen ez denez ordea, galera are nabarmenagoa da.

Datu hauek bestalde, hizkuntzaren aldeko politika sakondu, indartu eta zabaldu beharra ere adierazten dute, mundializazioak eta hainbat diskurtso sozio-politikotan euskarak jasane duen baliogutzitze kezkarriak, dauden indar guztiak biltzea eskatzen dutelako (gauza bat da euskararen oso alde ez egotea, eta beste bat, hilabeteotan hainbat politikaririk egin duen bezala, euskararik sekula ez dutela ikasiko aldarrikatzea).

Euskararen Aholku Batzordea eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan daitezke horretarako gune eta elementu giltzarriak.□

MUNDIALIZAZIOA ETA EUSKAL MUSIKAREN ESPORTAZIOA

Lin Ton Taun talde ezagunak bere hurrengo diskoa bi bertsiotan ateratzea erabaki du: aurrena euskaraz, eta ondoren gaztelaniaz.

Entzun musika-aldizkarian (portzierto, zenbat jendek eta gaztek daki, badagoela hemengo eta hango musikei buruzko aldizkari bat euskara hutsez, goitik behera koloretan; eta dagoneko lau zenbaki kaleratu dituela; eta merezi duela?), eginiko elkarrizketan erabaki horren klabe interesgarri batzuk azaldu dira. Honela azaltzen dituzte:

Garbi dugu Euskal Herriko hizkuntza euskara dela. (...) Gu Zestoan bizi gara. Guk gure bizimodua euskaraz ematen dugu beti.

Euskal Herrian egingo ditugun kontzertu guztiak euskaraz izango dira. Itzulpenarena kanpora begira izan da.

Gure asmoa betidanik ahalik eta jende gehienarengana iristea izan da. Eta orain arte Euskal Herrian lortu dugu, baina kanpoan oso zaila dugu, hizkuntzak suposatzen duen mugarengatik. (...) Bidezkoa iruditzen zaigu kanpoko jendeari aukera ematea zer esaten dugun ulertzeko.

Euskal kulturaren beste esparruetan (idazleak, zinemagileak, antzerkian...) bi bertsio egiten dira eta askotan Euskal Herri-rako bi bertsioak.

Eztabaida sakona da eta euskarazko produktuen bideragarritasuna dago jokoan kasu askotan. «Itzulpenarena», esparru eta kasu batzuetan oso onartuta dagoen bezala, beste batzuetan (agian, inoiz ez delako egin) ez da horren erraz onartzen, edo zailagoa egiten da ulertzea.

Baina, mundializazioak ekarriko digun arazoetako bat hain zuzen ere horixe da; hitzun gutxiko hizkuntzen bideragarritasunik eza, kontsumo zabaleko produktuei dagokienez.

Jaume Ferrús Canal Satélite Digital taldearen zuzendari orokorra da eta berrikitan honela zioen *El Temps*-i eskainitako elkarrizketa batean:

Teknologia berrietan katalanaren presentziak izan dezakeen hobekuntzari dagokionez, ez naiz optimista. Gaur egungo telebista kontsumoa ez da katalaneraren aldekoa Katalunian. Baina badu ordea, kalitate-kuota bat. Uste dut gure esku dagoela telebistan katalanaren kuota normalizatzaile bat mantentzea. Gaur egun hori horrela da, baina ez da beste horrenbeste gertatzen ez zineman, ez prentsan, ez aldizkarietan... telebistan besterik ez. Aro berri honetan berriz, eskaintza segmentatu egingo da eta honek merkatu zabalagoetara jotzea eskatzen du eta beraz, katalaneraren esparrua gaintzea. Hala ere, badira formulak kuota normalizatzaileak mantentzeko genero giltzarrietan.

«Garapen oso eta eutsigarria lortzeko, kalitatezko proiektu eta zerbitzuak eskaini behar ditu (euskal kulturgintzak), eta horretarako, egiten den kultur politika ere sakonki aztertu eta egokitu behar da» dio Euskararen Unibertsoa jardunaldietako ondorio batek.

Beste erremediorik ez dugu; lana ahalik eta ondoen egin beharko dugu gainera. Eta horretarako ezinbestekoa izango da inizatiba sozial edo pribatuaren ekimena eta administrazioaren laguntza eta sustapena.

Asko eta luze hitz egin liteke azpiegiturez, ekoizpen-sistemez, banaketaz, sustapenez...□

TOLOSA HIRIBIDEA, 103-1. C
TEL. (943) 21 80 92
FAX (943) 21 82 07
20009 DONOSTIA

